

PS
IK
OL
O
GI
A

IRUNE BAYANO DIEZ

TRANSEXUALITATE
PROTOKOLOAREN AZTERLANA.
IDENTITATE-ANIZTASUN
SEXUALA LANTZEKO
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

TFG/GBL 2018-2019

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Grado en Maestro de Educación Primaria /
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**TRANSEXUALITATE PROTOKOLOAREN
AZTERLANA. IDENTITATE-ANIZTASUN
SEXUALA LANTZEKO PROPOSAMEN
DIDAKTIKOA.**

IRUNE BAYANO DIEZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Irune Bayano Diez

Izenburua / Título

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa / Estudio del protocolo de Transexualidad. Propuesta didáctica para trabajar la diversidad de identidades sexuales.

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Fernando Trebol Unzue

Saila / Departamento

Osasun Zientziak saila / Ciencias de la Salud

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2018/2019

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluak hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarri, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduletan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman du Nafarroako hezkuntzako protokoloa transexualitate kasuetarako AMIA analisi tresnaren bitartez aztertzeko, eta beraz, protokoloak dituen ahulguneak identifikatzeko. Era berean ezagututako ahulguneak egiaztatu eta irakasleen ezagutza zein sententzioak zeintzuk diren jakiteko, irakasleei zuzendutako galdetegia sortu da. Aspektu horiek lan honen 3. atalean ikus daitezke.

Didaktika eta diziplinako modulua marko teoriko eta praktikoa garatzen dira. Sortutako gida didaktikoaren bidez, transexualitatearen inguruan gehiago jakiteko eta era berean identitate-aniztasun sexuala bere osotasunean bai irakasleekin zein ikasleekin jorrazteko aukera eman du.

Halaber, Practicum moduluak proposamen didaktikoa sortutako Transformazio txokoa praktikara eramateko aukera eman du, hau da, gidak era teorikoa planteatutakoa praktikara eramateko.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, bi elean idatziko dira lanaren "Sarrera" eta "Ondorioak". Honekin batera, gaztelaraz idatziko dira "AMIA analisia" atala eta Marko Teorikoko "2.13. Esku-hartzeko ikuskerak: humanismoa eta sozio-kritikoa", eta atal praktikoko "3.3.5. Transformazio txokoa esku-hartzeko aukeratutako ikuskerak" eta "3.3.6. Transformazio txokoaren ebaluazioaren proposamena. Nola ebaluatu".

Laburpena

Gradu Bukaerako Lanaren helburu nagusia Nafarroako Transexuaitate kasuetarako sortutako Hezkuntza Protokoloa AMIA ikaskuntza tresnaren bitartez aztertzea da, aukera, mehatxuak, indarguneak eta ahulguneak identifikatuz. Behin ahulguneak sailkatu direla, proposamen didaktikoa egin da, protokoloaren hobekuntza gisa.

Kasu honetan, irakasleen partetik sexualitatea gelan jorrazeko zailtasunak antzeman dira, informazio eta formazio gabeziak direla medio, oinarrizko kontzeptuen nahasketa ekarriz. Hori dela eta, Harrotu eta Kattalinguneren aholkularitzarekin irakasleei zuzendutako galdetegia sortu da, errealitate hau baieztatzeko eta hauek dituzten sententzio zein ezagutzak zeintzuk diren jakiteko asmoz.

Baieztapen hau behin egiaztatu denean, irakasle zein familiei zuzendutako gida diseinatu da: lehenengo atala informazio eta kontzeptuak era sinple eta argi batean helaraztean datza; eta bigarrena, aldiz, gelan giza garapena (honen barruan identitate sexuala) eta baliabide pertsonalak (komunikazioa, negoziaketa, autokontzeptua eta autoestimua) lantzeko baliabidea izango dena.

Hitz gakoak: identitate-aniztasun sexuala, transexualitatea, transformazioa, protokoloa eta AMIA.

Resumen

El objetivo principal del Trabajo de Fin de Grado es realizar el análisis del protocolo para casos de transexualidad mediante la herramienta de estudio DAFO, con el fin de identificar las debilidades, amenazas, fortalezas y oportunidades de dicho protocolo navarro. Una vez detectadas las debilidades, se ha realizado una propuesta didáctica como mejora del protocolo.

En dicho caso, se ha identificado por parte del profesorado la dificultad para impartir o trabajar la sexualidad en el aula, puesto que hay carencias en cuanto a formación e información, por lo que conlleva una confusión para utilizar el vocabulario de una manera adecuada. Es pues, con el objetivo de confirmar dicha realidad y para tener un

mayor conocimiento sobre las sensaciones y conocimientos del profesorado, se ha realizado un cuestionario para profesores/as con la asesoría de Harrotu y Kattalingune.

Tras confirmar dicha afirmación, se ha diseñado una guía dirigida tanto al profesorado como a los familiares: la primera parte se enfoca en transmitir información y conceptos de una manera clara y simple; en la segunda parte, se plantea una propuesta didáctica con el fin de desarrollar temas como el desarrollo (dentro de ello la identidad sexual) y recursos personales (comunicación, negociación, autoconcepto y autoestima).

Palabras clave: Diversidad de identidades sexuales, transexualidad, transformación, protocolo y DAFO.

Abstract

The main objective of the end-of degree work is to conduct a protocol analysis for transsexuality cases using the SWOT Study tool, in order to identify the weaknesses, threats, strengths and opportunities of such a protocol Navarro. Once the weaknesses have been detected, a didactic proposal has been made to improve the protocol.

In this case, it has been identified by the faculty the difficulty of imparting or to work on sexuality in the classroom, since there are gaps in training and information, so it entails a confusion to use the vocabulary in a proper way. Therefore, in order to confirm this reality and to raise awareness about teachers' feelings and knowledge, a questionnaire has been conducted for teachers with the advice of Harrotu and Kattalingune.

After confirming this statement, a guide has been designed for both teachers and family members: the first part focuses on transmitting information and concepts in a clear and simple way; the second part presents a didactic proposal so as to develop topics such as development (within it Sexual identity) and personal resources (communication, negotiation, self-concept and self-esteem).

Key words: Diversity of sexual identities, transsexuality, transformation, protocol and SWOT.

Eskerrak

Lehenik eta behin, eskerrak eman Nafarroako zerbitzu publikoak diren Harrotu eta Kattalinguneri, zehatz-mehatz Kattalinguneko sexologoa den Amaia Barrena Aranari, bi zerbitzu publiko horien izenean emandako aholkularitza eta informazio baliabideak eskaini didatelako.

Baita ere, Fernando Trebol Unzue den Gradu Bukaerako Laneko tutoreari, etengabeko elkarlana eta aholkularitza emateagatik.

Azkenik, eskerrak eman nire familia eta zehazki nire bi ahizpei, alde batetik, Estitxu Bayanori hainbat liburu eskuragarri uzteagatik, eta bestetik, Ainhoa Bayanori gida didaktikoaren maketazioan laguntza eskaintzeagatik, eta honetan sortu eta erabilitako logoa den *transformatu zaitetz transformatu gaitezen* deitutakoa diseinatzeagatik.

Aurkibidea

Sarrera	1
1. Galderak eta helburuak	3
1.1. Galderak	3
1.2. Helburuak	6
2. Marko teorikoa	9
2.1. Sexua vs Generoa	9
2.2. Autosezaxioa kontzeptua eta identitate sexuala	11
2.3. Orientazio sexuala	12
2.4. Transexualitatea	13
2.4.1. Historian zehar	14
2.5. Transexualitatea vs Intersexualitatea	15
2.6. Queer teoria	16
2.7. Marko legala	16
2.7.1. Estatuan	17
2.7.2. Nafarroan	18
2.8. AMIA	18
2.9. Gida	18
2.10. Hezkuntza sexuala lantzeko aspektu pedagogiak	19
2.11. Garapen ebolutiboa 6 urtetatik pubertarora arte	20
2.12. Abraham Maslow. Beharren piramidea	20
2.13. Esku-hartzeko ikuskerak: humanismoa eta sozio-kritikoa	22
2.13.1. Perspektiba humanista	22
2.13.2. Perspektiba socio-critica	23
3. Materiala eta metodoak	25
3.1. AMIA analisisa	25
3.1.1. Puntos a tener en cuenta sobre el análisis DAFO del protocolo	28
3.2. Galdetegia	29
3.2.1. Irakasleei zuzendutako galdetegia	29
3.2.2. Diskusioa	33
3.2.3. Galdetegiaren ondorioak	39
3.3. Irakasle zein familiei zuzendutako gida	44
3.3.1. Zergatik gida honen beharra. Bere justifikazioa	45
3.3.2. Gidaren helburuak	45
3.3.3. Nori zuzenduta dago	46
3.3.4. Gidaren atalak	46
3.3.4.1. Irakasle zein familiei zuzendutako informazio atala	46
3.3.4.2. Irakasleei zuzendutako proposamen didaktikoa	55
3.3.5. Transformazio txokoan esku-hartzeko aukeratutako ikuskerak	63
3.3.6. Transformazio txokoaren ebaluazioaren proposamena. Nola ebaluatu	64
Ondorioak	67
Conclusiones	71
Bibliografia	77
Eranskinak	85
I. Eranskina. Irakasleei egindako galdetegia	85

II. Eranskina. Gidaren atalen hainbat argazki	88
III. Eranskina. Motibazio jarduera	89
IV. Eranskina. Behar fisiologikoa eta segurtasuna	91
V. Eranskina. Afiliazio errenkada	93
VI. Eranskina. Onarpenaren errenkada	98
VII. Eranskina. Onarpena: identitate sexuala	101
VIII. Eranskina. Lapbook	106

Irudien aurkibidea

1. Irudia. Gradu Bukaerako lanaren laburpena	8
2. Irudia. AMIA analisia	26
3. Irudia. AMIA analisia	27
4. Irudia. Galdetegiaren irudi digitalaren eredia	29
5. Irudia. 7. galderaren irudi digitala	31
6. Irudia. Nola identifikatzen duzu zure burua	32
7. Irudia. Parte-hartzaileen adina	32
8. Irudia. Irakaste etapa	33
9. Irudia. Urte kopurua irakasle gisa	33
10. Irudia. Norbere egoeraren aukeraketari dagokion grafikoa	40
11. Irudia. Noizbait trans* hitza entzun/ irakurri al duzu?	40
12. Irudia. Trans* izatea ebaki bat da	41
13. Irudia. Pertsona transexualei esleitutako sexuaren arabera tratatu behar zaie	41
14. Irudia. Pertsona transexuala eta intersexuala berdinak dira	42
15. Irudia. Gidaren atal nagusiak	44
16. Irudia. Banako sexuatuak	48
17. Irudia. Maslow piramidea	58

Taulen aurkibidea

1. Taula. Irakasleen erantzunen datu-bilketa	34
2. Taula. Irakasleen erantzunen datu-bilketa	36

SARRERA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lehen Hezkuntzako Irakasleen Graduko eta zehazki 2018-2019ko promozioan Gradu Bukaerako Lana egitea egokitu zait. Unibertsitateak eta tutoreak eskainitako GBL enprikoaren formatua jarraitu eta nire lanaren zuzendariaren laguntzarekin batera aurrera eramatea lortu dut.

Denborarekin hasitako Gradu Bukaerako Lana da, non hasiera batean gaiaren inguruko informazio-bilketa egin nuen, gaia ahalik eta hobekien menperatzeko, eta ondoren, gaiaren lanketa handia eta proposamen didaktikoa aurrera eraman nituen.

Gai sakona izanik, eta hasiera batean kontzeptu nahasketa edukiz, oztopo eta buruhauste asko sorrarazi dizkidan lana da. Hala ere, azkeneko emaitzari jaramon eginez, nahiko asebate eta pozik geratu naiz, beti ere hobekuntzak egiteko aukerak daudelarik.

Horrela, irakurleak transexualitatea eta identitate sexualaren inguruan gehiago ikasteko aukera izango du. Alde batetik, Nafarroako transexualitate kasuetarako hezkuntza protokoloaren berri eta honen azterlanaren berri izango du. Honekin batera, irakasleei zuzendutako gidaren emaitzak eta analisiak. Eta azkenik, irakasle zein familiei zuzendutako gida didaktikoa eskuratzeko aukera izango du.

Gauzak horrela, nire lana irakurtzeko gonbidapena helarazten dizuet.

INTRODUCCIÓN

Me ha correspondido hacer el Trabajo de Fin de Grado del Grado en Maestro en Educación Primaria en la Universidad Pública de Navarra y concretamente en la promoción de 2018-2019. He seguido el formato empírico ofrecido por la Universidad y que con la ayuda del director del trabajo lo he podido llevar a cabo.

Es un Trabajo de Fin de Grado que se ha empezado con anterioridad, donde en un principio se ha querido hacer una recogida de información con el objetivo de dominar lo mejor posible el tema, para realizar posteriormente un trabajo extenso y a su vez llevar a cabo una propuesta didáctica.

Siendo un tema en auge, y debido a mi previo desconocimiento, es un trabajo que me ha causado dificultades y rompecabezas. A pesar de todo, me he quedado satisfecha siendo consciente del resultado final, teniendo en cuenta que siempre habrá oportunidad de mejorar.

De ese modo, el lector podrá tener un mejor conocimiento sobre temas como la transexualidad y la identidad sexual. Por un lado, tendrá la opción de conocer el protocolo educativo ante casos de transexualidad, y el análisis realizado. Por otro lado, podrá ser testigo del análisis y la recogida de datos de la encuesta realizada al profesorado.

Con todo esto, os traslado la invitación para leer mi trabajo.

1. GALDERAK ETA HELBURUAK

Proiektua aurrera eramateko, hainbat galdera planteatuko dira. Horretarako Gradu Bukaerako Lanean Nafarroako transexualitate kasuetarako hezkuntza protokoloa aztertuko da, honen indargune zein hutsuneen berri izateko, eta hortaz eskoletan integratu daitekeen proposamen didaktikoa bertaratzeko.

1.1. Galderak

Gradu Bukaerako Lanarekin erantzun beharreko galderak honakoak dira:

- **Nola aztertuko da Nafarroako transexualitate protokoloa?**

AMIA (Aukera, Mehatxu, Indargune eta Ahulezia) edo gazteleraz, DAFO/ DOFA tresnaren bidez. Planifikazio estrategikoa da, proiektu baten hobekuntzak eta zuzenketak eraginkorrak izateko. (*Diaz eta Matamoros, 2011*).

- **Behin ahulguneak detektatuta daudenean, zer planteatuko da?**

Lehenik eta behin, irakasleei zuzendutako galdetegia plazaratuko da, trans* errealitatea eskoletan hobeki ezagutzeko helburuarekin; hots, irakasleek gai honekiko zein hezkuntza sexualarekiko dituzten ezagutzak eta formakuntzak zeintzuk diren ezagutzeko.

Bestetik, teknika psikologikoak garatzeko baliabide didaktikoa proposatuko da, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzara bideratuta egonen den gida dena, nahiz eta Gradu Bukaerako Lana Lehen Hezkuntzako etapan oinarrituko den.

- **Ze ezaugarri izango ditu baliabide didaktikoak?**

Lehenik eta behin etapa osoan zehar eta zikloka ezarri nahi den baliabide didaktiko hau ezin da modu isolatu batean planteatu. Hau da, gida integrala izan behar da, non ikaskuntza esanguratsua beti presente dagoen eta arloak modu zeharka batean emango diren. Hau guztia modu inklusibo batean eta hezkuntza komunitateko kide guztiek barneratzeko txokoan planteatzea aproposena da. Une eta espazio batean bertaratu da, gaitasun afektibo, kognitibo eta psikomotorrak inplikaturik eta ikasleen ideiak inkontzientetik kontzientera bihurtuz.

- **Zer eduki kontuan hartuko ditu baliabide didaktikoak?**

Sexuatze prozesuan parte hartzen duten hainbat kontzeptu azalduko dira. Honekin batera, transexualitatearen gaia landuko da, alderdi juridikoa eta hainbat elkarrekin zerbitzu publiko eta baliabideen informazioa eta kontaktuak aztertuz. Irakurleak kontzeptuak ahalik eta argien edukitzeko, glosategi bat sortzea egokia izango litzateke, aniztasun sexualaren inguruko informazio esanguratsua era erraz eta ulergarri batean aztertu eta osatzeko.

“Tranformazio txokoa” sortzeko Haur Hezkuntzako txokoen ereduari jarraituz, Nafarroako Foru Aginduak eta Nafarroako curriculumean ezarritako irizpideak aintzat hartu nahi dira, baita ere sexualitatearen oinarriko ezagutzak, ikasleen identitate aniztasuna goraiatuz. Aipatzekoa da baliabide didaktikoak bost gaitasunak (psikomotorra, komunikatiboa, soziala, afektiboa eta kognitiboa) kontuan hartuko dituela, teknika psikologikoa, adimen exekutiboa eta ikaskuntza esanguratsua lortzeko helburuarekin.

- **Nori zuzenduta dago?**

Irakasle zein familiei zuzenduta dago, eskolan berdintasun eskubidea eta aniztasuna bermatzeko euskarri bezala. Egunerokoa eskolan aplikatzeko bide izango da; hots, eskola errealitatearen parte izateko eta horrela ikasleen garapen integrala bermatzeko. Izan ere, ez da soilik ikasleen ezagutzak aberastu behar, irakasleen prestakuntza oso garrantzitsua baita.

- **Nolako parte-hartzea izango du familiak?**

Familia ikaslearen garapen integrala lortzeko beste pieza bat da, eskolarekin elkarlanean aritzean ikaslearen ongizatea eta gizarteratzea bermatzen duena. Beraz, ezin da ekimen honetatik at egon. Helburua familiak abian jarriko diren jardueren berri edukitzea da. Ez du zertan modu aktiboan parte hartu behar, baina egokiena ikasturtea hastean proiektu honen berri edukitzea da, beti ere hauen konfiantza bermatzeko eta hauekin lankidetzan egoteko, eta era berean, suertatu daitezkeen arazoak ekiditeko.

-
- **Ikasleek eta irakasleek zer ezagutza dute Hezkuntza sexualari buruz?**

Hezkuntza sexuala sarritan tabua izaten jarraitzen duen gaia da. Gutxitan ikasleei honen inguruan hitz egiten zaie, eta are gutxiago Lehen edota Haur Hezkuntzan. Hasieratik, haurrek atxikimendu afektiboak izaten dituzte, baina hala ere, gutxitan lantzen dira; ondorengo urtetan beraien kuriositatea irakasle edota familiekin elkarbanatu beharrean bestelako iturriak aurkitzen dituzte. Honengatik, proiektu honen pieza garrantzitsuenetarikoa bat ikasleen aurre ezagutzak izango dira, datu hauek edukiz proiektua esanguratsuago izateko. Beti ere teoria konstruktibista kontuan hartu behar da, hots, ikasleen aurre ezagutzak kontuan hartuz ezagutza berria eraikitzea, ikasleen ikaskuntza esanguratsua bermatuz. Hala ere, arestian esan bezala irakaslearen jarrera anitz garrantzitsua izango da.

- **Zer-nolako elkarlana egongo da zerbitzu publikoekin?**

Nafarroan hainbat zerbitzu publiko daude Identitate sexualaren inguruko informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen dutenak. Horietako adibide gisa Kattalingune eta Harrotu dira. Gradu Bukaerako Lana aurrera eramateko, eta Nafarroako transexualitate kasuetarako protokoloaren azterlanaz hitz egiteko hauen laguntza eta aholkularitza proposatuko da, baita ere gaien hobeki sakontzeko baliabide gisa.

- **Nola ebaluatuko da baliabide didaktikoa?**

Orena modu kualitatiboan eta jarraituan ikaslea ebaluatzea izango da. Hala ere, irakaslearen arabera hau aldatzeko arriskua dago, askotan azterketara jotzen baita. Kontuan hartu behar da baliabide didaktikoa modu logiko eta ikasleentzat ezagunak diren testuinguruekin landuz gero, hauen ikaskuntza esanguratsua eta eraginkorra izango dela. Beraz, proiektuak ezagutzak eraikitzen badira, ikaslearen garapena ebaluatzeko premia egonen da.

- **Proiektuaren oinarria identitate sexuala izango da, baina nola landu kontzeptu hau?**

Maslow piramideak dituen bost mailak landuko dira. Horrela, pertsona orok dituen oinarrizko 5 beharrak landuz, modu zeharka eta esanguratsu batean identitate sexuala

bezalako kontzeptua landuko da. Kontzeptu honetara ailegatzean, Queer teoria zer den lantzea interesgarria izango litzateke, Queer teoriak edozein klasifikazio sexuala deuseztatzen baitu, gay, lesbiana, transexual, trabesti eta hetero kontzeptuak alde batera utziz (Herrera, 2016). Hortaz, pentsamendu kritikoa garatzeko ezinbesteko gaia da, arazoaren garrantziaz jabetzeko, norberaren iritzia sortzeko, galderak egiteko, iturrien garrantzia baloratzeko, besteen iritzia eztabaidatzeko eta ondorio batera ailegatzeko.


1.2. Helburuak

Gratu Bukaerako Lana egiten den heinean bertaratutako galderak erantzungo dira. Honen helburu orokorra, transexualitatearen protokolo indarguneak eta ahuleziak identifikatzea da, honen aurrean bai ikasleei bai irakasleei (zein familiei) zuzendutako baliabide didaktikoa sortzeko, protokoloaren osagarria izango dena; hau da, ikasleekin gelan gai hauek lantzeko baliabide didaktikoa, eta irakasleei zuzendutako informazio-tresna sortzea, hauek trans* errealitate bat izan baino lehen hezkuntza sexualaren inguruko oinarrizko kontzeptuak ezagutu eta hauek familiei helarazten gai izateko.

Helburu espezifikoak dagokionez, sexualitatea hezkuntza sisteman integratzeko baliabide didaktikoaren bidez aniztasun sexualean eta berdintasunean oinarritzea da, harreman sozio-afektibo-sexualak eta elkarrekin bizitzen jakiteko. Horretarako, ikasleen ikaskuntza esanguratsua, garapen integrala eta pentsamendu kritikoa landu behar dira, era berean hezkidetzak lortzeko asmoz; hots, tratu eta orientabide intelektual, moral eta profesionalean genero-diskriminazio negatiboak saihestuz hezteak (Zuberoa, L. Gizartea, familia eta eskola). Horrela, ikaslearen identitatea eraikiko da, ikasleen arteko harremanetan ahalmen afektiboak landuko dira, eta indarkeria prebenitu edo identifikatuko da, ondoren esku-hartzeko. Estereotipo sexisten aurkako jarrera landuko dira, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatuko da etab.

Berdintasuna ez da soilik ikasleen artean bermatu nahi eskola eremu osoan baizik (familia, irakasleak eta eskolan parte hartzen duten bestelako indibiduoak: pedagogoak, psikologoak...), honek indarra lortuz gero, gizarteratze egokia bermatuko

da, etorkizunean berdintasunean bizi den edo behintzat kontzienteagoa den gizarte kritikoa lortuz.



1. Irudia. Gradu Bukaerako Lanaren laburpena

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

2. MARKO TEORIKOA

Aniztasun sexuala XIX. eta XX. mendeko klasifikazio, arau eta identitate kontzeptuen haustura da (Halberstam, 2018). Aniztasun sexualaren kontzeptua hobeki ulertzeko, “intersexualitatearen” kontzeptua ikuspegi sexologikotik ulertzea beharrezkoa da. Intersexualitatearen teoriak, Magnus Hirschfelden eskutik, norbanako sexuatu guztiek bai maskulinoan bai femeninoan sexuatzeko direla dio; hau da, guztiek neurri handiago edo txikiago batean ezaugarri maskulinoak zein femeninoak dituztela. Horrela ba, konbinazio honek norbanakoen artean desberdinak baina era berean antzekoak egiten ditu, guztiak aniztasun sexualaren parte baitira (Mayor, 2018).

Sexualitatearen kontzeptua argituz gero, honek duen egoera eta honen barne dauden kontzeptuak ulertzen lagunduko du.

Euskaltzaindiaren arabera (s.f.), sexualitatea “sexu senari dagozkion jokabideen multzoa” da. Real Academia Españolak, aldiz, sexualitatea honela definitzen du: (1) “conjunto de condiciones anatómicas y fisiológicas que caracterizan a cada sexo”, (2) “apetito sexual, propensión al placer carnal”.

Hala ere, bi definizio hauek sexualitatea era orokor batean definitzen dute. Beraz, hobeki ulertzeko, “Nueva educación de las sexualidades” liburuan De la Cruz M-Romok idatzita (2010) agertzen den definizioa bertaratuko dut:

La sexualidad es la manera que cada persona tiene de vivir “el hecho de ser sexuado”. Es una categoría subjetiva y no hace referencia, exclusivamente a funcionamiento anatomofisiológicos. Su referencia más son “las vivencias”, cómo cada cual se siente, se vive en su intimidad. (15.orr)

Hori dela eta, sexualitateak bere baitan hartzen dituen kontzeptuen azalpenak bertaratuko dira, ondoren transexualitatea bezalako terminoak hobeki uler daitezten.

2.1. Sexua vs Generoa

Gayle Rubin hitzetan sexu / generoa sistema izendatzeko erreproduktzioa / patriarkatua izendapenak ere erabili dira. Bi aukerek sistema ekonomiko eta sistema sexualari erreferentzia egiten diete. Horrela, sistema ekonomikoa produktioarekin eta

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

sistema sexuala erreproduzioarekin erlazionatzen ditu. Horiek horrela, antropologo honek lehenengo aldiz sexua / genero sistema definitu zuen: erlazio sozialetan oinarritzen den sistema da, non emakume eta gizonek botere desberdinak izango dituzte, historikoki esleitutako funtzioen arabera (Rubin, 1986).

Teresa Aguilarren hitzetan (s.f.) Rubinek aurreko sistema indartzen duen beste izendapen bat bertaratzen du: natura / kultura. Hortaz, sexua ezaugarri anatomofisiologikoekin (hormona, geneak, genitalak...) eta generoa ezaugarri psikosoziokulturalekin (janzkera, rolak...) erlazionatzen ditu.

Azken ideiarekin jarraiki, *¿Qué es ser mujer?* Beauvoir-en liburuan (2005), Natura gunetik Kultura gunera pasatzeko pausua gizonek erlazio biologikoak oposizio-sistemak eraikitzeke tresnatzat erabiltzean gertatzen dela baieztatzen du, aipatu den bezala sexu biologikoaren arabera genero adierazpen bat esleituz (maskulino edo femenino). Generazioz generazio hau bermatzeko, ume hauen zuzentasuna zaintzen duen instituzio bat (Familia, Tribua, Eliza edo Estatua) egon da (Landarroitajauregi, 2018, 2. or.).

Egungo egoerari dagokionez, sexua eta generoaren arteko erlazio estua gero eta anitzagoa edo zabalagoa dela esan daiteke. MOEk (2018), Munduko Osasun Erakundeak (Organización Mundial de la Salud, gazteleraz), generoak kategorizazio biologikoarekin erlazioa eduki arren, hauek biak ez direla zertan bat etorri behar argitzen du. Hortaz, "emakume" jaiotzen den norbaitek "gizonei" esleitutako rolak, janzkera, lanbidea... izan ditzake, ez baita esleitutako rol sexualarekin identifikatzen (edo alderantziz).

Bestalde, ikuspegi sexologikotik –Amaia Barrena Arana, Kattalinguneko sexologoa- ez dago genero eta sexuaren arteko ezberdintasunik. Sexua hitza agertzen denean emakume eta gizonei egiten die erreferentzia, baina pertsona bakoitzak gizon edota emakume izateko duen modu partikularrari. Maskulino eta femeninoa ez dira monetaren bi aldeak; monetaren aurpegi bakoitzean biak daude, are gehiago, pertsona bakoitzaren arabera maskulinoak eta femeninoak graduazio ezberdinetan ematen dira.

Honekin guztiarekin, argi geratu behar da sexuaren paradigma berri honetan desberdintasun, dibertsitate, intersexualitate eta berezitasun kontzeptuak kontuan

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

hartu behar direla. Eta beraz, sexua ez da ondorengo izatearen agente produzitzailea, baizik eta desberdintasunen produzitzailea (Landarroitijauregi, 2018, 7.or.).

Horiek horrela, gizarteak eraikitako klasifikazio sexualean alderdi intrintsekoa eta estrintsekoa sailkatu daitezke, hauek biek pertsona baten kondizio sexuala osatzen dute; bigarrenak kanpotik gizarteak banako bakoitzari esleitutako kategoria sexuala (emakume edo gizon) da, eta intrinsekoak, aldiz, norberak bere buruari egiten dion sexu esleipena. Adibidez, *Ni emakumetzat hartzen dut nire burua, baina munduak (gurasoak, lagunak, telebistako irudiak, liburuak... kanpoko faktoreek) kontrakoa esaten dit, nik emakume naizela momentu batean argi izan banuen ere. Hori dela eta, barne kategorizazioa Identitate sexualaren parte bat da, baina ez bakarria, hori bai, garrantzitsuena, izan ere, horretan arreta ipintzen badugu eta ez izan behar lukeen horretan, kanpo kategorizazioak indarra guztiz galduko luke* (Barrena, 2019).

2.2. Autosexazioa¹ kontzeptua eta identitate sexuala

Joserra Landarroitijauregiren hitzak kontuan hartuta (2018), kondizio sexualak bi kategoria hartzen ditu bere baitan, aurreko puntuan azaldutakoa, hain zuzen ere. Kanpoko klasifikazio sexuala (estrintsekoa) eta norbanako bakoitzak eraikitako barne klasifikazio sexuala (intrintsekoa).

Barne klasifikazio sexualean autosexazioa pertsona bakoitzak bere burua “emakume” edo “gizon” izatearen uste sendoa da. Kategoria kognitibo eta psikiko hau normalean era goiztiarrean aurkezten da, norbanakoak kategoria sexual batean bere burua kokatzen duelarik. Aldiz, identitate sexuala, autosexazio gertaera batetik abiatuta bitzta osoan zehar eraikitzen joaten den auto kategorizazioa da (Landarroitijauregi, 2018).

Nahiz eta identitate sexuala osatzen dituzten kausak, prozesuak edota momentuak zeintzuk diren ez jakin, argi dago genitalek eta hezkuntzak ez dutela hau definitzen. Izan ere, David Reimer, transexual “transexualizatuaren” kasua honako hau argitzen du. John Money psikologoaren ustetan kondizio sexuala hezkuntzaren menpe zegoen; hortaz, Reimerrekin, mediku arazo batengatik zakila gabe jaiotako umea, esperimentu

¹ Autosexazioa, gazteleraz “autosexación” deituta, pertsonak beraien burua sexu batean edo bestean sailkatzeko erabiltzen den terminoa da (Herrero eta Diaz, 2010).

bat egin zuen, umeari nesken rola eta jantziak jarriz eta bulba bat eraikiz. Reimer-ek (Brenda deituta nerabezarora arte) nerabezaroan, bere iragana zein zen jakinda, urteetan zehar bere kategoria sexualarekin apurtzeko joeraren kausa zein zen ulertu zuen: jaiotzean esleitutako sexua bere identitate sexualarekin ez zela bat etortzen ulertu zuen (Duguech, 2017).

Beraz, honekin guztiarekin, sexua (izatea) hitzak hiru kontzeptu hartzen ditu bere baitan: *sexu psikologikoa* edo hobeto esanda pertsona bakoitzak egiten duen klasifikazioa, identitate sexualari erreferentzia egiten diona; hau da, norbanakoak sentitzen den kategoria sexualari erreferentzia egiten dio (emakume, gizon, pertsona ez binarioa). *Esleitutako sexua*, jaiotzean ume bakoitzari izendatutako sexua, normalean genitalen arabera “emakume” edo “gizon” deituak. Eta *rol sexuala*, kanpokoei gure burua aurkezten diogun modua (Velasco, 2017).

2.3. Orientazio sexuala

Behin identitate sexuala, esleitutako sexua eta rol sexuala kontzeptuak definitu direla, orientazio sexuala zer den jakin behar da, orientazio sexuala eta identitate sexuala kontzeptu desberdinak eta autonomoak izanik.

Erotismoa eta afektibitate-loturek elkarri eragiten dietenean, orientazio sexual anitzak desberdindu daitezke (Alvarado, 2013): heterosexualitatea, homosexualitatea edo bisexualitatea. Honi jarraiki, Chrysalisen (s.f.) hitzetan orientazio sexuala *pertsona baten preferentzia afektiboa edo sexuala identitate sexual berdina edo desberdina duen pertsonarekiko da. Horiek horrela, pertsona heterosexualak (preferentzia berarekiko identitate sexual desberdina duten pertsoneri), homosexualak (preferentzia berarekiko identitate sexual berdina duten pertsoneri), bisexualak (preferentzia berarekiko identitate sexual berdina edo desberdina duten pertsoneri), asexualak, pansexualak... desberdindu daitezke.*

Platonek preferentzia berarekiko identitate sexual berdina duten pertsonetikiko maitasuna edo desioa existitzen zela argi utzi zuen (Velasco, 2017). Baina egia da, homosexualitatearen kontzeptuak bai emakumeak bai gizonak bere baitan hartu arren, askotan homosexualitatearen kontzeptua gizonekin erlazionatzen dela (De la Cruz M-

Romo, 2010). Hori dela eta, orientazio sexuala eta homosexualitatearen kontzeptuak azaltzerako orduan garrantzi handikoa da esandakoa argi eta garbi uztea.

2.4. Transexualitatea

Real Academia Española hiztegia (s.f.) hartuz gero, transexualitatea transexualizatearen kondizio edo nolakotasuna dela dio, eta transexual pertsona honela definitzen du: (1) “perteneiente o relativo al cambio de sexo”, (2) “dicho de una persona: Que se siente del sexo contrario, y adopta sus atuendos y comportamientos”, (3) “dicho de una persona: Que mediante tratamiento hormonal e intervención quirúrgica adquiere los caracteres sexuales del sexo opuesto”. Euskaltzaindiak (s.f.) ez du transexual definizioa bere hiztegian bertaratzen; soilik transexualitate kontzeptua atxikitzen du: “transexuala denaren nolakotasuna”.

Hala ere, Real Academia Españolak egiten dituen hiru definizioetan hainbat argitzapen gaineratu behar dira. Lehenik “cambio de sexo” (sexu-aldaketa) edota hirugarren definizioan “adquiere los caracteres sexuales del sexo opuesto” (kontrako sexuaren ezaugarri sexualak eskuratzea) aipatzen duenean, genitalen aldaketa egiteko erabiltzen ohi den espresioa da, nahiz eta genitalen morfologia aldatzeak emakume edo gizonizatearen kondizioa ez duen aldatzen; ez daude “gizonen genitalak” eta “emakumeen genitalak” (Mayor, 2018, 9.or.). Beraz, ikus daitekeen bezala behin eta berriz sexu eta genitalen arteko nahasketa sortzen da. Bigarren definizioan “sexo contrario” (kontrako sexua) aipatzen du, alde batetik dualismo batean eroriz (identitate ez binarioa alde batera utziz), eta bestetik, “adopta sus atuendos y comportamientos” aipatzen du (janzkera eta jarrerak eskuratzen ditu), rol sexualari erreferentzia egiten diona. Azken puntu hau askotan transexualitate kasuetan ikusten den aldartea izan arren, ez du transexual pertsona bat definitzen; hau da, transexual izateko ez du beste rol sexual bat eskuratu behar, egia da askotan rol sexual hau indartzen dutela, beraien identitate sexuala aldarrikatzeko modu bat izan daitekeelako (Mayor, 2018).

Honekin guztiarekin, esan daiteke ez direla transexual pertsonak “sexu aldaketa” (genitalei erreferentzia egiteko) egiten dutelako, baizik eta jaiotzean esleitutako kategoria sexuala aldatzen dutelako (Landarroitajauregi, 2018, 27. or).

2.4.1. Historian zehar

Transexualitatea ez da gaur egungo egoera islatua; urteetan zehar, historian zehar kultura eta leku desberdinetan transexual pertsonak egon dira.

Greziar klasikoan Ovidoren *Metamorfosis* liburuan gorputz eta genero aldaketa guztiak posibleak ziren, eta hauek ideia kosmogonikoak irudikatzen zuten, baina baita ere aldaketa eta transformazioa (Gastó, 2006).

Erroma garaian Heliogábalo, Erromako enperadorea 218tik 222ra arte, emakume izan nahi zuela baieztatzen dute hainbat liburuk. Gainera, erritualak egiten ohi zituzten, eta emakumeak gizon eta gizonak emakume bihurtzen ziren. Hau irudikatzeko genitalak era sinbolikoan aldatzen zituzten (Recio, 2014).

Aro garaikidean, XVIII. mendean, lehenengo lesbiana eta transexual izan zen Charlotte Clark aipatzekoa da. “Una narrativa de la vida de la señora Charlotte Clark” liburu autobiografikoa aurkeztu zuen, aro horretan trabestismoa denbora-pasatzat kontsideratzen zela azalduz, eta hainbat pasarte eskandalagarri bertaratuz (Velasco, 2018).

Alan L. Hart 1890an jaio zen, esleitutako sexua emakumea izan arren, betidanik gizon identifikatu zuen bere burua. 1918an histerektomia bere gorputzean praktikatu zuen eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren, gizona izateko hormona sintetikoak eskuragarri egon zirenean, mediku honek hormona hauek hartzen hasi zituen aurpegiko ilea hazteko eta ahots sakonago lortzeko (Young, 2018).

XX. mendean Sylvia Riverak STAR (Street Transvestite Action Revolutionaries) sortu zuen, garaian zeuden talde homosexualek gazte transgeneroak kontuan ez hartzean, hauek laguntzeko asmoz. Estatu Batuetako emakume transexualen lehenengo erakundea izan zen, emakume beltzak buru zirelarik, eta urteak pasa ziren heinean erakunde hau Estatu Batuetako hainbat lurraldeetara zabaldu zen (Global Network of Sex Work Projects, s.f.).

Aipatutako kasuak (eta beste hainbat) existitu arren, aurreko mendera arte Trans* gorputzek errepresio handia izan dute gorputz irrealak eta faltsuak kontsideratuz (Halberstam, 2018, 56. or). Gainera, aipatzekoa da LGBTBIren laguntza eta lankidetzat izan arren, gay eta lesbianen eskubideak eta aitortpenak lortzen ziren heinean kolektibo

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

honen klasifikazioa trastorno eta disfuntziotzat kontsideratzen jarraitu da urteetan zehar; gaur egun DSMk (Nahaste mentalen eskuliburu diagnostikoa eta estatistikoa) “genero-identitatearen nahastea” listatik atera arren, orain “genero disfonia” edo “generoaren inkongruentzia” definizioa bertaratu du, norberaren gorputzasunaren generoarekiko ondoeza, eta tratamendua egiteko beharra izan dezakeena (Halberstam, 2018).

Gaur egun transexual pertsonak egunerokoan (telesailetan esaterako) ikusgai dauden arren, oraindik ere transexual eta beltza, transexual eta prostituta, transexual eta pobrea etab. baztertuak geratu dira; hau da, aurrerapauso asko egin arren, transexual txuria, eta batez ere gizonezkoa gure egunerokoaren parte dira (Halberstam, 2018).

Duela aro batzuk transexual pertsona soilik pertsona adinduekin lotzen zen, gaur egun haur transexualak nabariak dira. Neska-mutilak kezken eta esperantzaren sinboloak dira, beraz, zentzu honetan haurtzaro transexualak gizartean normalizatzean, etorkizuneko transexual adinduen oinarria izango da, honek dakarren arau kulturalak eta sozialak zalantzan jarriz (Halberstam, 2018).

2.5. Transexualitatea vs intersexualitatea

Transexualitate eta intersexualitatea kontzeptu desberdinak izan arren, askotan desberdintzen ez diren horiek dira. Transexual pertsonak ez dira definitzen “sexu aldaketa” (genitalei erreferentzia egiteko) egiten dutelako, baizik eta jaiotzean esleitutako kategoria sexuala aldatzen dutelako (Landarroitajauregi, 2018, 27. or.). Hau da, jaiotzean esleitutako sexua ez da beraien identitate sexualarekin bat etortzen, beraz, esleitutako sexua “emakumea” (edo aldrebes) izan arren, beraien identitate sexuala (“nor naiz ni”) gizona (edo aldrebes) da, eta beraz, gizonak (edo aldrebes) dira.

Bestetik, intersexualitatea pertsona LGTBI sigletan oinarrituz, gizarteak ezarritako “emakume” edo “gizon” genital normatiboak ez dituzten pertsonak dira, iraganean hemafrodita gisa ulertzen zena. Hauek emakumeei egozten zaien (edo aldrebes) nolakotasun fisikoak dituzte, eta kodigo genetikoak, aldiz, gizonezkoenak (edo aldrebes). Egina ematen da gizonak XY eta emakumeak XX direla, ondorioz, askotan bi genitalak dituzten pertsonekin lotu izan dira (Máscolo. 2017).

Intersexualitatea ikuspegi sexologikotik eta Magnus Hirschelden eskutik, norbanako sexuatu guztiek bai maskulinoan bai femeninoan sexuatzeko direla dio (gogoratu, ikuspegi sexologikotik ez dagoela genero eta sexuaren arteko desberdintasunik); hau da, guztiek neurri handiago edo txikiago batean ezaugarri maskulinoak zein femeninoak dituztela. Horrela ba, konbinazio honek norbanakoen artean desberdinak baina era berean antzekoak egiten ditu, guztiak aniztasun sexualaren parte baitira (Mayor, 2018).

2.6. Queer teoria

Aro garaikide honetan oso famatua egin den teoria dago: Queer teoria. Estatu Batuetan sortutako Queer teoriak androzentrismoa, homofobia, arrazismoa eta zientziaren klasizismoari uko eginez, identitate edo sexualitate periferikoak –gizarteak onartutako muga tradizionalak zeharkatzen dituzten sexualitateak- indartzera eman ditu. (Fonseca eta Quintero, 2009).

Alderdi etimologikoan queer “arraro” edo “bitxia” esan nahi du. Hala ere, 80ko hamarkadatik aurrera esanahi negatiboari buelta ematen saiatu izan da aldarrikapen moduan (Fonseca eta Quintero, 2009). Martínezek (2018) Queer teoria kultura berri bat dela dio, eta Reinaldosekin bat etorritik (2018), Queer teoriak gizarteak duen beharra asetzen duela aipatzen du: dibertsitateari ahotsa ematen dio.

Queer izatea ez da soilik zerbait estetikoa, baizik eta politikoa: dibertsitatea goraiatu eta “normaltasuna” ezeztatzen du. Gizartean errefusatutako edonor izan daiteke queer: emakume transexualak, gizon transexualak, intersexualak, bisexualak, prostitutak, trabestiak, gutxiengo etnikoa edo erlijiosoa... (Herrera, 2016). Gracia Trujillok (2013) baieztatzen du queer izatea ez dagoela orientazio sexualaren menpe, baizik eta norberaren itxura, mugitzeko erak, zaletasunak... “normaltasunetik” ateratzean baizik.

Honekin erlazionatuta, Trans* kontzeptuak izartxoak erabiltzen du askotariko gorputzen aukera irekia uzteko; identitate ez “cisgénero” (eslelitutako sexua identitate sexualarekin bat etortzen denean) guztiak bere barne hartzeko (Halberstam, 2018).

2.7. Marko legala

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

2.7.1. Estatuan

Konstituzioko 10., 14., 15. eta 18. artikuluetan legearen aurrean pertsona guztiak berdinak eta hauek dituzten aniztasunak onartzen direla baieztatzen du. Horretarako, 10. eta 14. artikuluetan pertsonaren duintasuna, errespetua, askatasuna aitortzen da, guztiok legearen aurrean berdinak izanik, jaioterria, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edota bestelako egoera pertsonal eta soziala izanda. 15 eta 18 artikuluetan bizitzarako eskubidea eta intimitatearekiko eskubideak aldarrikatzen dira, baita ere bizilekua ezin bortxatuzkoa dela baieztatzen da (Española, C. 1978).

Martxoaren 15eko Legearen 3/2007 *Reguladora de la Rectificación Registral de la Mención Relativa al Sexo de las Personas* erreformaren proposamenak pertsonen sexua erregistroan errektifikazioa egitea onartzen du. Horretarako, 4. artikuluan eskatzen den bezala, pertsona horrek “genero disfonia” diagnostikatuta izan behar du. Genitalen morfologia aldaketa- kirurgikoa ez da nahitaezkoa izango, baina bai gutxienez bi urtez bere identitate sexualarekin bat etortzen diren ezaugarri fisikoak eskuratzeko tratamendu medikoa hartzea (salbuespenak salbu).

Hala ere, aipatutako proposamen honetan laugarren artikulua moldaketa egin zen, aurreko bi eskakizunak ezeztatuz. Beraz, erregistroan sexua errektifikatzeko eskakizun bakarra, interesatua dagoen pertsonak erregistroan bere borondatezko aitortpena idatzian uztea izango litzateke. Honekin batera, ez da inolako tratamendu medikorik eskatzen edo exijitzen. 1.artikuluan azaltzen den bezala, hau legitimatzeko hainbat baldintza bete beharko dira: Espainiako nazionalitatea edo nazionalitate legal bat izatea, 16 urte baino gehiago izatea beraiek bakarrik eskakizuna egiteko, 16 urte baino gutxiago edo ezgaitasunen bat izanez gero, beraien ordezeko legalen bitartez eskakizuna egin beharko dute. Ordezko legalak ez badaude eskakizuna egitearen alde, adingabeko gazteak Ministerio Fiskalaren bitartez egin dezake. Sexua errektifikatzean, izen-aldaketa egin beharko da (baldin eta izena erregistratua duen sexuarekin ez bada bat etortzen). Nolanahi ere, oraindik ere gainditu gabeko proposamena da.

2017an egindako diskriminazioaren aurkako legearen proposamenaren bidez, *Proposición de Ley contra la discriminación por orientación sexual, identidad o expresión de género y características sexuales, y de igualdad social de lesbianas, gais,*

bisexuales, transexuales, transgénero e intersexuales, orientazio sexuala, identitatea edo genero-adierazpena eta ezaugarri sexualak edozein izanda lesbiana, gay, bisexuala, transexuala, transgenero eta intersexualen berdintasun soziala bermatu nahi da.

2.7.2. Nafarroan

8/2017 FORU LEGEA, ekainaren 18koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 2. artikuluan dioenez, helburua da *baldintzak ezartzea LGTBI+ pertsonen eta horiek osatzen dituzten taldeen eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen; haiei bizitza sozialaren eta instituzionalaren arlo guztietako parte-hartzea eta ordezkaritza erraztea; pertsona horiei buruzko pertzepzio sozial eta instituzionalean eragin negatiboa duten estereotipoak gainditzeko laguntzea; eta neurri zehatzak ezartzea gizarte bidezkoago bat, librea, lortzeko, oinarritua LGTBI+ pertsonentzako tratu- eta aukera-berdintasunean eta aniztasuna balio erantsi gisa onartzean.*

2015ean Nafarroako Gobernuak Hezkuntzan Transexualitate kasuetarako protokoloa argitaratu zuen. Hezkuntzako protokolo bat transexualitate-kasuetarako ezarri zen, hezkuntza esparruan transexualitate-egoeran dauden adingabeen kasuetan esku hartzen duten agenteei laguntzeko.

2.8. AMIA

AMIA (Aukera, Mehatxu, Indargune eta Ahulezia) edo gazteleraz, DAFO/ DOFA tresna, planifikazio estrategikoa da, proiektu baten hobekuntzak eta zuzenketak eraginkorrak izateko. (*Diaz eta Matamoros, 2011*).

Tresna hau Nafarroan transexualitate-kasuetarako dagoen Hezkuntzako protokoloa aztertzeko erabili dut, azterketaren errebisioa bai Gradu Bukaerako Laneko tutorea den Fernando Trebolek bai Kattalinguneko sexologoa den Amaia Barrena Aranak egin dutelarik.

2.9. Gida

Real Academia Españolak (s.f.), gidaren kontzeptua honela definitzen du: (1) “Tratado en que se dan preceptos para encaminar o dirigir en cosas, ya espirituales o abstractas,

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

ya puramente mecánicas”; (2) “Lista impresa de datos o noticias referentes a determinada materia”.

Beraz, Gradu Bukaerako Lanean egingo den proposamenetako bat irakasle zein familiei Identitate aniztasun sexuala oinarritzat hartzen duen hezkuntza-gida da, hainbat erreferentzia eta informazioa bertaratuz. Gida honen lehenengo atala informazioa helarazten duen gida izango da; bigarrena, aldiz, baliabide didaktiko gisa aurkezten da, hainbat proposamen didaktiko azalduz.

2.10. Hezkuntza sexuala lantzeko aspektu pedagogikoak

Hezkuntza sexuala sexualitate guztien hezkuntza da, eboluzio momentu guztietan dagoena, eta ezagutzen laguntzea, onartzea eta erotika era pozgarri batean espresatzea bilatzen du (De la Cruz M-Romo, 2010).

XXI. mendeko hezkuntzan aurkezten diren erronkak oso desberdinak dira, batez ere hezkuntza sexuala gorputzaren zainketa eta gozamenerako baliabide bezala apustu egiten bada non mito eta aurreiritziak lantzen diren eta hezkuntza sexuala eta sexualitateak jorratzen diren (Korol, 2007).

“Asegurar la construcción de aprendizajes significativos” Nueva Educación de las sexualidades (De la Cruz M-Romo, 2010) liburuko atalean azaltzen duen bezala, ikaskuntza esanguratsu bat lortzeko, oso garrantzitsua da ikasleak zer dakien eta zer jakin nahi duen ezagutzea. Honekin batera, gaitasunak kontuan hartu beharko dira, izan ere, ez da berdina gaia ezagutzen duen talde batean lanketa egitea edo lehenengo aldiz gaia entzuten duen gelan jorratzea.

Hezkuntza sexuala gelan lantzeko kontuan hartu behar den beste alderdi bat, ikaskuntza esanguratsua bultzatzea da, eta horretarako taldeko motibazioa eta interesa lortu behar dira (De la Cruz M-Romo, 2010). Hezkuntza sexuala, eta kasu honetan identitate-aniztasun sexuala gelan bertan jorratzeak bakoitza bere burua ezagutu eta gainerakoak ezagutzeko aukera emango du.

Era berean, hezkuntza sexualaren bidez taldeko estrategiak eta ikaskuntza kooperatiboak sustatzeko baliabidea da, non bateratze-lana eta talde lanak ohiko praktikak izango diren (De la Cruz M-Romo, 2010). Horrela, ohiko jarduera eta talde

jardueretan autonomiaz jokatzek, inizatibak hartzeko eta erlazio afektiboetarako aukerak garatzeko balio izango du (Oihartzabal, 2002).

2.11. Garapen ebolutiboa 6 urtetatik pubertarora arte

6 urtetatik gora umeen egoera oso desberdina da: intelektualki asko garatu dira, eta maila sozialean jelskortasun- gatazkak garatu eta arauak barneratuak dituzte. Era berean berdinen arteko erlazioak estuagoak dira (De la Cruz M-Romo, 2010).

Garapen psikosexualean Freudek honako hau baieztatzen du: latentzia aldi (6-12 urte artean) umeek desio sexualak baretu eta onartuagoak diren jarrerak hautatuko dituzte, horrela, haurren sexualitatearen jaitsiera gertatzen da eta errepresioa handitzen da. Samurtasuna nagusitzen da desio sexualen gainetik. (López eta Russo, 2006). Honetan pentsamendu sozial, logiko eta morala garatzen dira. Garapen psikosexuala honela definitzen du: aldien segida gisa deskribatzen da, non prozesu inkontzienteen eta, batez ere, emozionalen ondorio diren portaerak agertzen baitira (Sotes, 2016).

Sexologiako institutu unibertsitarioak Freuderekin bat etorritik, garapen etapa honetan sozializazio eragileek indar handia dutela baieztatzen du. Hortaz, imitazioak eginkizun garrantzitsua betetzen du: ikaskuntzak lortzeko erreferenteen ereduak oso garrantzitsuak dira, imitazioz eta behaketen bitartez ikasten dutelako, baita ere arlo sexualean. (De la Cruz M-Romo, 2010).

Identitate sexualari dagokionez, adin hauetan iraunkortasuna eta genero-malgutasunerako gaitasuna dute, garapen intelektuala garatu baita. Beraz, Carlos de la Cruz M-Romok (2010) baieztatzen duen moduan, garrantzi handikoa da ikasleei ahalik eta zehaztasun handiagoarekin hitz egitea. Esaterako, “todos los hombres” esan beharrean “muchos hombres”. Horrela, diskurtsoan zehatzagoak izateaz gain, eraikitzen ari diren identitateak eragozpen gutxiagoarekin garatzen lagunduko litzaieke. Izan ere, hau eginez, aukera desberdinei existentzia emango litzaieke.

2.12. Abraham Maslow. Beharren piramidea

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

Beharra Euskaltzaindiaren hitzetan (s.f.), *nahitaezko den gauza; beharrezko gertatzea* da. Maslow-ek giza beharren inguruko proposamena egin zuen, non pertsonek dituzten beharrak garrantziaren arabera hierarkizatuta dauden. Hauek ase egiten direnean, indibiduoak hurrengo gorako maila edo errenkadara joaten dira. Hala ere, indibiduo askok maila batean geratzen dira, behar hori asebete eta beste batzuekiko sentsibilitaterik erakutsi gabe (Vázquez eta Valbuena, s.f.).

Piramidearen errenkada batera pasatzea ez da itzulezina: bizitzan gertatzen diren egoeren arabera pertsona batek ase zuen behar bat ase gabe uztea gerta liteke. Gainera, beharrak gainezarri eta beraien arteko erlazio interdependentzia erakusten dute (Vázquez eta Valbuena, s.f.).

Maslow-ek hurrengo beharrak aztertu zituen:

- *Behar fisiologikoak.* Hauek oxigenoa, ura, proteinak, azukrea, ozpina, kaltzioa eta beste mineral eta bitaminak hartzen dute bere baitan. Honetan ere oreka mantentzeko beharra, tenperatura orekatua izateko beharra etab. egongo lirateke (Boeree, s.f.).
- *Segurtasunaren beharra.* Behar fisiologikoak konpentsatuak mantentzen direnean behar hauek azaleratzen dira (Boeree, s.f.). Honen adibidea etxebizitza edo enplegua izan daiteke. (Vázquez eta Valbuena, s.f.).
- *Afilizarioaren beharra: maitasuna eta pertenezaren beharra.* Behar fisiologikoak eta segurtasunezkoak ase daudenean, hirugarren hauek azaleratzen dira. Adiskidetasun-beharra, bikotearen beharra, seme-alabak izatearen beharra, eta orokorrean erlazio sozio-afektiboak. Alde negatiboan, bakardadean erortzeko minbera eta antsietate sozialak sor daitezke (Boeree, s.f.).
- *Onarpenaren beharra / estimuaren beharra.* Gainerako beharrak asebete daudenean, gainerakoak gure esfortzua aitortzeko beharra dago. (Vázquez eta Valbuena, s.f.). Maslow-ek bi behar sailkatu zituen talde honen barnean: bat baxua eta bestea altua. Baxuak besteen errespetuari, status beharra, fama, atentzioa, duintasunari erreferentzia egiten dio. Altuak norbanakoak bere burua errespetatzeko beharrari, konfiantza, kompetentzia, lorpenak, maisutza,

independentzia eta askatasuna bezalako sentimenduak hartzen ditu bere baitan (Boeree, s.f.).

- *Auto-erregulazioa*: azkeneko errenkada da. Norbanakoaren potentzian oinarritzen da, gainerako beharrak hein handi batean ase egon behar direlarik (Boeree, s.f.). Irabazi ekonomikoak eta prestigio sozialak ez die estimulatzen. Baina dirua eta prestigioaren bidez kontsideratzen duten goi helburu hori lortu dezakete (Vázquez eta Valbuena, s.f.).

2.13. Esku-hartzeko ikuskerak: humanismoa eta sozio-kritikoa

2.13.1. Perspektiva humanista

El humanismo es una filosofía que pone a la persona y a los valores sociales por encima de lo demás, con el fin de conseguir el bienestar humano (Stramiello, s.f.). Los fundadores fueron Carl Rogers y Abraham Maslow (Trebol, 2018). Es una pedagogía que ayuda a que la persona sea íntegra y feliz (Trebol, 2018). Es un modelo curricular activo, en el que su base es el constructivismo: se basa en el descubrimiento, y promueve la participación activa del alumnado. Los valores que transmite son autonomía, felicidad e imaginación (Sainz, 2018).

A modo de resumen la perspectiva humanista tiene las siguientes características (Trebol, 2018):

- Tiene una perspectiva subjetiva del mundo y de la realidad. Como profesor / profesora se debe comenzar por lo que nos cuenta el alumnado, y a partir de ahí continuar.
- “Tú puedes” se debe decir; cada individuo se lo tiene que creer, de un modo positivo. Todo individuo tiene la capacidad para auto corregirse y obtener logros.
- Está en sus manos. Es una persona independiente.
- Como profesorado solo se debe dirigir al alumnado
- Debe impulsar el desarrollo, haciendo frente a los obstáculos.
- Es una formación continua e integral.

-
- Interacción entre la experiencia y el auto concepto. Cada uno tiene que tener la capacidad de animarse y motivarse.
 - Se deben crear mecanismos para el cambio.

El papel del alumnado es individual: la persona a la que hay que educar y la que es centro del sistema educativo. La escuela existe para él / ella y ahí aprende a hacer. En cambio, el papel del profesorado va a ser aquel que tendrá una gran capacidad para impulsar las situaciones dinámicas (guiará y ayudará al alumnado), con el objetivo de obtener un desarrollo integral en el alumno/a (Sainz, 2018).

En cuanto a la evaluación, se predomina el “hacer y hacer bien”, ya que es la vía para tener una satisfacción personal (Sainz, 2018). Además, los objetivos de la escuela y educación en dicha perspectiva es la siguiente: una escuela que promueva un mundo en el cual se logre un buen comportamiento humano y estimulante (Stramiello, s.f.).

2.13.2. Perspectiva socio-crítica

La perspectiva socio-crítica reúne la perspectiva de comunidad, en la cual se impulsa una creación colectiva con el objetivo de transformar las relaciones sociales mediante la ejecución de problemas (Unzueta, 2011).

Es pues, que la perspectiva como escuela es ser un espacio para las relaciones sociales y para la construcción de conocimientos, teniendo una perspectiva crítica y transformadora (Sainz, 2018). Así pues, su objetivo es educar a personas que tengan capacidad para participar en la sociedad (Sainz, 2018).

El alumno / alumna desempeña un papel de persona social, y tiene un aprendizaje mediante las relaciones entre iguales; que superará el conflicto cognitivo entre el conocimiento espontáneo y conocimiento nuevo / científico (Sainz, 2018). Así, tendrá un aprendizaje y obtendrá una nueva perspectiva del mundo.

El profesor / profesora será una persona intelectual comprometida que “sabe y sabe hacer”: está puesto en el tema y es consciente de la importancia que tiene en la función social (Unzueta, 2011). Para la evaluación se tendrán en cuenta los conceptos, procedimientos, comportamientos, valores, competencias y normas (Sainz, 2018).

Los valores que se transmiten son: responsabilidad, reflexión crítica y capacidad para hacer interrogatorio (Sainz, 2018).

3. MATERIALA ETA METODOAK

Gradu Bukaerako Lana aurrera eramateko hiru material edo metodo erabili ditut, transexualitatearen errealitatea hobeto ulertzeko eta baita ere hezkuntza eremuan hobekuntzak bertaratzeko. Horretarako, lehenik eta behin AMIA tresna erabili dut, Nafarroan dagoen transexualitate kasuetarako hezkuntzako protokoloa aztertzeko. Bestetik, gaiaren inguruan irakasleek dituzten iritziak, formakuntzak zein jakintzak ezagutzeko, irakasleei zuzendutako galdetegia Nafarroako hiru eskoletan eskaini dut. Azkenik, eta aurreko bi metodoak aztertu ondoren, irakasleei zein familiei laguntzeko tresna edo baliabide pedagogiko bat eskaini nahi izan dut. Beraz, azkeneko materiala irakasle zein familiei zuzendutako gida sortzea izan da.

3.1. AMIA analisia

Arestian esan bezala, AMIA proiektu bat, kasu honetan Nafarroako transexualitate kasuetarako protokoloa, aztertzeko erabiltzen den tresna da. Honetan hurrengo orrialdean ikus daitekeen bezala, protokoloak dituen ahulgune, mehatxu, indargune eta aukerak bertaratu ditut.

AMIA-DAFO			
AHULGUNE / DEBILIDADES	MEHATXUA/ AMENAZA	INDARGUNE/ FORTALEZA	AUKERA/ OPORTUNIDAD
<ul style="list-style-type: none"> • A pesar de que da a conocer la posibilidad de una identidad de género no acorde con el sexo asignado al nacer, no menciona conceptos como persona no binaria, la cual podría tener gran relación. • No menciona conceptos básicos como identidad de género, orientación sexual, sexo y género etc. • No menciona en cada etapa de desarrollo del niño/ niña <u>que</u> indicios se deben tener en cuenta para saber si estamos ante un caso transexual u otro. • Aunque cite claramente el objetivo, no profundiza en ello, es decir, no dice dónde se quiere conseguir el respeto a la diversidad de identidades, ya que aunque sea un protocolo dirigido al ámbito escolar, se debería mencionar la importancia de 	<ul style="list-style-type: none"> • Posibilidad de generalizar a los/las alumnos/as transexuales. • La posibilidad de etiquetar al alumno/a. • El desconocimiento de los recursos externos los cuales pueden ayudar a la comunidad educativa en dichos casos. • La no inclusión del alumno/a por el desconocimiento de las demás familias del colegio. 	<ul style="list-style-type: none"> • Mediante el protocolo se da a conocer qué es la identidad de género y en relación con esto da a conocer qué es la transexualidad. • Se establece claramente que uso tendrá el protocolo. • Se mencionan claramente los objetivos de dicho protocolo. • Indicaciones de perspectivas diferentes para comunicar la situación (si lo comunican los representantes; si lo comunica el profesorado; independientemente de cómo se comunique). • Menciona la existencia de recursos tanto en el ámbito educativo como fuera de él. • Da a conocer la elaboración de un plan de acogida al proceso de tránsito, teniendo en cuenta los ámbitos de: familia, escuela y el/ la alumno/a. En dicho plan se tienen en cuenta ámbitos que pueden ser conflictivos si no se da conocimiento de ello, como son: ámbito administrativo, vestimenta, actividades, 	<ul style="list-style-type: none"> • La visibilización de las personas transexuales. • La posibilidad de trabajar la diversidad en su totalidad en el ámbito educativo.

2.Irudia. AMIA analisisa

<p>normalizar y visibilizar dichas situaciones en todos los aspectos de la sociedad, teniendo en cuenta que la escuela es parte de ella.</p> <ul style="list-style-type: none"> • No se explica cómo detectar o cómo escuchar/ acoger la situación. • Además sería útil un mapa conceptual para facilitar la información y proceso. • No se mencionan los recursos existentes tanto en el ámbito educativo como fuera del mismo. Teniendo una referencia se <u>facilitaría</u> el proceso (ejemplo de ello son <u>Kattalingune</u>, Harrotu, Chrysallis, Naizen...). • No se menciona cómo o qué pautas se deberían dar para preparar la acogida del alumno/a. • Aunque se da formación a las familias del ciclo donde cursa el/ la alumna trans, no se proporciona dicha formación a las demás familias. 		<p>instalaciones, opinión del/la alumno/a, informe médico, la posibilidad del rechazo de la familia. Además de dar y especificar el recurso que ofrece Educación.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proporciona un plan integral de formación. • Tiene en cuenta los posibles casos de discriminación y acoso escolar. 	
--	--	---	--

2

3. irudia. AMIA analisis

3.1.1. Puntos a tener en cuenta sobre el análisis DAFO del protocolo

Mediante el análisis de dicho protocolo, pienso que es un gran paso para avanzar en el tema trans, y a su vez, para dar a conocer y normalizar dichos casos. Para ello, como bien se menciona, hay que tener en cuenta a toda la Comunidad Educativa (escuela, familia, alumnos/as, recursos externos). Aun y todo veo puntos a mejorar.

Por un lado, el protocolo solo menciona qué se debe hacer una vez detectado el caso. Por lo tanto, me parece de gran utilidad añadir cómo detectar o cómo saber que estamos ante un caso trans (proporcionar unas pautas básicas). Además, destacaría la ausencia de información en cuanto al concepto trans, ya que solo se menciona la persona transexual y no las que pueden estar vinculadas a ella (transgénero, persona no binaria...). A su vez, sería interesante una vez pasada la transición cómo implementar con normalidad, como parte de la diversidad la igualdad mediante la equidad.

Es verdad, que proporciona una formación integral a toda la comunidad educativa, pero los recursos existentes sólo son externos, lo cual significa que ante un caso de dichas dimensiones, el propio colegio no sería autónomo para tratar/atender dicho caso. Es pues, que se deberían proporcionar elementos básicos para el profesorado con el objetivo de saber cómo dirigir la situación, de un modo adecuado, bien para hablar y explicar a la familia, bien para hablar con dicho alumno/a y los/las demás. Añadiría la necesidad de mencionar a asociaciones/ servicios públicos y recursos que puedan ayudar a familias y alumnos/as trans en su transición.

Por otro lado, para hacer una intervención eficaz me parece necesario la contextualización de la escuela (dónde está situada, qué tipo de enseñanza imparte, que familias acuden a ella, en cuanto al tipo y situación socio-económico-cultural), ya que como en todo los ámbitos los conceptos como raza, clase y género tienen mucha influencia a la hora de la discriminación.

3.2. Galdetegia

3.2.1. Irakasleei zuzendutako galdetegia

Irakasleei zuzendutako galdetegi honekin (I.ERANSKINA) transexualitatearen errealitatea hezkuntza mailan nolakoa den eta honen inguruko mitoak desmitifikatu nahi izan da. Horretarako helburu orokor eta espezifikoak bereizi dira.

- Helburu orokorra: irakasleek transexualitatearen errealitateari buruz duten ezagutza jasotzea.
- Helburu espezifikoak: identitate sexuala eta irakaste-etapa faktore bezala aztertzea.

Galdetegia bidali zaien eskolak hiru izan dira: Auzalar IP (Orkoien), San Fermin ikastola (Zizur Txiki) eta Sanduzelai IP (San Jorge). Hirurak D ereduko zentroak dira, Iruñerrian kokatutako hiru auzo desberdinetan. Auzalar IP eta Sanduzelai IP eskola publikoak, eta San Fermin Ikastola kontzertatua dira.

The image shows a digital questionnaire interface. At the top, there is a header with the title 'TRANS ERREALITATEA EZAGUTZEN' and a star icon. Below the header, there are navigation tabs for 'PREGUNTAS' and 'RESPUESTAS' with a count of '9'. The main content area contains the title 'TRANS ERREALITATEA EZAGUTZEN' and a paragraph of introductory text in Basque. The text explains the purpose of the questionnaire and lists specific objectives. Below the text, there is a question: '1 Nola identifikatzen duzu zure burua?' (How do you identify yourself?). There are three radio button options: 'Emakumea' (Woman), 'Gizona' (Man), and 'Ez binarioa' (Not binary). Below this, there is a second question: '2. Idatzi zure adina hemen: _____' (Write your age here: _____). At the bottom, there is a text input field labeled 'Texto de respuesta corta'.

4. Irudia. Galdetegiaren irudi digitalaren erudia

Auzalar IP 37 irakaslez eta 355 ikaslez osatutako zentroa da, ikastetxeak emandako datuen arabera. Orkoieneen kokatuta dago eta 2016ko datuen arabera (Orkoiengo Udala, s.f.) 3.802 biztanle ditu. Hegoaldean Oltza Zendea, mendebaldean Itza eta iparraldean Berriobeiti ditu mugakide. Ikastetxearen arabera, familien kultura, etnia eta jatorria kontuan hartuta, ikasleria nahiko homogeneoa da.

San Fermin ikastola Iruñerriatik 5km-tara kokatzen den ikastola da, zehazki Zizur Txiki herrian. 3 eta 18 urte bitarteko ikasleen heziketa bere gain hartzen ditu, eta osotara, 1500 ikasle eta 140 irakasle dira (San Fermin ikastola, s.f.)

Sanduzelai eskola publikoa San Jorgen kokatuta dago, Arga eta tren geltokiaren artean. 26 irakasle eta 218 ikasle daude 3-12 urte bitartean (Sanduzelai IP, s.f.).

Honekin guztiarekin, egoera sozio- ekonomiko eta kultural desberdinak egon daitezkeen auzoak hautatu dira, erantzunak ahalik eta heterogeneoen eta baliagarrien izateko.

Galdetegiaren analisiarekin hasi baino lehen, erantzunak analizatu baino lehenagoko hipotesiak bertaratuko ditut, azkenik ondorioekin batera, hauek baieztatu edo ezeztatzeko:

- H1: Irakasleak Hezkuntza Sexuala lantzearen alde daude, baina ez dute formakuntzarik.
- H2: Emakumeek gizonak baino ezagutza gehiago dute Trans* errealitatearen inguruan.
- H3: Irakaste-urte kopuruak eragina du: gero eta urte gehiago lan egin orduan eta jakintza gehiago izango dituzte alor honetan.
- H4: Identitate eta orientazio sexualaren arteko kontzeptuak argi izango dituzte.
- H5: Gehiengoek identitate sexuala eta intersexualitatearen arteko kontzeptuak nahasiko dituzte.

Galdetegian egindako /proposatutako galderei dagokionez, era zehatzean pentsatu eta aurkeztu dira (galdera irekiak eta zehatzak konbinatu dira, baita ere, gezurra / egia erantzuna behar dutenak

- 6. eta 7. galderak irakasleek duten sententzioa eta esperientzia ezagutzeko izan dira:
 - 6. Galdera. Zure aburuz hezkuntza sexuala eskolan landu behar da?
 - 7. Galdera. Aukeratu zure egoerari dagokiona.

1 (Bat ere ez) 2 (Gutxi) 3 (Nahiko) 4 (Asko)

Noizbait hezkuntza sexuala klasean landu duzu?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Estrategiak/ formakuntzarik duzu hau irakasteko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gai ikusten duzu zure burua klasean hau lantzeko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Eroso sentitzen zara hau lantzerakoan? (Soilik erantzun noizbait landu baduzu)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>


5. irudia. 7.galderaren irudi digitala

- 9., 10., 13. eta 16. galderak Trans* inguruko oinarritzko ezagutzak zeintzuk diren jakiteko izan dira:
 - 9. Galdera. Zer esan nahi du Trans* hitzak?
 - 10. Galdera. Umeek ahalmena dute beraien identitatea eta orientazio sexuala identifikatzeko?
 - 13. Galdera. Trans*izatea erabaki bat da. (Egia/ Gezurra)
 - 16. Galdera. Pertsona transexualei esleitutako sexuaren arabera tratatu behar zaie (Egia/ Gezurra).
- 11. eta 12. galderak Identitate eta orientazio sexuala kontzeptuak menperatzen dituzten jakiteko planteatu dira:
 - 11. Galdera. Identitatea nork duzun gustuko, hots, orientazio sexualari erreferentzia egiten dio (Egia/ Gezurra).
 - 12. Galdera. Trans* pertsonak soilik gay edo lesbianak dira (Egia/ Gezurra).

- 14. eta 15. galderak Trans* eta Intersexualitate kontzeptuak menperatzen dituzten jakiteko planteatu dira:
 - 14. Galdera. Pertsona transexuala eta intersexuala berdinarak dira?
 - 15. Galdera. Zer da pertsona intersexuala izatea?


Datu orokorrei dagokionez, lortutako 9 erantzunetatik honako informazioa atera dut:

%88,9 beraien burua emakume identifikatzen dute, eta %11,1 gizon.



6. Irudia. Nola identifikatzen duzu zure burua


Batez besteko adina 35 urtekoa da.



7. Irudia. Parte-hartzaileen adina


Etapari dagokionez, %22,2k (2 pertsonak) Haur Hezkuntzan eta %77,8k (7 pertsonak) Lehen Hezkuntzan lan egiten du.

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa



8 Irudia. Irakaste etapa

Erantzunetatik %77,8 (7 pertsona) 5 urte baino gehiago daramatza irakasle gisa, eta %22,2 (2 pertsona) 1-3 urte artean.



9. Irudia. Urte kopurua irakasle gisa

3.2.2. Diskusioa

Helburu espezifikoak kontuan hartuta, identitate sexuala eta irakaste denboraldia faktore bezala aztertuko dira. Horretarako, galdera bakoitzeko erantzun kopuru gehien dituen erantzuna baloratuko da.

A) *Identitate sexuala kontuan hartuta:*

- *Zuretzat zer da Hezkuntza Sexuala?* Aukera guztiak hautatu dituztenek: emakumeen %62,5 eta gizonezkoen %0. Gizon bakarra dago, eta honek Giza garapena, erotika eta Gizarte eta kultura aukerak Hezkuntza Sexualetik ezeztatu ditu.

- *Zure aburuz Hezkuntza Sexuala eskolan landu behar da?* erantzunen %100ak “Bai” erantzun du.
- *Aukeratu zure egoerari dagokiona:*

1. Taula. Irakasleen erantzunen datu-bilketa

“Nahiko” eta “asko” erantzun dutenek	EMAKUMEAK	GIZONAK
Noizbait Hezkuntza Sexuala klasean landu duzu?	%87,5	%0
Estrategiarik/ formakuntzarik duzu hau irakasteko?	%50	%0
Gai ikusten duzu zure burua klasean hau lantzeko?	%87,5	Erantzun gabe
Eroso sentitzen zara hau lantzen?	%100	%100

- *Noizbait Trans* hitza entzun/ irakurri al duzu?* Emakumeen %100ak eta gizonezkoen %100ak “Bai, badakit zer den” erantzun dute.
- *Zer esan nahi du Trans* hitzak?*

Emakumeen kasuan hitza definitzerako orduan hainbat ikuspuntu islatu dira. Alde batetik, erantzunen artean pertsona batek bere identitate sexuala esleitutako sexuarekin bat ez datorrenean dela argudiatu da. Hau egiteko bigarren batek esleitutako sexua aipatu ordez “sexu biologikoa” idatzi du, ideia argi duela ikusi arren, hiztegi-nahasketa duela antzematen da. Bestetik, genitalak sexuarekin lotzen duten horiek egon dira: “pertsona baten organo sexualak bere identitate sexualarekin bat ez etortzea”. Baita ere generoa genitalak eta identitate sexuala nahasi duten pertsonak daude generoa genitalekin lotuz, eta beraz, genitalei uko egiten dioten pertsonak direla argudiatuz. “Bulba duten mutilak eta zakila duten neskak” esaldiarekin trans* hitza ere definitu izan da. Honekin batera, (*) ikurrak terminoa era zabalean eta irekian garatzeko balio duela argudiatu dute. Gizonak generoa eta genitalak bat ez datorrenean argudiatu du, generoa eta sexua kontzeptuak nahasiz.

-
- *Umeek ahalmena dute beraien identitate eta orientazio sexuala identifikatzeko?* Emakumeen %100ak eta gizonezkoaren %100ak “Bai” erantzun dute.
 - *Identitatea nork duzun gustuko, hots, orientazio sexualari erreferentzia egiten dio.* Emakumeen %87,5ek “Ez” eta gizonezkoaren %100ak “Ez” erantzun dute.
 - *Trans* pertsonak soilik gay edo lesbianak dira.* Guztiek “ez” edo “ez du zertan” erantzun dute.
 - *Trans* izatea erabaki bat da.* Emakumeen %75ek “Ez. Trans*pertsonak trans* bezala jaiotzen dira” erantzun dute. Gizonezkoaren kasuan erantzun berdina hautatu du: “Ez. Trans* pertsonak trans* bezala jaiotzen dira”.
 - *Pertsona transexuala eta intersexuala berdinak dira?* Emakumeen %87,5ak “Ez” eta gizonezkoa “Ez” erantzun dute.
 - *Zer da intersexualitatea?*

Emakume zein gizonen erantzunak aztertuz, bi termino hauen artean kontzeptu nahasketak dituztela antzematen da. Aipatu beharra dago emakumeen artean batek ez duela erantzunik jarri. Gainerakoen artean honako erantzunak egon dira: alde batetik, jaiotzean ezaugarri biologiko batzuk emakumezkoak eta beste batzuk gizonezkoenak dituzten pertsonak izendatzeko erabiltzen den termino bezala argudiatu da. Beste kasu batean biologikoki izan beharreko organo sexualak erabatekoak ez izatea esan da. Baita ere “hemafrodita” hitza aipatu da, lehen intersexualitatea definitzeko hitza zela azalduz. Azken batek sinonimoak ez direla, baina ez dakiela intersexualitatea definitzen baieztatu du. Gizonaren kasuan intersexualitatea orientazio sexualarekin nahasi du, intersexual pertsona orientazio sexual bakarra ez duen hori dela definituz.

- *Pertsona transexualei esleitutako sexuaren arabera tratatu behar zaie.* Emakumezkoen %100ak “berari galdetu beharko zaio” eta gizonezkoak “gezurra” idatzi dute.
- *Ezagutzen / irakurri duzu Nafarroako transexualitate kasuetarako dagoen protokoloa?* Emakumeen %62,5ek “Bai” eta gizonezkoak “ez nekien zegoenik” baieztatzen dute.

- “Bai” erantzun duten emakumeetatik %50ek ez du protokoloan gabeziarik ikusten, %25ak ez du protokoloa irakurri, eta azkeneko %25ak oraindik ez duela honako hausnarketa egin baieztatzen du.

B) Irakaste-denbora kontuan hartuz:

Irakaste-denbora faktore bezala hartuta, galdetegian lortutako emaitzen arabera, bi multzo banatuko ditut: 1-3 urte lanean egon diren irakasleak eta 5 urte baino gehiago lanean aritu diren irakasleak.

- *Zuretzat zer da Hezkuntza Sexuala?* 1-3 urte lanean daramaten %50ak aukera guztiak hautatu ditu. Aldiz, 5 urte baino gehiago hezkuntza munduan aritu direnen artean aukera guztiak %57,14k hautatu ditu.
- *Zure aburuz Hezkuntza Sexuala eskolan landu behar da?* Honetan bai 1-3 urte bai 5 urte lanean daramatzatenek “Bai” erantzun dute.
- *Aukeratu zure egoerari dagokiona:*

2. Taula. Irakasleen erantzunen datu-bilketa

“Nahiko” eta “asko” erantzun dutenek	1-3 urte	5 urte baino gehiago
Noizbait Hezkuntza Sexuala klasean landu duzu?	%50	%85,71
Estrategiarik/ formakuntzarik duzu hau irakasteko?	%42,86	%50
Gai ikusten duzu zure burua klasean hau lantzeko?*	%85,71	%50
Eroso sentitzen zara hau lantzen?	%100	%100

- *Noizbait Trans* hitza entzun/ irakurri al duzu?* Bi taldeek “Bai, badakit zer den” erantzun dute.
- *Zer esan nahi du Trans* hitzak?*

5 urte baino gehiago hezkuntzan aritu direnen artean, hainbat modu izan dituzte Trans* hitza definitzeko: hasteko, era egokian definitu duten horiek daude: pertsona batek bere identitate sexuala esleitutako sexuarekin bat etortzen ez denean. Hau definitzeko egia da baten batek hiztegi nahasketa izan duela “sexu biologikoa” (esleitutako sexua izan ordez) edota generoa (sexua izan ordez) aipatu baitute.

1-3 urte hezkuntzan daramaten horiek organo sexualak eta identitate sexuala kontzeptuak nahasi dituzte, organoak sexuarekin lotuz (“organo maskulinoak eta organo femeninoak”).

- *Umeeek ahalmena dute beraien identitate eta orientazio sexuala identifikatzeko?* Bi taldeen %100ak “Bai” erantzun du.
- *Identitatea nork duzun gustuko, hots, orientazio sexualari erreferentzia egiten dio.* 5 urte baino gehiago lanean aritu diren %85,71ek eta 1-3 urte artean lan egin duten %50ak “Ez” erantzun du.
- *Trans* pertsonak soilik gay edo lesbianak dira.* Guztiek “ez” edo “ez du zertan” erantzun dute.
- *Trans* izatea erabaki bat da.* 5 urte baino gehiago hezkuntza munduan aritu diren %71,43k eta 1-3 urte inguru aritu diren %100ak “Ez. Trans* pertsonak trans* bezala jaiotzen dira” erantzun dute.
- *Pertsona transexuala eta intersexuala berdinak dira?* Guztiek “Ez” erantzun dute.
- *Zer da intersexualitatea?* Honako erantzunak egon dira: (1-3 urte lanean aritu direnen artean batek ez du erantzunik jarri).

5 urte baino gehiago hezkuntzan lan egin dutenen artean era orokor batean jaiotzerakoan ezaugarri biologiko batzuk emakumezkoenak eta beste batzuk gizonezkoenak dituzten horiek direla argudiatu dute. Baita ere “hemafrodita” hitza aipatu izan da, eta honekin batera biologikoki izan beharreko organo sexualak erabatekoak ez izatea. Azkenik, aipatu beharra dago orientazio sexual bakarra ez duen pertsonarekin ere erlazionatu dela.

1-3 urte bitarte lan munduan aritu direnek ez dakitela zer den edo nola definitu erantzun dute.

- *Pertsona transexualei esleitutako sexuaren arabera tratatu behar zaie. “Berari galdetu beharko zaio” erantzuna 5 urte baino gehiago lanean aritu direnen artean %85,71k eta 1-3 urte lanean aritu direnen artean %100ak erantzun dute.*
- *Ezagutzen / irakurri duzu Nafarroako transexualitate kasuetarako dagoen protokoloa? 5 urte baino gehiago daramaten %57,14k eta 1-3 urte hezkuntzan lanean daramaten %50ak ezagutzen dute.*
- *5 urte baino gehiago lanean aritu eta “Bai” erantzun dutenen artean batek ez du gabeziarik ikusten, eta beste batek ez duela horrelako hausnarketarik egin erantzun dute. 1-3 urte daramaten bi pertsonetako batek ez du gabeziarik ikusten, eta bigarenak ez duela irakurri baieztatzen du.*

3.2.3. Galdetegiaren ondorioak


Atal hau era ulergarri batean adierazteko, aipatzekoa da hasiera batean *Gradu Bukaerako Lanean planteatutako galderak eta galdetegiaren bidez aztertu nahi diren helburu orokorra zein espezifikoak oinarritzat hartu direla*, hauek kontuan hartuz hurrengo hausnarketak bertaratzeko.

Galdetegia sortu baino lehen Nafarroako transexualitate protokoloa aztertu da, ondoren hainbat profesionalen laguntzarekin irakasleei zuzendutako galdetegia sortu delarik.

Lehenik eta behin, Hezkuntza Sexuala zer den aztertuz gero, emakumeen artean gai hau barneratuagoa dagoela ikus daiteke, nahiz eta horietako batzuek oraindik ere erotika honen parte ez hartu. Irakaste-denbora aztertuz gero, nahiko berdin egon arren hezkuntza munduan gehiago aritu direnek kontzeptu hau argiago dutela esan daiteke. Hala ere, era orokorrean galdera aztertuz gero, erantzun dutenen artean soilik %44,44ak Hezkuntza Sexuala bere baitan zer den argi eta garbi du. Hortaz, kezkatzeko puntua da, izan ere, Hezkuntza Sexuala umearen garapenean egon beharko litzatekeen errealitatea da. Hezkuntza sexualak giza garapeneko eta osasunarekin zerikusia duten gaiak lantzeaz gain, bakoitzak bere burua ezagutzea, onartzea eta erotika era pozgarri batean adieraztea bilatzen du (De la Cruz M-Romo, 2010). Izan ere, sexualitatea giza garapenaren etapa guztietan parte hartzen duen errealitatea da, haurtzaroan hasi eta nerabezaroan, helduaroan eta zahartzaroan jarraituko duena (Bolaños, González, Jiménez, Ramos, eta Rodríguez, s.f.).


Gradu Bukaerako Lanean planteatutako hasierako galdera bati erreferentzia eginez "ikasleek eta irakasleek zer ezagutza dute Hezkuntza sexualari buruz?" irakasleek Hezkuntza Sexualari buruz duten esperientzia zein den ezagutzea nahi izan dut. Honetan emakumeen erdiak Hezkuntza Sexualarekin zerikusia duten gaiak landu eta hau jorratzeko bere burua gai ikusten duela baieztatzen da. Aldiz, gizonaren kasuan honako gaiak gutxitan landu dituela eta hau egiteko estrategia gutxi dituela erantzun du. Irakaste esperientzian oinarrituz hezkuntza munduan urte gehiagoz aritu direnen artean honen inguruan lanketa gehiago egin arren, 1-3 urteko esperientzia dutenen artean hobeki ikusten dute beraien burua hau irakasterako orduan. Formazioari

dagokionez, soilik erdiak noizbait jaso duela baieztatzen du. Beraz, honekin guztiarekin era orokorrean esan daiteke oraindik ere irakasle askok Hezkuntza Sexualeko gai batzuk landu arren, hau lantzeko formakuntzarik ez dutela, eta hortaz, batzuetan ez dute beraien burua gai ikusten. Hala ere, aipatzekoa da irakasle guztiek Hezkuntza Sexuala eskola mailan lantzeko aldeko jarrera aurkezten dutela, hortaz, fokua formazioan jarri behako da.



10. Irudia. Norbere egoeraren aukeraketari dagokion grafikoa

Azken puntu honi jarraiki, irakasleen ezagutzak aztertu dira. Era orokor batean baieztatu behar da, Trans* hitza %100ean entzunda dutela baieztatu arren, hau definitzerakoan hiztegi falta eta kontzeptuen nahasketak (generoa, identitate sexuala, esleitutako sexua, genitalak, intersexualitatea) antzematen direla.




10. Irudia. Noizbait trans* hitza entzun / irakurri al duzu?


13. eta 16. galderak Trans* errealitatea bere osotasunean ulertzen duten aztertzekeo galderak izan dira. Horiek horrela, 13. galdera (Trans* izatea erabaki bat da) eta 16.

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

galdera (Pertsona transexualei esleitutako sexuaren arabera tratatu behar zaie) kontuan hartuz, bai gizonezkoen kasuan eta bai emakumeen gehiengoan trans* pertsona trans* bezala jaiotzen dela argi eduki arren, 16. galderan kontrajartzen dira, “berari galdetu beharko zaio” erantzuna bertaratuz (gizonezkoa ez da kontrajartzen, baieztapen hori gezurra dela jartzen baitu). Irakaste-esperientzia faktoretzat hartuz gero, konturatuko gara 1-3 urte, hau da, lan munduan urte gutxiago daramaten pertsonen artean kontzeptu hau argiago dutela. Hala ere, bai 5 urte baino gehiago bai 1-3 urte artean lan munduan daramatenen artean 16. galderan kontrajartzen dira, pertsona transexualei esleitutako sexuaren arabera deitu behar zaien edo ez jakiteko umeari galdetu beharko zaiola erantzuna emanaz. Izan ere, trans* pertsonak trans* dira jaiotzean esleitutako kategoria sexuala aldatzen dutelako (Landarroitajauregi, 2018), eta beraz, ez dira esleitutako sexu horrekin bere burua identifikatzen.




12. Irdia. Trans* izatea erabaki bat da



13. Irdia. Pertsona transexualei esleitutako sexuaren arabera tratatu behar zaie

Aztertuko den laugarren puntua, Gradu Bukaerako Lanaren oinarria da: Identitate sexuala. Honetan irakasleek identitate sexuala eta orientazio sexuala desberdintzen duten jakitea izan da helburua, eta horretarako, 11. eta 12. galderak aztertuko dira. Horiek horrela, guztiek Trans* pertsona bat ez dela zertan homosexuala izan behar argi eduki arren, 11. galderan emakumeen %87,5ak identitate sexuala eta orientazio sexualaren arteko desberdintasun egokia egiten dute, %12,5ak bi kontzeptu hauen nahasketa eginez. Gizonezkoaren kasuan bi kontzeptu hauek desberdintzen ditu. Irakaste denbora oinarritzat hartuta, arestian esan bezala, guztiek Trans* pertsona ez dela zertan homosexuala izan behar baieztatu arren, 1-3 urte bitartean lan egin dutenen artean soilik %50ak, eta 5 urte baino gehiago lan egin dutenen artean %85,71ek bi kontzeptuen desberdintze egokia egiten dute.

Azkenik, trans* eta intersexualitatearen kontzeptuak aztertu dira. Gehiengoek bi kontzeptu hauek desberdinak direla argi eduki arren, trans* definizioan gertatu den bezala, hiztegi-nahasketa eta kontzeptuen nahasketa (orientazio sexualarekin nahasi da, adibidez) izan dute.



14. Irudia. Pertsona transexuala eta intersexuala berdinarak dira

Honekin guztiarekin, galdetegia sortu baino lehen planteatutako hurrengo *aurre iritziak edo hipotesiak* baieztatu eta ezeztatu daitezke, beti ere galdetegiaren bitartez ateratako erantzunak aztertu eta interpretatu direlarik:

- H1: Irakasleak Hezkuntza Sexuala lantzearen alde daude, baina formazio falta dago. *Honako hau baieztatu daiteke.*

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

-
- H1: Emakumeek gizonak baino ezagutza gehiago dute Trans* errealitatearen inguruan. *Askotan hori antzeman arren, batzuetan biek kontzeptu-nahasketa izan dute.*
 - H2: Irakaste-urte kopuruak eragina du: gero eta urte gehiago lan egin orduan eta jakintza gehiago izango dituzte alor honetan. Batzuetan hori iruditu arren, *ezin da era orokorrean hau baieztatu.*
 - H4: Identitate eta orientazio sexualaren kontzeptuak argi izango dituzte. *Hau ezeztatu daiteke. Askotan bi kontzeptu hauen nahasketa izan dute.*
 - H5: Gehiengoek identitate sexuala eta intersexualitatearen arteko kontzeptuak nahasiko dituzte. *Hau baieztatzen da, oinarrizko kontzeptuak ez baitira menperatzen.* Trans* eta Intersexualitate kontzeptuak entzunda izan arren, hauek ulertzeko oinarrizko kontzeptu eta hiztegia ez da ezagutzen; gehienbat identitate sexuala genitalekin erlazionatzen dute.

3.3. Irakasle zein familiei zuzendutako gida

Gradu Bukaerako Laneko hasierako galderetan azaldu den bezala, irakasle zein familiei zuzendutako gida bat planteatu da, AMIA analisiaren bitartez ateratako ahulguneak indartzeko asmoz, eta era berean Transexualitate kasuetarako Nafarroako Hezkuntza protokoloaren osagarria izango dena.

Gidaren maketazioa egin da (II. ERANSKINA), ondorengo aurkibidearekin batera atxikituta egongo dena. Jarraian gidaren aurkibideari dagokion informazioan sakonduko da:

GIDAREN ATAL NAGUSIAK
1. Zenbait kontzeptuen azalpenak Identitate sexuala Orientazio sexuala Generoa
2. Umearen garapen soziala eta lengoaiaren garapena kon- tuan hartuz, identitate sexualaren adierazpena. Era orokorrean Hizkuntza jabetza lortu baino lehen Hizkuntza jabetza lortzean Pentsamendu abstraktua lortzean
3. Trans* kasu baten aurrean gaudela jakiteko oinarritzko irizpideak
4. Transexualitatea vs intersexualitatea
5. Esleitutako sexua identitate sexualarekin bat etortzen ez denean. Errealitate hau etxean, eskolan edo gure inguruan badugu, zer egin?
6. Lagungarriak izan daitezkeen elkarteak, zerbitzu publikoak eta baliabideak
7. Alderdi juridikoa
8. Glosategia
9. Bibliografia
10. Gelan lantzeko: Transformazio txokoa

15. Irudia. Gidaren atal nagusiak

<https://drive.google.com/file/d/1U4RigFFbsQTOMnFKt4-2mSL8mfMoljDD/view?usp=sharing>

3.3.1. Zergatik gida honen beharra. Bere justifikazioa.

Nafarroako 8/2017 Foru Dreketuan, berdintasun soziala LGTBI+ pertsonentzat Xedapen orokorreko 4.artikuluaren oinarrituz, *Prebentzioa: beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartuko dira jokaera homofobiko, lesbofobiko, bifobiko, transfobiko edo interfobikoak ekiditeko, eta LGTBI+ pertsonen duten berdintasunerako, ikusgaitasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea urratzera eraman dezaketen egoeren antzemate goiztiarrerako* (5.or.).

Gaur egun hezkuntza sexualak duen egoera soziala gero eta indar handiagoa eduki arren, ezjakintasun handia dago oinarrizko kontzeptuen inguruan: identitate sexuala, orientazio sexuala, genero adierazpena, batik bat. Horiek horrela, ezjakite handia dago identitate trans* buruz, eta kontuan hartuz, oraindik ere hezkuntza munduan tabua den gaia izanik -gehienetan (kasuren bat dagoenean salbuespen) arbuiatzen da- gida honen beharra ikusi dut.

Beraz, Harrotu eta Kattalingune laguntzarekin, hezkuntza komunitateari zuzendutako gida hau aurrera eraman da. Horretarako, hainbat artikulua, bertako adituek adierazitakoa- jasotako informazioa eta esku-orriak- eta galdetegietako emaitzak, kontuan hartu dira. Era berean, hainbat profesionalen iritzia eta kritikak kontuan hartuz gidaren azkeneko emaitza aurkeztu da.

3.3.2. Gidaren helburuak

Lehenik eta behin, esan bezala, identitate aniztasuna zer den eta honek izan ditzakeen aukera anitzen berri eman nahi da, etiketatu gabe, baizik eta modu zeharka batean hauek mahai gainean jarri. Hala ere, Trans* kasuei sakontasun gehiago eman nahi da, oraindik ere mito eta informazio falta handia dagoelako.

Era berean eskuragarria eta era sinple batean oinarrizko informazioa eman nahi da, irakasleek honen berri izateko eta familiei informazioa helarazteko. Horrela, mitoak zein dudak erantzun eta argitzeko gai izango lirateke. Baita ere egoera bakoitza kudeatzeko gaitasun handiagoa, izan ere, gida hau edozein kasu izan baino lehenago erabili nahi da.

Honelako gaia eskoletan ez bada lantzen, ezingo da benetako eskola inklusiboa lortu. Idatzita izateaz gain, informazio hauek erakutsi behar dira, era inklusibo, natural eta aniztasunaren parte bezala.

3.3.3. Nori zuzenduta dago

Arestian esan bezala, lehenengo atala pertsona orori zuzenduta egonen da, baina batez ere hezkuntza komunitateari, hau da, irakasle zein familiei. Aproposa izango litzateke kurtso hasieran irakasleek honako informazioa edukitzea, hasierako bileretan familiei hau helarazteko. Bestetik, bigarren atala ikasleekin gai hau gelan lantzeko proposamena da, beraz, oro har irakasleei zuzenduta dago.

3.3.4. Gidaren atalak

3.3.4.1. Irakasle eta familiei zuzenduta. Informazio-atala.

Gidaren lehenengo atalarekin jarraiki, lehenik eta behin, sexuatzeko prozesuan parte hartzen duten *oinarrizko kontzeptuen azalpenak* eman dira, askotan gizartean nahastu edo guztiz desberdintzen ez direnak, hain zuzen ere: identitate sexuala, esleitutako sexua, orientazio sexuala eta generoa. Honi jarraiki eskema bat atxikitu da, esandako kontzeptuak eta kontzeptu hauen barruan egon daitezkeen aniztasunak era bisual eta ulergarri batean helarazteko.

- *Identitate sexuala*: pertsona bakoitzak egiten duen identifikazioa, emakume, gizon edo pertsona ez binarioa (emakume edo gizon kontzeptuekin bat etortzen ez den identitate sexuala) deituak. Identitate sexuala 2 urterekin egonkortzen joaten da (Mayor, 2018). Hala ere, bizitza osoan dirauen prozesua da, hain zuzen, ez gara “emakume” edo “gizon” jaiotzen, baizik eta sexuatzeko prozesuaren ondorioz, emakume zein gizon moduan (bakoitzak bere moduan) eraikitzen goaz.

Argi eduki behar dugu identitate sexuala ez dagoela genitalen menpe. Beraz, bulba edota zakila edukitzeak ez du esan nahi “emakume” edo “gizon” garenik. Jaiotzean “neska” edo “mutila”, hau da, sexu bat *esleitzen* digute, baina horrek ez du esan nahi esleitutako sexua gure identitate sexualarekin bat etorriko denik. Hori dela eta,

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

kategorizazio sexual hau kanpotik esleitutakoa da. Horiek horrela, esleitutako sexua umearen identitate sexualarekin (barneko identitatea, “ni naizena”) bat datorren baieztatzeko, ahozko zein idatzizko hizkuntza gaitasuna lortzen duenean jakingo dugu.

- *Orientazio sexuala*: gure desioa eta erakarpen sexualari dagokio. Beste pertsonetikiko identitate sexual berdineko edo desberdineko preferentzia. Sozialki hainbat etiketak bereizten dira (Chrysallis, s.f.):
 - Heterosexual: identitate sexual desberdinekiko desio sexuala izatea.
 - Homosexual: identitate sexual berdinekiko desio sexuala izatea.
 - Bisexual: identitate berdin edo desberdinekiko desio sexuala izatea.
 - Asexual: identitate berdin edo desberdinen pertsonetikiko desio sexuala ez izatea.
 - Pansexual: identitate sexuala kontuan hartu gabe, beste pertsonetikiko desio sexuala.


Goian esan bezala, gizarteak pertsonen desio sexuala identifikatzeko eta etiketatzeko sailkapena da, izan ere, *Queer* bezalako teorietan oinarrituz, gu pertsona bezala beste pertsona bat deseatu dezakegu, etiketatu gabe, eraikitze soziala hautsiz.

- *Generoa*: gizartean eta kultura bakoitzean eraikitako estereotipoak, janzkerarekin, modako osagarriekin, kirol edo lanpostuekin... erlazionatzen direnak (Mayor, 2018). Ikuspegi sexologikotik ez dago genero eta sexuaren arteko desberdintasunik. Beraz, ez gara femenino edo maskulinoak, baizik eta lehen esan bezala, bien ezaugarriak ditugu. Arazoa gizabanako bakoitzak bere baitan dituen maskulino eta femenino horiek osatzen eta ahalbidetzen ez dituen gizarte baten parte garela. Oraindik ere, gure irudimen sozialean emakume zein gizon izateko modu mugatuak ditugu.

Kontzeptu hauek behin ulertuta, argi eduki behar dugu azaldutako kontzeptuak *erlazionatuta egon arren guztiz desberdinak direla*, eta beraz, anitzak eta desberdinak garela. Esaterako ni neska izan naiteke (edo mutila) nahiz eta esleitutako sexua mutila (edo neska) izan. Izan ere, kanpotik identitate sexual bat esleitu didate, nahiz eta ni horrela ez izan. Beste kasu batzuetan, esan bezala, identitate sexuala esleitutako sexuarekin bat etorriko da. Orientazio sexualari dagokionez, hots, nire desio erotikoa

norengana zuzentzen den, nire identitatea bat ala beste izan arren, edozein eta anitzta ere izan daiteke.

Horiek horrela, hurrengo eskema baliagarria izan daiteke, aurretik aipatu den guztia gogoratzeko eta hurrengo eskumenetan birpaso bat egiteko.



16 Irudia. Banako sexuatuak

Behin kontzeptu hauek azaldu direla, gida didaktikoan umearen garapen soziala eta lengoaiaren garapena zein den kontuan hartuz, identitate sexuala espresatzeko era desberdinak (etaparen arabera) bertaratu dira, ikasle edo umeen aniztasuna eta ikasle guztien arreta pertsonalizatua bermatzeko. Sailkatutako etapak ondorengoak dira:

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

A) Era orokorrean:

- Umeak *anitzak* dira, eta anitzak diren heinean desberdinak dira, bai alderdi fisikoan, psikomotorrean, komunikatiboan, sozialean, afektiboan, kognitiboan... beraz, anitzak diren bezala, identitate sexual eta orientazio sexual anitzak izan ditzakete.
- *Entzun, onartu eta maite* ezazu.
- *Errespetatu* itzazu berak dituen *gustukoak zein interesak* (jolasak, arropa, ilea...). Zure semea/ ikaslea gona eraman nahi badu utz ezazu. Umeak ez duen gustuko zerbait egitera behartzen badugu bere ongizate psikosozialean eragin dezakegu.

B) Hizkuntza jabetza lortu baino lehen:

- Bere burua sexuatzeari 2 eta 4 urteren artean gertatzen ohi da, eta denboran zehar iraunkorra izango da (Landarroitajauregi, 2018).
- Lehenengo urtetan, Gaztelanian edota generoa duten *hizkuntzetan, konkordantzia falta egon daiteke* hizkuntza erabiltzerako orduan (Landarroitajauregi, 2018). Hortaz jaiotzean esleitutako identitate sexuala neska bada, “yo, chico” esan dezake. Honako adierazleak ez du adierazten trans* kasu baten aurrean gaudenik, baina kontuan hartzeko zerbait da.
- *Sozializazio* etapari dagokionez, 2-3 urte artean umeari oso garrantzitsua suertatuko zaio helduaren onarpena eta adeitasuna, helduaren estimulu-erantzunaren bidez jokaera hau errepikatuko duelarik (Lebrero eta Quicios, 2011).

C) Hizkuntza jabetza lortzean:

- 2-4 urte artean hizkuntzaren jabetza lortzen du. *Hizkuntzaren bidez afektu jarrerak* agerian utziko ditu (Lebrero eta Quicios, 2011).
- Umeek beraien *identitate sexuala* adierazten ohi dute. “Yo soy chico” (esaterako). Batzuetan identitate sexuala esleitutako sexuarekin bat etorriko da, hau da, jaiotzean “mutila” dela adieraztea, eta berak

“mutila naiz” esatea. Beste batzuetan ez da identitate sexuala (“mutila naiz”) esleitutako sexuarekin bat etorriko (jaiotzean “neska da”).

- Beraz, *hitzez zein keinuen* bitartez espresatu daiteke. Lengoia hasten denetik jakin daiteke.
- *Zazpi urte arte* “mutila naiz, baina heldua izango naizenean neska izango naiz” (edo aldrebes) baieztatu dezakete, baina horrek ez du ezer adierazten. Oraindik sexuaren kontserbazioaren kontzeptua ez da gainditu. (Mayor, 2018).

D) Pentsamendu abstraktua lortzean:

- Etapa honetan (11-12 urtetik aurrera) konturatuko dira gizarteak pertsonak kategoriatan sailkatzen dituela, eta beraiek ere honetan parte hartzen dutela (Landarroitajauregi, 2018).
- Batzuetan klasifikazio sexualak kolokan jarri ditzakete, Queer teoriarekin identifikatuz. Izan ere, asaldura-jarrera agertzen ohi dira, afektu edo laguntza eskatzeko bide izan daitezkeenak.

Jarraian Transexualitatearen errealitatean murgiltzeko, gidaren atal hau bi eremuetan banatu ditut: alde batetik Transexualitate kasu bat dela jakiteko oinarrizko irizpideak (eta honekin batera transexualitatea eta intersexualitatearen kontzeptuen azalpenak), eta bestetik, behin errealitate hau gure inguruan dugula, zer egin edo nola jokatu jakiteko oinarrizko aholkuak.

Transexualitate kasu bat dela jakiteko oinarrizko irizpideak honela adierazi dira:

- Argi eduki behar dugu “izan” edo “nahi izan” desberdinak direla. Askotan umeei “mutila izan nahi dut” (edo aldrebes) bezalako esaldiak esaten dituzte. Honetan ezin dugu baieztatu ume hori transexuala denik, izan ere, sarritan genero itzaropenak apurtzearekin zerikusia du. Honen adibidea neska batek futbolera jolasteko “yo quiero ser chico” esatea, baldin eta gizarteak futbola mutilarekin erlazionatzen badu eta horregatik emakume izategatik futbolera jolasten debekatzen badute; hau da, berak “mutila” izan nahiko luke futbolera jolasteko.

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

- Beraz, argi izan behar dugu neska edo mutil horrek “mutila naiz” edo “mutila izan nahi dut” esaten badu, hau da, nahi izan edo izan aditza erabiltzen badu. *Lehenengo pertsona singularrean* eta *izan* aditza erabiltzen badu, Trans* kasu baten aurrean egoteko aukera asko ditugu, hau horrela ez bada kasua aztertu beharko dugu, bestelako irizpideak kontuan hartuz (Mayor, 2018).

Hizkuntza jabetza lortu denean, esleitutako sexua ez bada identitate sexualarekin bat etortzen, adierazgarri hauek egon daitezke (Landarroitajauregi, 2018, 24.or):

- Familiarrei baieztatzea: “mamá, no soy una niña”.
- Behin eta berriz bere burua kontrako sexutzat hartzea: “no estoy sentado, estoy sentada”.
- Tratu zehatz bat eskatzea: “no me llames Álvaro, llámame Alba”.
- Batzuetan estereotipoak azaleratzen dira, aldarrikapen moduan: “de mayor me cortaré el pito y seré una niña”. Hauek baieztapen, eskaera edo exigentzia moduan aldarrikatu daitezke.

Segidan, esan bezala, transexualitatea eta intersexualitatearen kontzeptuak definitu eta bereizi dira, galdetegian islatuta geratu den bezala gizartean bi kontzeptu hauen nahasketa egiten delako. Intersexualitatea definitzeko bi ikuspuntu kontuan hartu dira: alde batetik, LGTBI siglek adierazten duten eran, eta bestetik ikuspuntu sexologikotik:

Transexualitate eta intersexualitatea kontzeptu desberdinak izan arren, askotan desberdintzen ez diren horiek dira. *Transexual pertsonak* ez dira definitzen “sexu aldaketa” (genitalei erreferentzia egiteko) egiten dutelako, baizik eta jaiotzean esleitutako kategoria sexuala aldatzen dutelako (Landarroitajauregi, 2018, 27. or.). Hau da, jaiotzean esleitutako sexua ez da beraien identitate sexualarekin bat etortzen, beraz, esleitutako sexua “emakumea” (edo aldrebes) izan arren, beraien identitate sexuala (“nor naiz ni”) gizona (edo aldrebes) da, eta beraz, gizonak (edo aldrebes) dira.

Bestetik, *intersexualitatea pertsona LGTBI sigletan oinarrituz*, gizarteak ezarritako “emakume” edo “gizon” genital normatiboak ez dituzten pertsonak dira, iraganean hemafrodita gisa ulertzen zena. Hauek emakumeei egozten zaien (edo aldrebes) nolakotasun fisikoak dituzte, eta kodigo genetikoak, aldiz, gizonezkoenak (edo

aldrebes). Egina ematen da gizonak XY eta emakumeak XX direla, ondorioz, askotan bi genitalak dituzten pertsonekin lotu izan dira (Máscolo. 2017).

Intersexualitatea ikuspegi sexologikotik eta Magnus Hirschelden eskutik, norbanako sexuatu guztiek bai maskulinoan bai femeninoan sexuatzeko direla dio (gogoratu, ikuspegi sexologikotik ez dagoela genero eta sexuaren arteko desberdintasunik); hau da, guztiek neurri handiago edo txikiago batean ezaugarri maskulinoak zein femeninoak dituztela. Horrela ba, konbinazio honek norbanakoen artean desberdinak baina era berean antzekoak egiten ditu, guztiak aniztasun sexualaren parte baitira (Mayor, 2018).

Bestetik, arestian aipatu den bezala, transexualitate kasu batean aurrean zer egin jakiteko oinarritzko pausuak aipatu dira:

- *Errealitatea onartu, eta zure ikaslea, seme-alaba entzun, maitatu, onartu.*
- “Betaurrekoak aldatu”: neska ikusten zenuen umea mutila (edo aldrebes) da, berak jakin behar du zuk onartzen duzula, bera laguntzeko prest zaudela.
- Izenaren garrantzia: ume batzuek ez dute arazorik bere izenarekin (Markel izan eta neska izan). Hala ere, batzuetan arazoak egon daitezke eta hauek izen aldaketa nahi izatea. Horretan *beraiek nahi duten izenarekin deituko duzu.*
- *Arreba-anaien garrantzia*, laguntza garrantzitsua izan daitezke, eguneroko bizitza gelan ere ikustarazteko (hamaietako orduan edota urtebetetze egunean anai-arrebak klase berdinean egon daitezke, tutoreak beste geletako lankideei aurretik esanda).
- *Bere egoeran dauden bestelako umeak ezagutzea* onuragarria izan daiteke, berdinekiko lankidetzak sustatzeko, eta era berean, bere egoeran dauden pertsonak ezagutzeko.
- Baita ere egoera honetan dauden *familiak* ezagutzea garrantzitsua izan daiteke, bai ikaslearentzat, bai bere guraso edo familiarentzat. Horrela ba, berdinen arteko gizarte harremanak bultzatuko dira, eta hauen arteko lankidetzak zein informazio trukaketa sustatuko dira.
- Zikloko familiei formakuntza eman arren, garrantzitsua izango litzateke *eskola osoak honetan parte hartzea*, ikasle hori eskolaren parte, eta beraz, gizarte eta komunitate baten parte delako. Inklusioa lortzeko oinarritzko pausua izan

beharko litzateke. Hala ere, ikasle horrek Nafarroako 8/2017 Foru Dreketuan, berdintasun soziala LGTBI+ pertsonentzat 4.Artikuluaren oinarrituz, pribatutasun osoa izango du bere identitate sexuala publikoki ez helarazteko.

AMIA analisia egiterakoan, protokoloak Transexualitate kasuetarako baliabide edo elkarterik errazten ez duela aztertu nuen, oso lagungarria izan daitekeen baliabidea dena. Beraz, hutsune honi soluzio bat eskaintzeko gidaren beste atal bat “elkarte / zerbitzu publikoak eta baliabideak” izatea asmoa izan dut. Elkarte eta zerbitzu publikoei dagokionez, aholkularitza, formazioa, babesa, aisiaren antolaketa, berdinen arteko gizarte harremanak, familiarentzako laguntza etab eskaintzen dituzten horiek bertaratu ditut, hala nola, Harrotu, Kattalingune, Chrysallis, AET eta Naizen. Hauek guztiak Nafarroan kokatzen diren elkarteak dira, familia zein irakasleei eskuragarriagoak diren baliabideak izateko asmoz. Egia da AET (Asociación Española de Transexuales) Espainia mailan dagoen elkarte bat dela, baina informazio eta tresna baliagarriak eskaintzen dituen elkarte izanik, gidan jartzeko aukera interesgarria da. Honekin batera, Gizarte entitate, Hezkuntza Zerbitzuak eta Osasun Zerbitzuak eskaintzen dituzten hainbat baliabideen kontaktua eta informazioa bertaratu dira:

- *Gizarte entitateak:* Itxaropenaren Telefonoa (Krisi une batean pertsona eta familiei laguntza eskaintzen duen entitatea), Goizargi Elkarte (Dolu momentuan dauden pertsonen laguntza eta aholkularitza ematen dute, jarduera desberdinen bitartez), Sexualidad y discapacidad (Estatuko entitatea, desgaitasunen bat duen pertsona orori aholkularitza, laguntza eta heziketa sexuala eskaintzen duena).
- *Hezkuntza zerbitzuak:* Bizikidetzarako aholkularitza (Irakasleak, ikasleak eta familiak orientatzea eskolako gatazkak konpontzeko gaietan, berdinen arteko jazarpenean, eta bizikidetzaren planetan eta antzeko beste alderdi batzuetan)
- *Osasun zerbitzuak:* Transbide (Pertsona transexualen, transgeneroen eta intersexualen arreta hobea bermatzeko unitatea).

Honekin batera hainbat argitalpen interesgarri gidan txertatu dira, irakurlea interesatuta badago, honen inguruan gehiago jakiteko baliabide gisa:

- Nafarroako transexualei laguntzeko eta arreta emateko gida-liburua (erakundeen eta elkarteen baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen duen gida).
- Nafarroako Hezkuntzako protokoloa transexualitate kasuetarako.
- Avances en la comprensión y el acompañamiento de la transexualidad infantil liburua.

Gidak duen beste atal bat alderdi juridikoa da, familia zein irakasleei oso baliagarria eta ezinbestekotzat suertatu ahal zaien alderdia dena. Horretarako, alde batetik Nafarroako Osasunbide zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuak eta aldi berean transgenero eta transexual pertsonen dituzten eskubideak bertaratu dira. Bestetik, administrazio sailean transgenero eta transexual pertsonen dituzten eskubideak, hala nola, izen-aldaketaren egoera zein den, azaldu da.

Azkenik, glosategia txertatu da, hartzaileei kontzeptuak ahalik eta argien eta ulergarrien azaltzeko. Aipatzekoa da Harrotu eta Kattalinguneren laguntzarekin hau osatu dudala:

- *Esleitutako sexua*: jaiotzean jaioberriari izendatzen dioten sexua, genitalen arabera izendatuta: bulba edukiz gero, neska eta zakila edukiz gero, mutila.
- *Kategorizazio sexuala*: kanpotik, gizarteak eraikitako klasifikazio sexuala.
- *Kondizio sexuala*: alderdi intrintsekoa eta estrintsekoa sailkatu ditzakegu, hauek biek pertsona baten kondizio sexuala osatzen dute; bigarrenak kanpotik gizarteak banako bakoitzari esleitutako kategoria sexuala (emakume edo gizon) da, eta barnekoa, aldiz, norberak bere buruari egiten dion sexu esleipena. Adibidez, Ni emakumetzat hartzen dut nire burua, baina munduak (gurasoak, lagunak, telebistako irudiak, liburuak... kanpoko faktoreek) kontrakoa esaten dit, nik emakume naizela momentu batean argi izan banuen ere. Hori dela eta, barne kategorizazioa Identitate sexualaren parte bat da, baina ez bakarria, hori bai, garrantzitsuena, izan ere, horretan arreta ipintzen badugu eta ez izan behar lukeen horretan, kanpo kategorizazioak indarra guztiz galduko luke.
- *Sexua (Izatea)*: emakume eta gizonei egiten die erreferentzia, baina pertsona bakoitzak gizon edota emakume izateko duen modu partikularrari.
- *Sexuatzeko prozesua*: jaiotzetik eta bizitza osoan zehar emakume edo gizon moduan eraikitzeko prozesuari dagokio.

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

-
- *Trans*(Pertsona)*: Transexualitate, transgenero eta aniztasun sexual osoa bere baitan hartzeko, kategorizatu gabe, aukera infinituei arrera emateko.
 - *Transexualitatea*: Pertsona batek sentitzen duen sexua esleitu zaion sexuarekin bat ez datorrenean.
 - *Transgenero (Pertsona)*: genero ikuspegitik (eta ez ikuspegi sexologikotik) pertsona batek sentitzen duen rola edo ezaugarriak gizarteak inposatutako ezaugarriekin bat ez datorrenean.
 - *Intersexualitatea (Pertsona LGBTI sigletan agertzen denean)*: gizarteak ezarritako “emakume” edo “gizon” genital normatiboak ez dituzten pertsonak dira.
 - *Intersexualitatea (Oinarri moduan ulertuta)*: ikuspegi sexologikoari erreferentzia eginez, denok intersexualak gara, hau da, denok ezaugarri femenino zein maskulinoak ditugu.
 - *QUEER (Pertsona)*: sexualitatearen arau hegemonikoekin bat egiten ez duen pertsona. Heteronormatibitatearekin amaitzeko, queer mugimenduak bazterretako sexualitateak aldarrikatzen ditu, betiere sexua, arraza eta klasea kontutan hartuz (Kattalingune, s.f.).

Transexualitate definizioari jarraiki hizkuntzaren erabilpen egokia bermatzeko glosategian beste atal bat egin da, edozein kasu izanda, gizarteak askotan egiten duen hizkuntza erabilpen okerra azaleratu eta hau zuzentzeko asmoz (Mayor, 2018):

- Ez da “mutila” (edo neska) okertutako gorputzean.
- Ez da neska izan nahi duen “mutila” (edo aldrebes).
- Ez daude “emakumezkoen genitalak” eta “gizonezkoen genitalak”.
- Pertsona transexualek ez dute hirugarren sexua (emakume, gizon eta transexualak). Pertsona transexuala emakumea edo gizon izango da.
- Ez da “sexu biologikoa”, baizik eta “esleitutako sexua” .
- Ez da “sexu-operazio aldaketa”, baizik eta “genitalen morfologian aldaketak egiteko operazioa”.

3.3.4.2. Irakasleei zuzenduta. Proposamen didaktikoa

Gidaren bigarren atala ikasle-irakasleei zuzenduta dago. *Transformazio txokoa* deitutako atal honetan planteatzen den txokoa edozein etapan planteatu daitekeen proposamena da, beti ere, ikaslearen adina eta ikasle mota zein den kontuan hartuz. Baliabide didaktiko honen bidez, Nafarroako Transexualitate kasuetarako dagoen Hezkuntza protokoloaren aurrean AMIA tresnaren bitartez detektatutako eta galdetegiaren bitartez baieztatutako hutsunea osatzen saiatu naiz: irakasleek sexualitatea eta honen barne Transexualitatea gelan jorrazteko baliabide didaktikoa eskaintzea.

Eta osoan zehar, zikloka eta proiektuka planteatzen den txokoa da, non Transexualitatea era zeharka batean, gainerako identitate sexualekin batera landuko den. Hau da, Protokoloak Transexualitate kasu batean zer egin azaltzen du, baina era goiztiar batean ez du irakasleei honen inguruko oinarrizko kontzeptuak edota gelan era natural batean planteatzeko baliabiderik eskaintzen. Beraz, txoko honen bitartez, irakasleei baliabide didaktiko hau eskainiko zaie.

Transformazio txokoa era eraginkorrean aurrera eramateko hiru puntu kontuan hartu behar dira: alde batetik, ikaslearen adina eta garapena. Bestetik, ikaskuntza esanguratsua izatea. Eta azkenik, adimen exekutiboa garatzea, horretarako, ikasleen gaitasunak (psikomotorrak, komunikatiboak, sozialak, afektiboak eta kognitiboak) kontuan hartuko dira, jarduerak gaitasun ezberdinetatik landuz gero, irakasleek inkontzientean dutena kontzientera pasatzeko aukera izango dutelako.

“Transformazio txokoa” izendapena hautatu dut hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, txokoak ikasleak eta irakaslea une eta espazio batean elkartzeko guneari erreferentzia egiten dio. Bestalde, “Tranformazio” hitzak bi esanahiengatik hautatu dut: batetik, “trans” hitzak etimologikoki “beste aldean” edo “-n zehar edo bidez” esan nahi du, eta era berean, Gradu Bukaerako Laneko gaiari erreferentzia egiten dio: transexualitatea. Hortaz, “Transformazio txokoa” ikasleekin batera / bidez transformatu eta formatu nahi duen txokoa da.

Hezkuntza sexualak hainbat alderdi bere baitan hartu arren, txoko honetan planteatu eta praktikara eraman diren bi alderdiak honakoak dira:

- Giza garapena: honen barruan identitate sexuala landu da.

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

-
- Baliabide pertsonalak: komunikazioa, negoziaketa, autokontzeptua eta autoestimua.

Honen bidez, hainbat xede lortu nahi izan dira:


- Identitate sexual askea eta anitza eraikitzea.
- Transexualitatearen errealitatea era natural batean lantzea, identitate sexualaren parte, etiketatu gabe, baizik eta era zeharka batean eta gainerako identitate sexuarekin batera hau lantzea.
- Ikasleen arteko errespetuzko eta berdinen arteko erlazio sozio-afektiboak garatzea.

Baliabide didaktikoa aurrera eramateko, hein handi batean eredu kurrikular sozio-kritikoan oinarritu naiz (baita ere humanista ikuspegiko hainbat irizpide oinarritzat edukiz), helburua ikasleek errealitatearen kontzientzia eta ezagutza kritikoa izatea baita. Horrenbestez, ikasleei ulermenerako eta ekintzak eraginkortasunez burutzeko tresnak eskaintzea nahi izan dut.

Helburua ikasleen ezagutza aberastea izanik, errealitatearen ikuspegi konplexu eta kritikoago bat eskainiko zaie, honen parte-hartzaile aktibo eta jabe izan daitezen. Proposatutako eredu kurrikularra, eredu eraikitzaile eta emantzipatzailea izateaz gain, izatez, independentea ere bada, hots, ikasleen autonomiaren garapena bultzatzen du.

Hau bermatzeko, ikaslearen rol aktiboa ezinbestekoa izanen da, ezagutza eta ulermena gertakarien ikaskuntzatik at doazelarik. Etengabeko hausnarketaren, gogoeten eta hezkuntza praktikaren bitartez errealitatearen inguruko gogoeta egitea bilatuko da. Era berean, irakaslea ikaskuntza egoera hauen bultzatzailea izanen da, ariketak eta hausnarketak bideratuko dituelarik. Haatik, ez du ezagutza transmitituko, ikasleen eginbeharra izanen baita eraikitzea.

Beraz, hau aurrera eramateko, Maslow piramidean oinarritu naiz. Hori abiapuntutzat hartuta hirugarren ziklorako proiektua aurrera eraman dut.



17. Irudia. Maslow piramidea

Kurtso eta ziklo osoan zehar aurrera eraman nahi den baliabide didaktikoa izanik, Maslow piramideak pertsona orok ditugun beharrak lantzea helburua du, honen barnean, arestian esan bezala identitate sexuala dagoelarik.

Praktika aldiaren Transformazio txokoa aurrera eraman dut, ondoren adieraziko den bezala, behar fisiologikotik hasita. Ideia errenkada bakoitzean behar den denbora, era sakon eta esanguratsuan ikasleekin lantzea da.

Hortaz, txokoari hasiera emateko, ikasleak motibatze saioa (III. ERANSKINA) planteatu behar da. Esate baterako, irakasleak gelan txokoa sortu dezake, ikasleek honen berri izateko eta era berean kuriositatea pizteko. Hasierako saioan irakasleak txokoaren zergatia, Maslow piramidearen zergatia, historia etab. azalduko du.

Honetan oso garrantzitsua da ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzea: hauek dituzten hipotesiak entzutea eta elkarbanatzea. Hau lortzeko *hezkuntza kontratua* idatzi daiteke guztien inplikazioa eta gelan egon beharreko arauak zehazteko. Horrela, ba, modu honetan beraien erabakiak hartzeko gaitasuna garatuko dute eta dituzten nahiak eta beharrak identifikatzen ikasiko dute. Prozesu honetan, arauak eta ondorioen ezarpena ezinbesteko lana da, limiteak finkatuz. Zentzu horretan, haurrek euren erabakiak

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

hartzen eta ondorioak onartzen ikasiko dute, beren autogestioa eta autonomia garatuz.

Gainera, jarduera hauetan guztietan ezinbestekoa izanen da erabiltzen diren ariketa eta materialen bidez ikaslearen asertibitatea bultzatzea, modu horretan adierazkorra izanen delako eta bere nahiak eta eskubideak defendatzeaz gain gainontzeko pertsonekin harreman egokiago bat sortuko duelako (Trebol, 2018).

Hau behin finkatuta, lehenengo errenkadatik, behar fisiologikotik hasi beharko ginateke. Errenkada hau gaur egun pil-pilean dauden gaiekin lotu daiteke: gerrateak, krisi-ekonomikoak, errefusiatuak... baita ere iragana edota historia lantzeko aukera ematen du.

Bigarren errenkada, hots, segurtasuna, lehenengo errenkadarekin estuki lotuta dago, beraz, bi errenkada hauek batera jorratzeko eta ikasleek hausnarketa egitera bultzatu ahal duen aukera da.

Nire kasuan, lehenengo bi errenkadak momentu horretan lantzen ari zuten gaiarekin lotu nituen: Europa gaiarekin. Horrela ba, hasiera batean joko txiki bat egin genuen, oinarritzko beharrak zeintzuk ziren ulertzeko: isilean (begiak itxita) beraien egunerokoan beharrezkoa zitzaien gauza batean (minimo) pentsatzea eskatu nien. Behin ideia buruan zutela, posit bat eman nien ideia orrian idatz zezaten. Jarraian bakoitzak idatzitako beharra zegokion orrian (klaseko espazio osoa hartuz bi orri jarri nituen ondorengo esaldiekin: 1)Behar hau bizirauteko beharrezkoa da, 2) Behar hau ez da bizirauteko beharrezkoa) kokatzea eskatu nien. Horrela, jarraian denen ideiak / beharrak ozen aipatu eta aztertu genituen. Hau eginda, debatea sortu zen munduko beste hainbat lekutan zuten egoera sozio-ekonomikoaren inguruan. Hau ikusita, bi bideo jarri nizkien, bat Espainian egindakoa (krisi ekonomikoak hurrengan izan ditzakeen ondorioak azalduz) eta bestea Grezian egindakoa (gizarteak pertsona bat egoera sozio-ekonomiko batean edo bestean ikustean izan ditzakeen jarrerak adierazten zuena). Hau behin ikusita, behar fisiologikoak, hau da, bizirauteko beharrezkoak direnak edonork munduko edozein lekutan ez duela zertan ase izan behar ulertu zuten. Eta honekin batera, segurtasunaren ideia (Maslowen bigarren

errenkada) atera zen, izan ere, behar fisiologikoa ase ez badago, segurtasuna (familiarra, lanbidea...) ez da bermatuko.

Lehenengo bi errenkadak era orokorrean eta ikasleak txokoan murgiltzeko aukeratzat hartu nuen (IV. ERANSKINA), sakondu gabe. Izan ere, denbora-falta eta baliabide hau urte osoan lantzeko tresna izanik, Gradu Bukaerako Lanaren gaia era sakonago batean landu nahi nuen: identitate sexuala.

Identitatea lantzen hasi baino lehen, erlazio afektibo osasuntsuak lantzea egokia legoke (V. ERANSKINA), ondorengo hausnarketak eta sortzen diren ikuspuntuak sakonagoak eta esanguratsuagoak izateko. Horretarako, aurreko saioan landutakoa (behar fisiologiko zein segurtasuna) afiliazio kontzeptuarekin lotu nuen. Hortaz, hasiera batean bideo baten lanketa egin genuen, ondorengo dinamika batekin (gometsen dinamika) lotzeko eta bideoan agertzen ziren umeen sentsazioak eta emozioak ulertzeko bide izango zena. Jarduera amaitzeko “gu balantza gara” dinamika egin genuen, helburua, esan bezala erlazio sozio-afektiboak eta lankidetzaz bezalako kontzeptuak jorratzeko.

Hau behin lantzen delarik, norbanakoaren onarpena jorratzeko aukera dago (VI. ERANSKINA). Horretarako, lehenik eta behin, unibertitatean egindako dinamika bat, “ispiluaren dinamika”, erabili zen: kaxa baten barruan ispilua jarri eta ikasleek banaka kaxa ireki eta beraien aurpegia ikustea. Dinamika hau aurrera eramateko, motibazio-sarrerara bat behar da, hala nola, eskutitz bat, norbaitek opari hau eman eta beraien elkarbanatu nahi dugula esanez. Oso garrantzitsua da jarduera honen bitartez sortzen diren ondorioak eta iritziak kontuan hartzea, ikasle bakoitzak duen autoestimua eta bere buruarekiko duen maitasunaren inguruko informazioa helaraziko baitu. Jarraian “sarearen dinamika” proposatu nuen, honetan ikasle bakoitzak bere nolakotasun positibo eta negatibo bat esan behar zuen. Hau esanda, artilearen punta hartu eta ikasle bati artilezko bola jaurti behar zion. Dinamika hau taldeko ikaskide guztiekin egin zen, denen artean artilezko sare erraldoi bat sortuz. Azkenik “fokua ni naiz” jarduera aurrera eraman nuen: hiruko taldeak sortu nituen. Bakoitzetik bat fokua izango zen, eta gainerakoek fokuari nolakotasun positibo zein negatiboa idatzi beharko zioten. Hau taldeko kide guztiekin egin zen.

Hiru jarduera hauen bidez, norbera maitatzeko garrantzia, eta honekin batera, pertenezaren kontzeptua landu ziren. Hau eginda, talde batean edo pertsona baten lankidetzaren garrantziaz eta askotan nolakotasun negatiboak gure buruari esateko erraztasun gehiago dugula bezalako hausnarketak atera ziren.

Behin hau eginda, identitatearen kontzeptua sartu daiteke, horretarako, oso garrantzitsua da hausnarketa ondorengo ideiarantz bideratzea: gure beharretako bat erlazio sozio-afektibo osasuntsuak izatea da, baina hortaz, ezinbestez gure burua maitatu eta garen bezala onartu behar gara.

“Gure burua maitatu eta garen bezala onartzea” esaldi arras garrantzitsua. Identitate sexuala kontzeptuarekin hasteko ezinbestekoa. Horretarako, oso egokia izango litzateke “emakume heldua, neska, gizon heldua eta mutila” deskribatzea (VII. ERANSKINA). Hau egiteko, arestian esan bezala, motibazio jarduera egin behar da. Nire kasuan Marteko estralurtarrek bidalitako mezu bat irakurri nien, beraiek Lurrean zeuden pertsonak ezagutu nahi zituztela esanez, eta horretarako, emakume eta gizonen desberdintasunak zeintzuk ziren jakin nahi zuten. Hau egiteko, taldeka banatu eta talde bakoitzak esleitutako pertsona (emakume, gizon, neska edo mutila) deskribatu zuen. Oso garrantzitsua da irizpide batzuk akordatzea (orri bat eman ahal zaie deskribatu behar dituzten irizpideak zeintzuk diren jakiteko, eta era berean beraiek zer egin behar den argiago edukitzeko). Jarduera hau aurrera eramatean, gizartean dauden estereotipo edo iritziak azaleratuko dira; esate baterako, neskek bulba eta mutilek zakila dute. Sexua ateratzen den momentuan oso garrantzitsua da honako ideia azaleratzea, identitate sexuala lantzeko hastapena baita.

Hori abiapuntutzat hartuz, “Niñas y Niños. Cada Una Cada Uno Diferente” Mayor Aingeruk idatzitako liburua baliabidetzat hartu nuen. Honetan ume desberdinen irudiak agertzen dira. Hauek hartu eta ikasleei ume hauek deskribatzeko jarduera eskaini nien, deskribatzeko irizpideak ondorengoak izanik: “idatz/ deskribatu ezazue argazkian agertzen den umearen sexua, gustuak eta fisikoa”. Hau behin eginda, ume horrek bere buruaz esaten zuen deskribapena irakurri nien. Era honetan neska eta mutil asko, bakoitza bere modura existitzen direla ohartu ziren, batzuk neska bulbadunak, eta beste batzuk neska zakiladunak (eta aldrebes). Baita ere mutila eta soinekoa daramana, edota mutila eta futbola gustuko duena. Era labur batean esanda,

neska eta mutiko asko agertzen dira, bakoitza bere erara. Horrela ba, era zeharka batean transexualitatea landu genuen, eta honekin batera gainerako identitate sexualak, denak era natural batean eta errealitatearen parte bezala.

Ikasleek errealitatearen ikuspegi konplexu eta kritikoagoa lortzeko hauen parte hartze aktiboa egon behar da. Beraz, hauek egiten dituzten hausnarketen arabera hurrengo saioa planteatuko da. Kasu honetan beraiek “autobus naranja” albisteaz hitz egin zuten. Beraz, ideia hau hartuta munduan dauden kasu transfobikoak aztertu genituen. Baita ere, Maslow piramidera bueltatuz, klase sozialen eta emakume eta gizonen arteko berdintasun ezaren inguruan aritu ginen. Amaieran, beraien etorkizuna taldeka (launaka) irudikatzea eskaini zitzaion. Horretarako, kartelak zein lapbook³ak (Hermoso de Mendoza, 2012) landu zituzten (VIII. ERANSKINA).

Azkenik, aipatzekoa da txokoan landu diren jarduerak aurrera eramateko oinarrizko zazpi gaitasunak kontuan hartu direla, irakasleek curriculumarekin lotzeko aukera eta erraztasun handiagoa edukitzeko (Ibaizabal, s.f.):

- *Hizkuntza komunikazioa*: Gaitasun honetan erreferentzia egiten zaio ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren erabilpenari, errealitatea adierazi, interpretatu eta ulertzeko, jakintza eraikitze eta komunikatzeko eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta auto-erregulatzeko egiten dena.
- *Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak*: Zenbakiak, horien oinarrizko eragiketak, sinboloak eta matematikaren alorreko adierazpenak eta arrazoiketak erabili eta erlazionatzeko trebetasuna da, informazio-mota ezberdinak ekoiztu eta interpretatzeko, errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazialei buruzko ezagutzak zabaltzeko eta eguneroko bizitzarekin eta lan-munduarekin zerikusia duten arazoak ebazteko.
- *Gaitasun digitalak*: Gaitasun honen muina da ikaslea informazioa bilatzeko, lortzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko eta ezagutza bihurtzeko gai izatea. Trebetasun ezberdinak barne hartzen ditu: informazioa lortzetik hasi eta, behin tratatu ondoren, euskarri ezberdinetan transmititzera arte iristen da. Bertan

³ Lapbook: praktika didaktiko plastikoa da, oinarria kartoi mehea edo kartoia dena. Edozein gai aurkezteko balio du (Hermoso de Mendoza, 2012).

sartzen da ere informazioaren teknologien erabilera eta komunikazioa, informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko funtsezko elementu gisa.

- *Ikasten ikastea*: Ikasten ikasteak esan nahi du ikasten hasteko trebetasunak izatea eta geroz eta eraginkortasun eta autonomia gehiagorekin ikasten jarraitzeko gai izatea, norberaren helburuei eta beharrei jarraiki.
- *Gaitasun sozial eta zibikoak*: Gaitasun honek posible egiten du bizi den gizartearen errealitatea ulertzea, lankidetzan aritzea, bizikide izatea eta herritartasun demokratikoa garatzea gizarte anitz batean. Halaber, gizarte hori hobetzeko konpromisoa hartzea posible egiten du. Bertan sartzen dira 10 hainbat ezagutza eta trebetasun konplexu, parte hartzea, erabakiak hartzea, egoera jakin batzuetan nola jardun aukeratzea eta hartutako erabaki pertsonalez arduratzea ahalbidetzen dutenak.
- *Ekimena eta ekintzailtza*: Gaitasun honek, batetik, elkarren artean lotura duten balio eta jarrera pertsonalez jabetzeari eta horiek aplikatzeari heltzen dio; adibidez: erantzukizuna, pertseberantzia, norberak bere burua ezagutzea eta autoestimua, sormena, norberak bere buruari kritika egitea, emozioak kontrolatzea, aukeratzeko trebetasuna, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egitea, gogobetetasuna berehala asetzeko beharra luzatzeko aukera, akatsetatik ikastea eta arriskuak hartzeko gai izatea.
- *Kontzientzia eta adierazpen kulturalak*: Ingurune fisikoarekiko elkarreraginei erreparatzen die gaitasun honek, hau da, ingurune fisikoaren alderdi naturalei eta gizakien ekintzaren ondorioz sortutakoei. Hala, gaitasun honek aukera ematen du gertakariak ulertzeko, gertakarien ondorioen aurreikuspenak egiteko, eta norberaren eta gainerako pertsonen eta izaki bizidunen baldintzak hobetzeko eta kontserbatzeko jarduerak egiteko.

3.3.5. Transformazio txokoan esku-hartzeko aukeratutako ikuskerak

Como anteriormente se ha explicado, las perspectivas utilizadas son la humanista y la socio-critica.

Por una parte, se puede decir que tiene una perspectiva humanista, puesto que las dinámicas realizadas en dicho rincón están estrechamente relacionadas con los

sentimientos y emociones: se ha escuchado en todo momento al alumnado y se han trabajado constantemente las relaciones sociales saludables, con el objetivo de elaborar de una manera significativa la identidad sexual. Además junto a la perspectiva socio-crítica el alumnado ha tenido una participación activa, en la que se han impulsado enseñanzas entre iguales.

Por otra parte, con dichas dinámicas se ha querido promover el comportamiento del alumnado, y a su vez, estimular y motivar a este. Pero también se ha impulsado un alumnado que participe en la sociedad teniendo una perspectiva crítica y transformadora. Para ello desde un problema (en este caso las necesidades de cada persona) se ha ido construyendo y aprendiendo una realidad de la sociedad (diversidad de las identidades sexuales), y también soluciones o perspectivas críticas ante ello.

3.3.6. Transformazio Txokoaren ebaluazioaren proposamena. Nola ebaluatu

Antes de iniciar el proyecto se deberán aplicar indicadores de capacidades o dificultades en el alumnado. Entre ellos se tendrá en cuenta el tono de voz, el lenguaje no verbal, también las señales endógenas y exógenas del alumnado, las cuales se valoraran mediante una evaluación continua (Trebol, 2018).

- Observación: con esta herramienta, se analizará lo que ocurra en el aula y será registrada la información más importante, mediante tablas o fichas de observación. Para que sea una observación eficaz, será muy importante hacer un buen registro de información.
- Utilizar un buen tono de voz (frecuencia de onda): Los niños / niñas, sobre todo cuando son pequeños, entienden las cosas por el tono de voz, y no por que comprendan el idioma en su totalidad.
- Se debe llevar a cabo una evaluación continua: Sería conveniente llevar un registro de todas las sesiones.
- Se tendrán en cuenta el lenguaje no verbal, y la información obtenida mediante ello.
- Se tendrán en cuenta las características endógenas que no estén a la vista. Estas señales son síntomas personales o de comportamiento.

-
- Se tendrán en cuenta las señales exógenas que estén a la vista. Son señales que están en el entorno y afectan a la persona. Por ejemplo, el tiempo es una característica / señal exógena, que hace que en el invierno por el frío los alumnos / alumnas puedan estar más inquietos.

Por otro lado, otro criterio de evaluación en las actividades realizadas en *Transformazio txokoa* son las experiencias obtenidas mediante la creación de grupos de debate o de trabajo en grupo. Ciertamente, es necesario el desarrollo de ciertas capacidades para tener adecuadas relaciones sociales, como son la afectividad y la empatía. Trabajar estos dos campos es importante para que los niños y niñas tengan en cuenta las opiniones del resto y por consecuencia para lograr una mejora en sus relaciones (Trebol, 2018).

Con todo esto, se tiene que decir que el profesorado no solo tiene que evaluar al niño/niña. El profesorado mediante distintas técnicas, además de valorar el proceso de desarrollo-enseñanza del alumnado, tendrá en cuenta las técnicas de evaluación como son la autoevaluación y la coevaluación.

La primera es la evaluación que una persona hace de ella misma (López, 2005). Para hacer la autoevaluación del alumno / alumna se pueden realizar actividades con el fin de conocer sus pre-conocimientos. Además al final de cada tarea se pueden crear pequeñas rúbricas o autoevaluaciones para que puedan evaluarse a sí mismos. En mi caso, la autoevaluación la hicimos en asamblea, con el objetivo de saber cuáles eran sus conocimientos antes de trabajar el tema. Del mismo modo, tenía en cuenta el *feedback* y la reflexión que hacían al finalizar cada actividad.

La autoevaluación no solo está dirigida a los alumnos / alumnas; también es herramienta para valorarnos como profesores / profesoras: teniendo en cuenta los objetivos propuestos y una vez terminado el proyecto los logros obtenidos. En mi caso, tuve en cuenta los objetivos propuestos en *Transformazio txokoa*, con el objetivo de realizar una valoración personal. Además escuche las opiniones y las sensaciones del alumnado, para obtener una valoración y así poder realizar una mejora del trabajo.

El segundo tipo de evaluación mencionada, coevaluación, hace referencia a la evaluación que se realiza entre iguales (López, 2005). Teniendo en cuenta que muchas

actividades propuestas eran en grupo, el proceso de coevaluación se realizó de esta manera.

Heteroevaluación es cuando la familia o un individuo / individuo externa valoran el proyecto (Lacarra, 2019). En mi caso no utilicé dicha herramienta, pero cabe mencionar que se utiliza en muchos proyectos.

Todas estas evaluaciones son herramientas que se pueden tener en cuenta a la hora de realizar un proyecto. Existen muchas razones pedagógicas para animar al alumnado a que participe en el proceso de evaluación (López, 2005).

Por un lado, la implicación y participación del alumnado puede repercutir en una mejora en el aprendizaje y en los procesos educativos realizados. De esta manera, los y las estudiantes tendrán constancia de los contenidos propuestos para el proyecto. Además, mediante este tipo de evaluaciones, se logrará un análisis crítico. Así pues, son estrategias para mejorar como profesor / profesora o alumno / alumna y para ser consciente de las debilidades y fortalezas del trabajo. Por eso, las herramientas como autoevaluación o coevaluación sirven para valorar y mejorar un trabajo.

ONDORIOAK

93/2008 FORU LEGEA, ekainaren 13a, Nafarroako Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zentroetan aniztasunari arreta emateari buruzko 2. artikuluan dioenez, hezkuntza sistemak ikasleagoaren aniztasunari erantzun behar dio, normalizazioa, konpentsazioa, berdintasuna, ekitatea, integrazioa eta inklusioa bermatuz.

Hau horrela izanik, aniztasun sexualaren normalizazioa eta inklusioa hezkuntza komunitate osoan bermatu behar den eskubidea da. Gradu Bukaerako Lanean aipatu den bezala, aniztasun sexuala XIX. eta XX. mendeko klasifikazio, arau eta identitate kontzeptuen haustura da, non sexualitateak gero eta indar handiagoa duen (Halberstam, 2018).

Horiek horrela 2015an aurkeztutako Nafarroako transexualitate kasuetarako hezkuntzako protokoloaren bidez transexualitatearen errealitateak izandako aurrerapauso ikusgarria antzeman dut. Protokoloan aipatzen den neurrietako bat honako hau da: *ikastetxean sexuaren arabera instalazioak baldin badaude, hala nola komunak eta aldagelak, gainerako ikasleekin gertatzen den bezala, transexualitate-egoeran dagoen adingabeari bermatuko zaio berak sentitutako sexuari dagozkion instalazioetan sartzea eta haiek erabiltzea.*

Aipatzen ez den neurrietako bat komunak sexuaren bitartez bereizi beharrean zenbakien bitartez egitea da. Egia da, aniztasuna kudeatzeko neurri bat eskolako antolamendua dela. Honetan gero eta eskola gehiagok zenbakien bitartez, eta ez sexuaren bitartez, komunak banatzen dituzte; bakoitzak duen identitate sexuala edozein izanda, komun batera edo bestera joateko aukera ematen da, berdintasuna eta askatasun sexuala bermatuz.

Rodellarren esanetan (2017) Maria Echebarria Sáenzek, Valladolideko zuzenbideko irakasleak, komun publikoek historian zehar izandako garapenaren inguruan hitz egiten du. Urteetan zehar jauregietan edota baserrietan pixontzi bakarra zegoen eta edonork erabiltzen zuen. Baina osasun politikak hasi zirenean eta hiri eta herri handienetan komun publikoak egiten hasi zirenean, erregimen totalitarioak indarrean zeudenez, emakume-gizonen bereizketa (baita ere komunetan) begi bistakoa izan zen. Geroztik, komunak sexuan arabera bereizita egon dira. Egia da gero eta eskola gehiagotan hau

aldatzen ari dela, baina zer esan gizarteko gainerako esparruetan? Ume transexual bat eskolan askatasun osoz komun batera edo bestera joateko premia eduki arren (teorikoki), kalera joan eta taberna bateko komunean, oro har, neska edo mutilzko komunekin topatuko da, genitalen arabera sailkatuak daudenak.

Kontuan hartu behar da Gradu Bukaerako Lana aurrera ateratzeko prestatutako / planteatutako helburuak eta galderak kontuan hartuz, eta Nafar Gobernuaren protokoloan identifikatutako ahulgunetik abiatuta, bai eta irakasleriaren gaiarekiko ezagutza maila zein den ikusteko prestatu den galdetegiaren bidez, irakasle gehienek hezkuntza sexuala eskola mailan lantzeko alde aurkeztu arren, hauen ezintasuna edo formazio falta islatuak geratu dira: emakumeen erdiak hezkuntza sexuala bere osotasunean lantzeko bere burua gai ikusi arren, soilik parte hartzaileen erdiak noizbait formakuntzaren bat jaso duela baieztatzen du, hiztegi eta kontzeptu nahasketak sortuz.

Hain zuzen ere, honako hau gizartean islatzen dela pentsatzen dut; ezjakintasuna da arazo handiena. Eskoletako ikasleen gurasoek, tabernetako langileek, okinek, gizarteko edozeinek gaiaren inguruan entzuten dutena soilik baldin badakite, ikasle hauen gizarteratzea alferrikakoa izango da. Chrysallis Euskal Herria elkarteko bozeramaile Bea Severrek, Maruriren hitzetan (2018), ohartarazi du eskoletan prestakuntza integratua falta dela, komunitateko kide guztiek jasoko dutena. «Ez du balio seme-alabei eskoletan neska zakildunak daudela azaltzeak, etxera joan eta gurasoek hori ezinezkoa dela esango badiote» (Sever, 2018).

Eskolak eta gizarteak eskutik helduta lan egin behar dute, elkarlanean, hain zuzen ere, arestian jarritako "komuna" adibidearekin lortu nahi nuen mezua izan dena. Irakasle moduan, gainerako irakasleen aurre ezagutzak antolatzen lagundu eta era berean gurasoak honen berri emateko proposamen didaktiko bat sortzea nahi izan dut. Gida bat non hezkuntza sexualaren oinarritzko kontzeptuak era simple eta ulergarri batean azalduak egongo den, eta era berean berdintasuna eta aniztasuna era egokian bermatzeko baliabide didaktikoa izango dena.

Hezkuntza sexualak giza garapena, erlazio sozio-afektiboak, baliabide pertsonalak, erotika, osasunarekin zerikusia duten gaiak eta gizartea eta kultura hartzen ditu bere

baitan. Irakasleek identitate sexuala, orientazio sexuala, generoa, eta intersexualitatea bezalako kontzeptuak argi edukiz gero, ez litzateke soilik hezkidetzaz bermatuko; ikaslearen identitate askea, harreman afektiboak, indarkeriaren identifikazioa, eta era berean etorkizunean kontzienteagoa den gizartea lortzea ahalbidetuko litzateke. Baina aldaketa edo transformazio hau bermatzeko irakasleen formakuntzan fokua jarri beharko litzateke, ondoren ikasleengan transformazio hau lortzeko.

Buru-hauste handiak sorrarazi dizkidan lanketa da, hain zuzen, gizarteak entzuten dituen baina menperatzen edo era sakon batean barneratuak ez dituen kontzeptuak direlako. Beraz, irakasle eta familiei zuzendutako gida eraikitzen egon naizen bitartean, pertsonalki nire burua formatu eta transformatu dut. Besteengandik aldaketa bat lortzeko lehenik eta behin norberaren burua aldatu eta transformatu behar da.

Hau lortzeko, praktika aldian Gradu Bukaerako Lanean planteatutako txokoa aurrera eramateko eskumena izan dut. Egia da, zertzeladak eta era orokorrean landu arren, txokoa praktikara eraman dudala, Transformazio txokoan planteatutako jarduerak landuz. Hau egitean, ikasleek identitate sexualaren inguruan dituzten aurre ezagutzak nahiko garatuak eta ezagunak dituztela antzeman dut. Irakasleek hizkuntza nahasketak izan arren, esate baterako genitalak emakume edo gizonekin erlazionatu arren, transexualitate bezalako gaiak errealitatearen parte eta era natural batean hitz egiteko gaitasuna dute. Horrela, ba, Gradu Bukaerako hastapena eta hipotesia are gehiago indartzeko balio izan dit; hots, arazoa irakasleen formakuntzan dagoela. Hau lortuz gero, ikasleak hezkidetzan bizitzeko estrategiak eta ezagutzak bertaratuko dizkiete. Baina esan bezala, lehenetsuna irakasle eta helduen ezagutzan jarri behar da: hauek dituzten beldurrak (gaia zaila edo polemikoa delakoan) eta ezjakintasunak landuz gero, eskola inklusiboago batean egoteko aukera izango dugu.

Izan ere, azkeneko ideari jarraiki eta *Gizarte inguruneari buruzko proiektu didaktikoak* deitutako irakasgaiari (Sainz, 2018) ikasi genuen bezala, eskolak ez du soilik sozializatu eta hezi behar baizik eta jarrera *autonomo eta erantzulea* izateko behar diren gaitasunen lorpena bultzatu behar du. Ikuspegi kritiko batetik eta ikaslearen nortasun eta sentimenduak errespetatuz zein irakasleak errespetatu beharreko metodologia eta diziplinaz abiatuta, ikasleak bizitzarako edo gizarte demokratiko batean bizitzeko prestatzea da.

Beraz, gako argi dago: eskolan gaia lantzea, edozein kasu izan baino lehen. Era natural eta errealtatearen parte den gai bezala hartuz gero ikasleekin batera ikasi eta formatu gaitzke. Baina egia da sexuatzeko prozesuan parte hartzen duten oinarritzko kontzeptuak (identitate sexuala, orientazio sexuala, generoa, intersexualitatea etab.) menperatu behar direla, ikaskuntza esanguratsua eta mitoetatik aldentzeko asmoz.

Honekin guztiarekin, alderdi zailenetako bat desikastea izan da; bizitzan zehar eskolan eta etxean identitate sexualaren inguruan ikasitakoa berriz berreraikitzea. Izan ere, betidanik genitalak sexuarekin lotu izan ditut. Gainera, ikaskuntza hau generazioz generazio transmititzen dela ikusi dut: ikasleak oztupo berdinarekin aurkitzen dira.

Hala ere, oso aberasgarri izan den Gradu Bukaerako Lana da, ikasleek pentsamolde aldaketa eta "desikasketa" egiteko gaitasun handiagoa dutela ikusi baitut. Gainera, ikasleei esker eskolan gai hauek are gehiago lantzeko jarrera transmititu didate, hauen motibazioa, inplikazioa eta gaia era natural eta eskubide gisa hartu baitute. Era berean, praktika aldi txokoa aurrera eramanez ondoren, are sakonagoa eta zentzu kritikoago batean lantzeko ideiak sorrarazi dizkit, esate baterako, eskolako egoera (estrukturala, soziala, testu-liburuak etab.) aztertzea identitate-aniztasun sexual oinarria izanda. Era honetan irakaslea gidari izango litzateke, irakasgaiak eta gaitasunak zeharka landuz.

Egia da, erabilgarria den gida bat sortu dudala, oinarriak Nafarroako hezkuntzako protokoloa transexualitate kasuetarako egindako AMIA analisian eta sortutako galdetegia izan dira. Gida didaktikoaren baitan esku-hartze didaktikoa dago, datorren kurtsuan geletan erabiltzeko prest dagoen Transformazio txokoa dena.

Gainera, Gradu Bukaerako Lanean egindako gida didaktikoarekin batera beste baliabide bat gehituko nuke, etorkizun batean sortu daitekeena: *Google Sites* bezalako aplikazioa erabilita web orrialde bat sortzea, irakasleei zuzenduta egongo litzatekeena eta gidarekin batera hainbat baliabide, pelikula, liburu etab. gehituko liratekeenak. Irakasleentzat sare moduko aplikazioa litzateke non gelan lantzeko jarduerak eta ideiak bertaratuko liratekeen.

Argi dago, gaia eskoletan lantzen ez bada, benetako eskola inklusiboa ezingo dela lortu. Nahiz eta aniztasunari erantzutea zaila dela uste, irakasleontzako betebeharra ere bada; beraz, gure jomuga.

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

CONCLUSIONES

Orden Foral 93/2008, de 13 de Junio, por la que se regula la atención a la diversidad en los centros Educativos Infantil y Primaria y Educación Secundaria de la Comunidad Foral de Navarra, en el artículo 2, afirma que la educación educativa debe responder a la diversidad del alumnado, garantizando la normalización, compensación, igualdad, equidad, integración e inclusión.

Siendo esto así, se debe garantizar el derecho a la normalización e inclusión de la diversidad sexual en toda la comunidad educativa. Como he señalado en el Trabajo de Fin de Grado, la diversidad sexual es la ruptura del siglo XIX y XX en cuanto a los conceptos de clasificación, norma e identidad, donde la sexualidad tiene cada vez más importancia (Halberstam, 2018).

Por eso, mediante el protocolo educativo ante casos de transexualidad presentado en 2015 en Navarra se ha notado el avance espectacular que ha tenido la realidad de la transexualidad. Una de las medidas que aparece en el protocolo es la siguiente: *Si hay instalaciones en el centro segregadas por sexo, como los aseos y los vestuarios, se garantizará el/la menor en situación de transexualidad (igual que al resto del alumnado) el acceso y uso de las instalaciones correspondientes a su sexo sentido.*

En esta última medida no se especifica, pero podría añadir la asignación de baños mediante números. Es verdad, que una medida para gestionar la diversidad es la organización de la escuela. En esto, cada vez más escuelas optan por nombrar los baños mediante números, y no por el sexo; así independientemente de la identidad sexual de cada uno/a, se da la oportunidad de ir a uno o a otro, garantizando la igualdad y la libertad sexual.

Según Rodellar (2017) Maria Echebarria Sáenz, profesora de Derecho en Valladolid, habla sobre el progreso que ha tenido el baño público durante la historia. Durante años en los caseríos o palacios había un solo meadero que cualquiera podía utilizarlo. Pero cuando entraron las políticas de sanidad y cuando se empezaron a construir baños públicos tanto en los pueblos como ciudades, y teniendo en cuenta que el régimen totalitario estaba en el poder, la brecha entre hombres y mujeres (también en el tema de los baños) fue evidente. Desde entonces, los baños han estado segregados

por el sexo. Es verdad que cada vez en más escuelas están cambiando este aspecto, pero ¿qué decir en los demás ámbitos? Aunque un niño o niña transexual pueda tener la total libertad (teóricamente) de ir a un baño o a otro en la escuela, al salir a la calle e ir a un baño de un bar, en términos generales, se encontrará con baños de hombres o mujeres, los cuales están clasificados por los genitales.

Se debe tener en cuenta que mediante los objetivos y preguntas preparadas / planteadas para llevar a cabo el Trabajo de Fin de Grado, y comenzando de las debilidades identificadas mediante el análisis hecho del protocolo del Gobierno de Navarra, y mediante el cuestionario preparado para saber los conocimientos del profesorado en cuanto al tema, se ha reflejado la actitud a favor para impartir la educación sexual en las aulas, pero también se ha visto la falta de formación de estos: aunque la mitad de las mujeres se vea capaz de impartir la educación sexual en su totalidad, solo la mitad de los participantes afirma que alguna vez ha obtenido alguna formación del tema. Como consecuencia de ello, tienen una confusión de vocabulario y conceptos.

Precisamente esto, pienso que está reflejado en la sociedad; el principal problema es el desconocimiento. Si los padres / madres del alumnado, si los trabajadores/ as del bar, si el panadero o la panadera, si cualquier persona de la sociedad solamente conoce lo que ha escuchado, la integración social de estos será en vano. Según Maruri (2018) Bea Sever, la portavoz de Chrysallis Euskal Herria, ha advertido la falta de cualificación integral en las escuelas. «No vale la pena explicar en la escuela al alumnado que existen niñas con pene y niños con vulva, si al ir a casa sus padres o madres les dirán que eso no existe» (Sever, 2018).

La escuela y la sociedad deben ir de la mano, trabajando en equipo, precisamente es el mensaje que se ha querido dar mediante el ejemplo dado de los “baños”. Como profesora, para ayudar a otros profesores/as a organizar los pre-conocimientos y a su vez para que sean capaces de dar dicha información a los padres y madres, he querido crear una propuesta didáctica. Una guía donde se explicarán los conceptos básicos de la sexualidad y a su vez, crear un recurso didáctico para garantizar la igualdad y la diversidad de una manera adecuada.

La educación sexual abarca el desarrollo humano, las relaciones socio-afectivas, los recursos personales, la erótica, temas relacionados con la salud, la sociedad y cultura. Si el profesorado tiene claro los conceptos como identidad sexual, orientación sexual, género e intersexualidad, no solo se garantizaría la coeducación; también la libertad de identidad sexual en el alumnado, las relaciones afectivas, identificación de la violencia, y a su vez, una sociedad más consciente en el futuro. Pero para conseguir este cambio o transformación se debe poner el foco en la formación del profesorado, para que así se pueda conseguir dicha transformación en el alumnado.

Es un trabajo que me ha causado incertidumbre, ya que son conceptos que son conocidos por la sociedad (TV, noticias, etc.), pero que no se dominan o no se tienen interiorizados. Es pues, que mientras he estado creando la guía dirigida al profesorado y familiares, personalmente he formado y transformado mi mente. Para conseguir un cambio en los demás, primero hay que cambiar y transformar la mente de cada uno/una.

Con este fin, he tenido la oportunidad de llevar a la práctica la propuesta didáctica planteado en el Trabajo de Fin de Grado, aunque haya sido de una manera global. En las prácticas, he llevado a cabo las actividades planteadas en *Transformazio txokoa*. Al hacer esto, me he dado cuenta que el alumnado tiene bastante conocimiento en cuanto al tema, aunque es verdad que tiene confusión de conceptos. Ejemplo de ello es la relación equivocada que hacen entre sexo y genitales, pero es verdad que el tema como la transexualidad la sienten como una realidad y tienen totalmente la capacidad para hablar de ello de una manera natural. Así pues, me ha servido para reforzar aún más el origen e hipótesis del Trabajo de Fin de Grado: el problema está en la formación del profesorado.

Ciertamente, teniendo en cuenta esta última idea y lo aprendido en la asignatura de *Gizarte inguruneari buruzko proiektu didaktikoak* (Saenz, 2018) la escuela no solo tiene que socializar y educar, sino que también debe impulsar la capacidad para la autonomía y para obtener una actitud de responsabilidad. Desde una perspectiva crítica y respetando los sentimientos, la personalidad del alumnado, y la metodología y disciplina que utilizará el profesorado, la escuela se prepara para que el alumnado viva en una sociedad democrática.

Por consiguiente, la clave está clara: trabajar el tema en las escuelas, antes de tener un caso. Si se trabaja de manera natural y como parte de la realidad, nos formaremos y aprenderemos con los alumnos/as. Pero es verdad que se debe dominar los conceptos básicos que forman parte en el proceso de sexuación (identidad sexual, orientación sexual, género, intersexualidad etc.), con el objetivo de conseguir un aprendizaje significativo y alejado de los mitos.

Por todo ello, personalmente, la parte más difícil ha sido el desaprendizaje; reconstruir lo aprendido sobre la identidad sexual en la escuela y en casa, ya que desde siempre he relacionado los genitales con el sexo. Además, he visto que este aprendizaje se transmite de generación a generación: el alumnado se encuentra con el mismo obstáculo.

Aun así, ha sido un Trabajo de Fin de Grado enriquecedor, puesto que he visto una capacidad mayor en el alumnado para desaprender lo aprendido. Además, me han transmitido la motivación para trabajar aún más el tema en las aulas, gracias a la motivación y la implicación de éstos, y a su vez, por tratar el tema de manera natural y como parte de nuestros derechos. Asimismo, después de llevar a la práctica el rincón mencionado, me han surgido ideas para trabajar de una manera más crítica y profunda, por ejemplo, analizar la situación de la escuela (estructural, social, libros de texto etc.) teniendo como base la identidad sexual. De esta manera el profesor / profesora sería guía del alumnado, trabajando las asignaturas y las competencias de manera transversal.

Es verdad, que he llevado a cabo una guía que es útil y manejable, teniendo como base el análisis DAFO del protocolo de educación ante casos de transexualidad en Navarra y el cuestionario explicado anteriormente. En ella se puede encontrar la propuesta didáctica, *Transformazio txokoa*, que estaría preparada para utilizarla en las aulas en los próximos cursos.

Además junto a la guía creada en el Trabajo de Fin de Grado, añadiría otra propuesta que se podría utilizar en un futuro: usando una aplicación como *Google Sites* crear una página web, que estaría dirigida para el profesorado, en la cual se podrían encontrar

recursos como películas, libros etc. Sería una especie de red donde se trasladarían ideas y actividades para trabajar en el aula.

Está claro que si este tema no se trabaja en las escuelas, no se podrá conseguir una verdadera escuela inclusiva. Aunque parezca difícil responder a la diversidad, también es la obligación de todo el profesorado; por lo tanto, nuestro objetivo.

BIBLIOGRAFIA

- Aguilar, T. (s.f). El sistema sexo-género en los movimientos feministas. *Amnis: Revue de Civilisation Contemporaine de l'Université de Bretagne Occidentale*, 3-10.
Berreskuratua: [file:///C:/Users/Lenovo/Downloads/Dialnet-ElSistemaSexogeneroEnLosMovimientosFeministas-2870086%20\(2\).pdf](file:///C:/Users/Lenovo/Downloads/Dialnet-ElSistemaSexogeneroEnLosMovimientosFeministas-2870086%20(2).pdf)
- Alvarado, J. (2013). Educación sexual preventiva en adolescentes. *Contextos*, (29), 25-42.
Berreskuratua <file:///C:/Users/Lenovo/Downloads/Dialnet-EducacionSexualPreventivaEnAdolescentes-4805510.pdf>
- Beauvoir, S. (2005). *El segundo sexo*. Madrid: Cátedra.
- Boeree, C. G. (s.f.). Abraham Maslow: 1908-1970. *Teorías de la personalidad* 11.
Berreskuratua <https://webpace.ship.edu/cgboer/maslowesp.html>
- Bolaños, M. C., González, M.D., Jimenez M., Ramos, M. E., eta Rodríguez M. I. (s.f.). Educación Afectivo-Sexual en la Educación Primaria. Guía para el profesorado. *Málaga: Consejería de Educación y Ciencia. Instituto Andaluz de la Mujer*.
- Chrysallis (s.f.). Glosario. *Asociación de familias de menores transexuales*.
Berreskuratua <https://chrysallis.org.es/informacion/glosario/>
- De la Cruz M- Romo, C. (2010). *Nueva Educación de las sexualidades*. Madrid, España: IUNIVES.
- Diaz, A. P., eta Matamoros, I. B. (2011). El análisis DAFO y los objetivos estratégicos. *Contribuciones a la Economía*. Berreskuratua <http://www.eumed.net/ce/2011a/domh.htm>
- Duguech, G. (2017). Sexuación y familia ¿Qué nos enseñan los niños trans?. *IX Congreso Internacional de Investigación y Práctica Profesional en Psicología XXIV Jornadas de Investigación XIII Encuentro de Investigadores en Psicología del MERCOSUR*. Facultad de Psicología - Universidad de Buenos Aires, Buenos Aires.
- Ebaluazio, Kalitate, Prestakuntza eta Bizikidetzaren Zerbitzua, Nafarroako Gobernua. (2015). Hezkuntzako protokoloa transexualitate kasuetarako. Berreskuratua

<https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/1054960/ProtocoloTran+s+EUSKweb.pdf/bd0d3e87-0a74-4341-a246-3b31a4b25f55>

Española, C. (1978). Aprobada por Las Cortes en sesiones plenarias del Congreso de los Diputados y del Senado celebradas el 31 de octubre de 1978. *Ratificada por el pueblo español en referéndum de, 6.*

Euskaltzaindiaren hiztegia. (s.f.). Sexualitate. euskaltzaindia.eus. Berreskuratua https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=sexuaitate&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai

Euskaltzaindiaren hiztegia. (s.f.). Transexualitatea. euskaltzaindia. eus. Berreskuratua https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=transexualitatea&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai

Euskaltzaindiaren hiztegia (s.f.). Behar. euskaltzaindia. eus. Berreskuratua https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=behar&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai

Fonseca, C., eta Quintero, M. L. (2009). La Teoría Queer: la de-construcción de las sexualidades periféricas. *Sociológica*, (69), 43-60. Bereskuratua <http://www.scielo.org.mx/pdf/soc/v24n69/v24n69a3.pdf>

Foru Dekretua 60/2014, 2014ko uztailaren 16a, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako Curriculuma. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 174 zb, 2014ko irailaren 5ean, 2-181.

Foru Legea 8/2017, 2017ko ekainak 18a, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 124. zb, 2017ko ekainaren 28.

Gastó, C. (2006). Transexualidad. Aspectos históricos y conceptuales. *Cuadernos de medicina psicosomática y psiquiatría de enlace*, (78), 13-20. Berreskuratua http://transexualia.org/wp-content/uploads/2015/03/Medico_aspectoshistoricos.pdf

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

-
- Global Network of Sex Work Projects. (s.f.). *Street Transvestite Action Revolutionaries found STAR House*. Berreskuratua
<https://www.nswp.org/timeline/event/street-transvestite-action-revolutionaries-found-star-house>
- Halberstam, J. (2018). *Trans*. Una guía rápida y peculiar de la variabilidad de género*. California, Estatu Batuak: EGALLES.
- Hermoso de Mendoza, P. (2012ko otsailaren 22a). ¿Qué es un lapbook?. *Didactalia*. Berreskuratua
<https://didactalia.net/it/comunita/materialeducativo/risorsa/que-es-un-lapbook/e4ba6313-7a5f-4e50-ad09-6d76f27c5001>
- Herrera, C. (2016). Sexualidad queer: gente “rara” y amores diversos. *Revista de Estudios de Juventud*, (111), 57-74. Berreskuratua
http://www.injuve.es/sites/default/files/revista111_cap4.pdf
- Herrero, I., eta Diaz de Agandoña, C. (2010). Transgeneroa eta Transexualitatea: ikuspegi teorikoa. Transgeneroen eta Transexualen egoera Euskadin. *Ararteko*. Berreskuratua
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1719_1.pdf
http://www.congreso.es/public_oficiales/L12/CONG/BOCG/B/BOCG-12-B-122-1.PDF
- Ibaizabal. (s.f.). Haur Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak. Berreskuratua
http://www.ibaizabal.com/en/uploads/documentos_pro/proyectos/UKIMUGI-oinarrizko_gaitasunak.pdf
- Kattalingune. (s.f.). Sexologia. LGTBIQ+. Berreskuratua
<https://www.kattalingune.org/sexologia/lgtbiq/>
- Korol, C. (2007). *Hacia una pedagogía feminista: géneros y educación popular*. Buenos Aires, Argentina: El Colectivo. Berreskuratua
<https://libros.metabiblioteca.org/bitstream/001/434/1/Hacia%20una%20pedagog%C3%ADa%20feminista.pdf>

Lacarra, V. “Kalifikazio soiletik ebaluatzeraz; ebaluazio hezitzailea sustatzeko orientabideak”. Udako Euskal Unibertsitatea. 2019ko maiatzaren 4a.

Landarroitajauregi, J. (2018). Sexo, identidad sexual y menores transexuales. En N. Barqui., G. Genise., eta D. O. Tolosa (Ed.) *Manual integrador hacia la despatologización de las identidades trans*. Argentina: Akadia.

Lebrero, M. P eta Quicios, M del P. (2011). *Pedagogía de la Socialización*. Madrid, España. UNIED.

Ley 3/2007, de 15 de marzo, Reguladora de la Rectificación Registral de la Mención Relativa al Sexo de las Personas. Boletín Oficial del Estado, num. 65, 16 de marzo de 2007, pp. 11251- 11253.

Ley Foral 33/2002, De Fomento de la Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres de Navarra. Boletín Oficial Navarra, num. 150, 13 de diciembre de 2002.

López, L. E., eta Russo, A.R. (2006). La Latencia. *Psicogente*, 9, 66-93. Berreskuratua <http://132.248.9.34/hevila/Psicogente/2006/vol9/no15/5.pdf>

López, V. M. (2005). La participación del alumnado en la evaluación: la autoevaluación, la coevaluación y la evaluación compartida. *Revista. Tándem* 17, 21-37. Berreskuratua: <https://www.slideshare.net/JorgeCastro103/la-participacin-del-alumnado-en-la-evaluacin-la-autoevaluacion-la-coevaluacion-y-la-evaluacion-compartida>

Martínez, R. (2018). La Mesa redonda, ¿Qué es la cultura Queer? *Queer Magazine*,(1), 6.

Maruri, I. (2018ko otsailak 22). Ezjakintasuna da arazo nagusia. Berria. Berreskuratua https://www.berria.eus/paperekoa/2048/011/001/2018-02-22/ezjakintasuna_da_arazo_nagusia.htm

Máscolo, T. (2017ko urriak 26). Día de la visibilidad Intersexual: contra la patologización. *IzquierdaDIARIO.es*. Berreskuratua https://www.izquierdadiario.es/Dia-de-la-visibilidad-Intersexual-contra-la-patologizacion?id_rubrique=2653

Transexualitate protokoloaren azterlana. Identitate-aniztasun sexuala lantzeko proposamen didaktikoa

Mayor, A. (2018). Avances en la comprensión y el acompañamiento de la transexualidad infantil. En N. Barqui., G. Genise., eta D. O. Tolosa (Ed.) *Manual integrador hacia la despatologización de las identidades trans*. Argentina: Akadia.

Oihartzabal, L. (2002ko martxoa). Kohlbergen proposamen psikopedagogikoaren oinarriak eta deskribapena: Just community. *Hik Hasi*, (7), 44-53. Berreskuratua http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2002/03/1498580408-Kohlberg%20liburua.pdf

Orden Foral 93/ 2008. del consejero de educación por la que se regula a la atención a la diversidad en los centros educativos de educación infantil y primaria y educación secundaria de la Comunidad Foral de Navarra, Boletín Oficial de Navarra, num. 93, 30 de julio de 2008.

Organización Mundial de la Salud. (2018ko abuztuaren 23a). Género y salud. Berreskuratua <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/gender>

Orkoingo Udala/ Ayuntamiento de Orkoien. (s.f.). Orkoien: Historia zertzeladak. Berreskuratua <http://www.orkoien.com/index.php?m=lugar&subm=lugar-informacion&t=&idi=8>

Proposición de Ley 122/ 000097 contra la discriminación por orientación sexual, identidad o expresión de género y características sexuales, y de igualdad social de lesbianas, gais, bisexuales, transexuales, transgénero e intersexuales. Congreso de los Diputados, num 121-1, 12 de mayo de 2017, pp. 1-58

Real Academia Española (s.f.). Guía. rae.es Berreskuratua <https://dle.rae.es/?id=JooDg2q>

Real Academia Española. (s.f.). Sexualidad. rae.es. Berreskuratua <https://dle.rae.es/?id=XlsxvTJ>

Real Academia Española. (s.f.). Transexual. real.es. Berreskuratua <https://dle.rae.es/?id=alyGn63>

Real Academia Española. (s.f.). Transexualidad. real.es. Berreskuratua <https://dle.rae.es/?id=aJ3ciFy>

- Recio, C. (2014). La transexualidad imperial romana. In *Códigos comunicativos y docencia* (pp. 389-394). Visión Libros. Berreskuratua https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=NptCBAAAQBAJ&oi=fnd&pg=PA389&dq=heliogabalo+historia+sexual&ots=_Jf87RzRGH&sig=H1lCbVCTFO1YJ5oD9PXMf-NpKAs#v=onepage&q=heliogabalo%20historia%20sexual&f=false
- Reinaldos, F. (2018). La Mesa redonda, ¿Qué es la cultura Queer? *Queer Magazine*, (1), 6.
- Rodellar, P. (2017ko maiatzaren 4an). ¿Tiene sentido que sigan existiendo los baños separados?. *VICE*. Berreskuratua <https://www.vice.com/es/article/d7a8d7/banos-separacion-genero-unisex>
- Rubin, G. (1986). El tráfico de mujeres: notas sobre la "economía política" del sexo. *Nueva antropología*, 8(30), 103-104.
- Sainz, Z. *Gizarte inguruneari buruzko proiektu didaktikoak*. UPNA, Iruñea, 2018an.
- San Fermin ikastola (s.f.). Aurkezpena. Berreskuratua <http://www.sanferminikastola.com/ikastola/aurkezpena>
- Sanduzelai IP (s.f.). Ikastetxea. Berreskuratua <https://sanduzelai.educacion.navarra.es/web/ikastetxea/>
- Sotes Ruiz, J.P. *Garapen ebolutiboa eta ikaskuntza*. UPNA, Iruña, 2016an.
- Stramiello, C. I. (s.f.). ¿Una educación humanista hoy?. *Revista Iberoamericana de Educación*, Berreskuratua <http://pensmat-eneg.com/documentos/enfoqueseducacionhumanistahoy.PDF>
- Trebol, F. *Eskolan esku-hartzeko teknika psikologikoak*. UPNA, Iruñea, 2018an.
- Trujillo, G. (2013). La institución educativa no permite la libre expresión de los cuerpos y de los afectos. *T.E. CCOO enseñanza*, (343), 7-9. Berreskuratua <http://www.fe.ccoo.es/0cb9e23c48f4449052772c7e5b4a78c9000063.pdf>
- Unzueta, S. (2011). Algunos aportes de la psicología y el paradigma socio crítico a una educación comunitaria crítica y reflexiva. *Revista Integra Educativa*, 4(2), 105-

-
144. Berreskuratua http://www.scielo.org.bo/scielo.php?pid=S1997-40432011000200006&script=sci_arttext
- Vázquez, M. del P., eta Valbuena, F. (s.f.). La Pirámide de Necesidades de Abraham Maslow. Berreskuratua <http://coebioetica.salud-oaxaca.gob.mx/wp-content/uploads/2018/libros/ceboax-0530.pdf>
- Velasco, L. (2018). Cambios de 180 grados. Reportaje audiovisual sobre vidas transexuales. (Grado en periodismo). Universidad de Valladolid. Berreskuratua http://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/33136/1/TFG_F_2018_143.pdf
- Velasco, T. E.(2017). *Representaciones sociales de la transexualidad y de las personas transexuales en España* (Tesis Doctoral). Universidad Complutense de Madrid. Berreskuratua <https://eprints.ucm.es/42016/1/T38610.pdf>
- Young, M. (2018ko martxoaren 17an). Alan Hart (1890-1962). *The Oregon Encyclopedia*. Berreskuratua https://oregonencyclopedia.org/articles/hart_alan_1890_1962_/#.XGagTVX0nlU
- Zuberoa, L. *Gizartea, familia eta eskola*. UPNA, Iruñea, 2016an.

ERANSKINAK

- I. **Eranskina.** Irakasleei egindako galdetegia.

TRANS ERREALITATEA EZAGUTZEN

Galdetegi honen bitartez trans* errealitatea irakasleen eskutik nola ezagutzen den eta honen inguruko mitoak desmitifikatu nahi da. Horretarako, helburu orokor eta espezifikokoak bereizi dira.
Helburu orokorra: irakasleek trans* errealitateari buruz duten ezagutza jasotzea.
Helburu espezifikokoak: Adina eta identitate sexuala faktore bezala aztertzea / Irakaste-etapa faktore bezala aztertzea.
ERANTZUNETAN BAKOITZAK DAKIENA ERANTZUN, gaur egun gaiari buruz dagoen ezagutza jaso nahi baita

1 Nola identifikatzen duzu zure burua?

- Emakumea
- Gizona
- Ez binarioa

2. Idatzi zure adina hemen: _____

Texto de respuesta corta

3. Ze etapetan lan egiten ari duzu?

- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- Bestak

4. Zenbat urte daramatzazu irakasle gisa?

- Urte bat
- 1-3 urte artean
- 5 urte
- 5 urte baino gehiago

5. **5. Zuretzat zer da hezkuntza sexuala? (Aukeratu nahi adina erantzun).**

Check all that apply.

- Giza garapena (ugalketa, pubertaroa, orientazio eta identitate sexuala).
- Erlazio sozio-afektiboak (familiak, lagunak, amodiozko erlazioak).
- Baliabide pertsonalak (komunikazioa, negoziaketa, autokontzeptua, autoestimua)
- Erotika (jarrera erotikoak besteekin eta norberarekin, joko erotikoak besteekin eta norberarekin, harreman erotikoak besteekin eta norberarekin)
- Osasunarekin zerikusia duten gaiak (antisorgailuak, gaixotasunak, haurdunaldia).
- Gizartea eta kultura (rolak, estereotipoak, komunikabideen eragina...).
- Other: _____

6. **6. Zure aburuz, hezkuntza sexuala eskolan landu behar da?**

Mark only one oval.

- Bai
- Ez
- Neurri batean bai, neurri batean ez

7. **7. Aukeratu zure egoerari dagokiona:**

Mark only one oval per row.

	1 (Bat ere ez)	2 (Gubxi)	3 (Nahiko)	4 (Asko)
Noizbait hezkuntza sexuala klasean landu duzu?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Estrategiak/ formakuntzarik duzu hau irakasteko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gai ikusten duzu zure burua klasean hau lantzeko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Eroso sentitzen zara hau lantzerakoan? (Soilik erantzun noizbait landu baduzu)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

8. **8. Noizbait trans* hitza entzun/ irakurri al duzu?**

Mark only one oval.

- Ez
- Bai. Entzuna dut, baina bere esanahia ez dakit /ez dut gogoratzen
- Bai. Badakit zer den.

9. **9. Zer esan nahi du Trans* hitzak?**

10. **10. Umeek ahalmena dute beraien identitate eta orientazio sexuala identifikatzeko?**

Mark only one oval.

- Bai
- Ez
- Neurri batean bai, neurri batean ez

11. **11. Identitatea nork duzun gustuko, hots, orientazio sexualari erreferentzia egiten dio**

Mark only one oval.

- Bai
- Ez
- Neurri batean bai, neurri batean ez

12. **12. Trans* pertsonak solik gay edo lesbianak dira**

Mark only one oval.

- Bai
 Ez
 Ez du zertan

13. **13. Trans* izatea erabaki bat da.**

Mark only one oval.

- Bai. Norbaitek edo zerbaitek eraginda
 Ez. Trans* pertsonak trans* bezala jaiotzen dira

<https://docs.google.com/forms/d/1PYRigHu00wgGQy-HehIABshd26lVR2qZb2zcUln5v6U/edit>

2/3

8/1/2019

TRANS ERREALITATEA EZAGUTZEN

14. **14. Pertsona transexuala eta intersexuala berdinar dira?**

Mark only one oval.

- Bai
 Ez
 Antzekoak dira

15. **15. Zer da pertsona intersexuala izatea?**

16. **16. Pertsona transexualei esleitutako sexuaren arabera tratatu behar zaie**

Mark only one oval.

- Egia
 Gezurra
 Berari galdetu beharko zaio

17. **17. Ezagutzen /irakurri duzu Nafarroako transexualitate kasuetarako dagoen protokoloa?**

Mark only one oval.

- Bai
 Ez
 Ez nekien zegoela

18. **18. Protokoloa ezagutzen baduzu, gabeziren bat ikusten duzu?**

Mark only one oval.

- Bai
 Ez
 Other: _____

19. **19. galderan "Bai" erantzunez gero, zer-nolako gabeziak ikusten dituzu?**

II. Eranskina: Gidaren atalen hainbat argazki



IDENTITATE SEXUALA

Pertsona bakoitzak egiten duen identifikazioa, emakume, gizon edo pertsona ez binarioa (emakume edo gizon kontzeptuak ber ehorretan ez diren identitate sexualak) delakoa. Identitate sexuala 2 urterekin eginkortzen jartzen da. Hala ere, lortzea osoan daramen prozesua da, hain zuzen, ez gara "emakume" edo "gizon" jartzen, baizik eta sexuatzat prozesuaren ondorioz, emakume zain gizon moduan (bakoitzak bere moduan) erakitzten gara.



Agi eduki behar dugu **identitate sexuala ez dagoela gaitan lan mairpe**. Berez, burua edota zakila eduki/erabaki ez du esan nahiz "emakume" edo "gizon" generik. Jaki/zein "naska" edo "mutilla", hau da, sexu bat **esleitzen** dugun, baina horretan ez da esan nahiz eslebitako sexu gure identitate sexualarekin bat etorriko denik. Hori dela eta, katigorazio sexual hasi kanpotik eslebitakoa da. Horiek horrela, eslebitako sexu umesaren identitate sexualarekin bat etorriko denak, "ni naska" bat daramen bakoitzak, ahaztu zirela ikazteko behar dugu gaitan lan mairpe.

ORIENTAZIO SEXUALA

Gure desioa eta erakarpen sexualari dagokio. Beste pertsonarekiko identitate sexual berdineko edo desberdineko preferentzia. Sozialki hainbat etiketak bereizten dira:

- **Heterosexual:** identitate sexual desberdineko desio sexuala izatea.
- **Homosexual:** identitate sexual berdineko desio sexuala izatea.
- **Biexual:** identitate berdin edo desberdineko desio sexuala izatea.
- **Asexual:** identitate berdin edo desberdinen pertsonarekiko desio sexuala ez izatea.
- **Pansexual:** identitate sexuala kontuan hartu gabe, beste pertsonarekiko desio sexuala.


Golan esan bezala, gzarreak pertsonen desio sexuala "identifikazio" eta "eslebitzeko" sailkapena da, izan ere, **Queer**¹ bezalako terminoak oinarrituz, gu pertsona bezala beste pertsona bat deslebitu dezakegu, etiketatuta gabe, erakitzte soziala hautatuz.

¹Queer = Queer izatea ez da soilik zerbitu estetiko, baizik eta politikoa dibertitatearen gorapena eta "normaltasuna" ezabatzen du (Gómez, 2016).

GENEROA

Gzarrean eta kultura bakoitzean erakitzeko estereotipoak, jantziaren, modako osagarriak, kirol edo lanpostuak... erlazionatzen direnak. **Kuzpegi sexu-erakitzeko** ez dago genero eta sexuaren arteko desberdintasunik. Berez, ez gara femenino edo maskulinoak, baizik eta lehen esan bezala, bien ezaugarriak ditugu. Azaldu gaitan bakoitzak bere baitan dituen maskulino eta femenino horiek osatzen eta ahalbidetzen ez dituen gzarre baten parte gara. Oraindik ere, gure ingurumen sozialaren emakume zain gizon izateko modu mugatsak ditugu.

Konzeptu hauek behin ulertuta, agi eduki behar dugu **azaldukiro kontzeptuak erlazionatu** egiten arren **gaitan desberdintze** direla, eta berez, **aniztasun** eta **desberdintasun** gaita. Ezate baterako, ni neska izan nahi/ke (edo mutilla) nahiz eta eslebitako sexu mutilla (edo neska) izan, izan ere, kanpotik identitate sexual bat esleitu ditate, nahiz eta ni horrela ez izan. Beste kasu batzuetan, esan bezala, identitate sexuala eslebitako sexuarekin bat etorriko da. Orientazio sexualari dagokionez, hots, nire desio erotiko horien gaita zuzentzen den, nire identitatea bat ala beste izan arren, edozein eta antza ere izan daiteke.



III. Eranskina. Motibazio jarduera.

MOTIBAZIO JARDUERA	
Dinamikaren sintesia:	
Kurtsoan zehar lantzen joango garen gaia aurkeztu: Maslow piramidea.	
Zer landu nahi da:	Konpetentziak:
<ul style="list-style-type: none"> - Maslow nor da. - Beharren piramidea. - Kooperazioa (Hezkuntza kontratua-arauen orria sortzeko) 	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza komunikazioa
Garapena:	
<ul style="list-style-type: none"> - Txokoan astean zenbat egun eta zein egunetan landuko den azaltzea. - Oinarrizko arauak (beraiekin adostuko direnak) paper batean idaztea. - Klase bakoitzean ikasten den hiztegi berria erabiltzen saiatzeko eskaera eginen diegu. - Motibazio moduan erronka bat planteatu diezaiokegu: saio bakoitzean ikasitakoaren sintesi edo horrekin zerikusia duen zerbait muralean (pasilloan edota klasean) itsasten joatea, horrela, gainerako ikasleak honen berri izango dute eta era berean kuriositatea piztu diezaike. <p>Gaiari hasiera emateko, txokoan egonen den piramidearen inguruko aurre-ideiak ezagutuko ditugu. Lehenengo eta behin hitza ikasleei emango zaie, abiapuntua zein den jakiteko, eta hortik abiatzeko.</p> <p>Jarraian irakasleak sarreratxo bat eginen du, ikasleak gaien kokatzeko: nor den Maslow, zer egin zuen, piramidearen esanahia...</p> <p><i>Istoriotxo hau 1908an hasten da, Estatu Batuetako New York hirian, zehatz-mehatz Brooklyn auzoan. Abraham Maslow deitutako bat jaio zen. Mutiko honek liburuak pila gustatzen zitzaizkion, egunero eskolatik bueltatu eta bere liburua hartu eta orduak eta orduak hau irakurtzen egoten zen.</i></p> <p><i>New Yorkeko unibertsitatean legeak ikasi zituen, baina urteak pasa ziren heinean psikologia asko interesatu zitzaion, eta badakizu zer gai aztertu zuen? Giza sexualitatearen gaia.</i></p> <p><i>Gainera, psikologo honek teoria oso famatua egin zuen: "beharren piramidea", 5 zutabeetan banatuta dagoena. Piramidearen oinarria pertsona bakoitzak dituen oinarrizko beharrei dagokio, eta errenkada bakoitza igotzen dugun heinean behar konplexuagoak aurkezten digu. Autore honek behar guztiak lotuta daude esaten du,</i></p>	

bat bestearen menpe.

Hau azalduta, denon artean **kurtsoan zehar piramide hau osatzen joango** garela auresango diegu. Horretarako, lehenengo errenkadatik abiatu beharko gara.

Denbora:

Saio bat

Materiala:

Maslow piramidea (hutsik)

Gomendioa:

Maslow piramidearen irudia hutsik egotea gomendagarria da, beraiek pixkanaka saio bakoitzaren bukaeran hau osatzen joateko.

IV. Eranskina: Behar fisiologikoa eta segurtasuna.

I. BEHAR FISIOLGIKOA ETA SEGURTASUNA	
<p>Dinamikaren sintesia: Ikasleei munduan egon daitezkeen egoera sozio ekonomiko desberdinak aurkeztea. Honek duen garrantzia, bai era pertsonalean bai interpersonalean.</p>	
<p>Zer landu nahi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen kontzientzia kritikoa 	<p>Konpetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza komunikazioa - Gaitasun sozial eta zibikoak
<p>Garapena:</p> <p>Isilean (begiak itxita ahal badute) bere egunerokoan beharrezkoa zaien gauza batean (minimo) pentsatzea eskatuko diegu. Behin ideia buruan dutela, posit bat emango zaie ideia orrian idatz dezaten. Jarraian bakoitzak idatzitako beharra dagokion kartulinean –klaseko espazio osoa hartuz bi kartulina jar ditzakegu ondorengo esaldiekin: 1)Behar hau bizirauteko beharrezkoa da, 2) Behar hau ez da bizirauteko beharrezkoa- kokatzea eskatuko zaie. Horrela, jarraian denen ideiak/ beharrak ozen aipatu eta aztertuko ditugu.</p> <p>Honetan debatea sortzeko aukera egon daiteke (idatzitako beharra bizirauteko beharra da? guztiek oinarrizko behar berdinak ditugu? Guztiek oinarrizko beharrak asetuta ditugu? Munduko leku guztietan behar berdinak daude? Gure inguruan beharrak asetuta daude?. Nola lor daitezke behar hauek asetzea? Noren esku daude?... Seguraski behar fisiologikoekin batera segurtasuna (bigarren errenkada) kontzeptua aterako da, hauek biek estuki lotuta baitaude.</p> <p>2 bideo ikusiko ditugu bat Espainian eta beste bat Georgian egindak. Bideoak entzuten dituzten bitartean gaia zein den eta bideoaren bitartez eman nahi den mezua aztertu beharko dute.</p>	
<p>Denbora:</p> <p>Saio bat</p>	<p>Materiala:</p> <p>Bideoak (irakasle bakoitzak egokiak direnak hautatu ditzake).</p> <p>Kasu honetan erabilitako bideoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espainia: https://www.youtube.com/watch?v=vZQ8Jtg8Lzg 1`15”

	<p>- Georgia: https://www.youtube.com/watch?v=kD0-SEBzLJU 2"</p>
<p>Gomendioa:</p> <p>Bideoa entzun ondoren planteatu daitezkeen galderak hurrengoak dira:</p> <p><i>Oinarrizko beharrak asetuta ditu? zergatik? Segurtasuna? Gizartean parte hartzea du?</i></p> <p><i>Ezaguna zaizue egoera? Nola sentituko zinateke? (emozioen orria eman)</i></p> <p><i>Amaitzeko galdera bat botako diegu: zer egin dezakegu guk? (aukera bat jendea kontzientziaztea izan daiteke, ez badugu botere ekonomiko-politikorik). Eskolan zer egin?</i></p> <p>Gainerako irakasgaiekin lotu daitezkeen gaia da, izan ere, kasu honetan Europa gaiarekin -momentu horretan lantzen ari zuten gaiarekin- saioa lotu nuen.</p>	

V. Eranskina: Afiliazio errenkada.

II. BEHAR FISIOLGIKO ETA SEGURTASUNAREN AMAIERA	
<p>Dinamikaren sintesia:</p> <p>Saio hasieran erabiliko den dinamika da, aurreko eguneko kontzeptuak birpasatu eta afiliazio kontzeptuarekin hasteko balio izango zaiguna.</p>	
<p>Zer landu nahi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Behar fisiologikoak - Segurtasun familiarren garrantzia eta afektua - Pertenentziaren kontzeptuak. 	<p>Konpetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza komunikazioa
<p>Garapena:</p> <p>Saioa hasterakoan bideoa jarriko zaie. Hau behin ikusita zein den gaia eta bideoan zer gertatzen den galdetuko zaie.</p> <p>Lagundu daitezkeen galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zergatik jarri dut honako bideoa? - Bere esanahia zein da? aurreko saioan landutako bi kontzeptuak birgogoratu (segurtasuna, behar fisiologikoa). - Zer beste behar ez du asetuta? <p>Orri birakaria erabili daiteke, taldeka galdera hauek erantzuteko.</p>	
<p>Denbora:</p> <p>10-15 minutu</p>	<p>Materiala:</p> <p>Bideoa: 4' 34"</p> <p>https://www.youtube.com/watch?v=uXWXbqn3bZw</p>
<p>Gomendioa:</p> <p>Dinamika hau aurrera eramaten bada, hurrengo jarduerarekin lotzea aholkatzen da, izan ere, bideoan agertzen diren kontzeptuak ondorengo dinamiketan beraiek praktikara eramango dute, beraz, ikaskuntza esanguratsuagoa izango da.</p>	

GOMETSEN DINAMIKA
<p>Dinamikaren sintesia:</p>

Kolore desberdineko gometsekin pertenezaren kontzeptua landuko da.	
Zer landu nahi da:	Konpetentziak:
- Pertenezia eta negoziaketa.	- Hizkuntza komunikazioa - Ekimena eta ekintzailletza
<p>Garapena:</p> <p>Ikasle bakoitzari gomets bat kopetan jarriko zaio. 3 kolore erabiliko dira: gorria, berdea eta urdina. Urdina soilik ikasle bati jarriko zaio; berdea eta gorria gainerako ikasleen kopetan itsatsiko ditugu.</p> <p>Gometsak itsatsi baino lehen, ikasleei begiak ixtea eskatuko zaie. Behin ikasle bakoitzak bere gometsa duela, begiak ireki eta "taldeak egin" eskatuko diegu. Inolako pista edo pautarik gabe.</p> <p>Behin taldeak egin dituztela, ikasleekin hitz egingo dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nola sentitu zarete? - Erraz suertatu zaizue taldeak egitea? - Kolore bakarreko pertsona nola sentitu da? - Koloreen arabera sailkatu zarete? - Kostatu zaizue talde batean sartzea? - Harrera egin dizuete? Edo desplazatu zaituztete zuen gometsarengatik? - Zer egin duzue? Klasifikatu, etiketatu? Gu eta "besteak"? <p>Aurretik landutako bideoarekin debatea lotu daiteke, zapatilak ez zituen mutikoa zer gomets izango luke? eta aitarekin dagoen umea?</p>	
Denbora:	Materiala:
10-15 minutu	Kolorezko gometsak
<p>Gomendioa:</p> <p>Dinamika ez da bideratua izan behar. Ikasleek sormena eta norberak bere burua kritikatzeko eta erabakiak hartzeko aukera eman behar zaie.</p>	

BALANTZA GU GARA

Dinamikaren sintesia:

Gelan barna ikasleak mugituko dira, ahalik eta sakabanatuen. Irakasleak material desberdinak ikasleei emango die, hauek beste ikaskide bati pasa beharko dietena,

beti ere lurrera erori gabe.	
Zer landu nahi da: <ul style="list-style-type: none"> - Erlazio afektibo osasuntsuak. - Lankidetzan aritzea. 	Konpetentziak: <ul style="list-style-type: none"> - Gaitasun sozial eta zibikoak
Garapena: <p>Irakasleak balantza batean daudela imajinatzea eskatuko die ikasleei. Beraz, balantza ez apurtzeko ikasleak gelan barna, borobilean, sakabanatuta eta era konpentsatuan mugitu beharko dira. Helburua balantza era orekatuan mantentzea da.</p> <p>Ikasleak mugitzen diren bitartean irakasleak materialak ateratzen joango da, ikasle bati eman eta honek besteei pasa beharko die. Hasiera batean irakasleak material bakarra aterako du, baina denbora pasatzen den heinean gero eta material gehiago aterako ditu, beraz, gero eta ikasle gehiagok material bat eskuetan izanen dute. Helburua ez da ikasleek materiala eskuetan mantentzea, baizik eta ikaskideei era egoki batean materiala pasatzea. Hau egiteko hasiera batean hitz egin gabe, soilik ikaskideari materiala eman ez ginen dute. Gero, aldiz, pasea egiteko hitz bat esan beharko diote.</p> <p>Jarraibide hauek guztiak irakasleak jarduera aurrera joaten den heinean esango ditu.</p>	
Denbora: <p>15 minutu</p>	Materiala: <p>Manta Kuxinak Baloia Ur botila Kristalezko zerbait....</p>
Gomendioa: <p>Material hauskorra dinamikan erabiltzea gomendatzen da, beraiek material hauskor bat edukiz gero,honek izan dezakeen garrantzia ulertuko baitute.</p>	

Saioa bukatu baino lehen hiru dinamikak errepasatu eta hauen lotura zein den ondorioztatzen saiatu behar dira. Hiru era desberdinetan kontzeptu bera landu da: pertenezia eta honekin batera erlazio afektibo osasuntsuak.

SAGARREN DINAMIKA

<p>Dinamikaren sintesia:</p> <p>Irakasleak bi sagar Carlota deituak klasera eramango ditu (Carlota bat klasean badago beste izen bat hautatu ezazu). Hasiera batean Carlota ondo sentitzeko esaldi edo hitzak esango dizkiogu, ondoren, aldiz, hau sufriarazteko hitzak.</p>	
<p>Zer landu nahi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biolentzia fisikoak eta psikologikoak dituen ondorio errepara ezinak pertsona batean. - Erlazio afektibo osasuntsuen garrantzia - Lankidetzan aritzearen garrantzia 	<p>Konpetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gaitasun sozial eta zibikoak - Hizkuntza komunikazioa
<p>Garapena:</p> <p>Irakasleak bi sagar gelara eramango ditu. Dinamika hasi baino lehen irakasleak sagarra Carlota deitzen dela esango du. Oraingoan ikasleek beraien gertu dagoen pertsona batengan pentsatzea eskatuko die, "Carlota" horretan pentsatzea.</p> <p>Jarraian, sagar bat hartu eta ikasle bati emango dio: "imajinatu sagar hori ni naizela", nola tratatuko zenuke? Jarraian ikasle bakoitzak sagarra, Carlota hori den pertsonan pentsatzea eta ondo sentitzeko esaldi edo hitz polit bat esatea eskatuko zaie. Hau behin eginda, bigarren sagarra hartu eta ikasleek Carlota gaizki sentiarazteko hitz edo esaldiak errondan esateko (eta esaten duten bakoitzean sagarra lurrera jaurtitzeko) eskatuko zaie.</p> <p>Behin dinamika egin dugula, zirkuluan eseri eta bi sagarrak irekiko ditugu: hasierako Carlota osasuntsu eta urratu gabe dagoela ikusiko da; bigarren Carlota, aldiz, ustelduagoa eta urratsekin dagoela ikusiko dute.</p> <p>Honen helburua ikasleek pertsona bat iraintzen edo sufriarazten dugun lehenengo momentutik zauriak eta ondorio larri batzuk sortzen ari dizkiogula ikustaraztea da. Era berean, parte-hartzaileak soilik ez direla beraien, baita ere beraien inguruan dauden begiraleak baizik. Jazarpena gertatzen da biolentzia onartzen, biolentzia egiten eta biolentzia ikusten (eragin gabe) duten pertsonak daudelako.</p> <p>Oso garrantzitsua da beraien sentipenak entzutea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nola sentitu zarete Carlota sendotzeko edo indartzeko esaldiak esaterakoan? - Eta Carlota sufriarazi duzuenean? hasiera batean ondo sentitu zarete hitz edo esaldi horrekin? (baliteke amorrua edo haserrearengatik batzuetan pentsatu gabe hau esatea...) eta ondoren ongi sentitu zarete? - Noizbait horrelakorik sentitu duzue? edo esan duzue? - Arazotzat hartzen duzue egoera hau? edo normaltzat? Arazotzat hartzen baduzue, nola konponduko zenukete? Honetan sagarrarekin esperimendatzen utziko diegu: Carlota "konpontzen". Baina ondoren ikusiko 	

<p>den bezala, Carlota ezin da hasierako egoera edo pertsona izatera bueltatu. Beraz, orain zer egin? soluzioak bilatu, hurrengorako zer egin? kontziente gara egoera larriaz?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hortaz, erlazio afektiboak nolakoak izan behar dira? zer-nolako erlazio afektiboak ditugu? osasuntsuak dira? lankidetzan aritzen gara? edo botere gerra batean? - Carlota orain aurrean izango bazenute, zer esango zenioke? 	
<p>Denbora:</p> <p>30 minutu- saio bat</p>	<p>Materiala:</p> <p>Bi sagar</p>
<p>Gomendioa:</p> <p>Dinamika hau aurrera eramateko era sakonean eta behar den denbora ematea eskatzen da. Edozein adinetan egokia izan daiteke.</p> <p>Amaitzeko bideoen bat jartzea egokia izango litzateke, ariketa borobiltzeko. Bullying jasan eta gaur egun hau gainditu duten pertsonen inguruan, esaterako. Denbora izanez gero, bullying kasu baten edota arrazoi sozialengatik jazarpena jasan duen testigantza jorratzea (irakurketa) egokia legoke.</p>	

VI. Eranskina: Onarpenaren errenkada

ISPILUAREN DINAMIKA	
<p>Dinamikaren sintesia:</p> <p>Kaxa baten barruan ispilua itsasi. Ikasleak banaka kaxa irekiko dute eta beraien burua ispiluan islatuta ikusiko dute.</p>	
<p>Zer landu nahi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autoestimua - Norbanakoak bere burua maitatzearen garrantzia 	<p>Konpetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimena eta ekintzailtza - Hizkuntza komunikazioa
<p>Garapena:</p> <p>Irakasleak altxor txiki bat etxera iritsi zaiola kontatuko du. Honetan irakasleak antzeztu egingen du, kaxarekin batera iritsi zaión eskutitza irakurriz.</p> <p>Ikasleek begiak ixten dituzte:</p> <p><i>Kaixo -iraslearen izena-, Pozten naiz x eskolan gustura zaudela jakiteak, ikasleak jatorrak dirudite. Eskutitz honen bitartez opari preziatu bat bidaliko dizut, espero asko gustatzea, gainera ikasleekin konpartitzeko aukera izango duzu! kontatuko didazu... Soilik esan behar dizut hemen barruan dagoen pertsona polita, inteligentea eta bihotz onekoa dela. Kontent eta pozik dagoenean ingurukoak pozten dira. Gainera, inguruko pertsonak asko maite dute. Zailtasunak izan arren, hauek gainditzen daki. Batzuetan alfer egon daiteke, haserre egon daiteke, baina ez da alferra ezta bihotz gabekoa. Sinadura</i></p> <p>Ikasleek begiak irekitzen dituzte:</p> <p>Irakasleak pertsona horretan pentsatzea eskatuko die. Norbaitek ozen esatera ausartzen bada hitza emango zaio.</p> <p>Ikasleak banaka kaxara joan ireki eta ispilua ikusiko dute (ispiluan bere burua islatuko da). Hau ikasle guztiekin egingo da.</p> <p>Dinamikarekin bukatzeko, irakasleak pentsatu duten pertsona kaxan ikusi duten pertsonarekin bat etortzen den galdetuko die. Honen inguruan arituko dira.</p>	

Denbora: 15 minutu	Materiala: Kaxa bat Ispilua
Gomendia: Irakasleak antzeztea ongi legoke, ikasleak motibatzen eta dinamikan sartzeko.	

ARTILEZKO SAREAREN DINAMIKA	
Dinamikaren sintesia: Ikasle guztiak biribilean, zutik egonda bakoitzak bera definitu dezakeen adjektiboa (positiboa eta negatiboa) izendatu behar du. Hau egitean artilezko bola beste ikasle bati jaurtiko dio, bera artilearen punta eutsiz. Ikasle guztiekin dinamika bera aurrera eramango da, guztiekin sare erraldoia sortuz.	
Zer landu nahi da: <ul style="list-style-type: none"> - Autoestimua - Norbanakoak bere burua maitatzearen garrantzia 	Konpetentziak: <ul style="list-style-type: none"> - Ekimena eta ekintzailtza - Hizkuntza komunikazioa
Garapena: Irakasleak ikasle bati artilezko bola emango dio. Honek bera definitzen duen hitza esan eta beste ikaskide bati bola pasako dio, artilearen punta eusten duelarik. Horrela, ikasle guztiak hitza esan ondoren, guztien artean sare erraldoia sortu dutela ikusiko dute.	
Denbora: 10 minutu	Materiala: Artilea
Gomendia: Hobe ikasleek alde batetik bestera artilezko bola pasatzea, ahalik eta urrutien (ez bere ezkerrean edo eskuinean dagoen ikasleari).	

FOKUA NI NAIZ	
<p>Dinamikaren sintesia:</p> <p>Taldeka ikasleak jarriko dira. Erdian ikasle bat jarri eta gainerakoak orri batean nolakotasun positibo zein hobetzeko bat idatziko diote. Dinamika bera taldeko ikasle guztiekin egingo da.</p>	
<p>Zer landu nahi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autoestimua - Lankidetzeta - Erlazio afektibo osasuntsuak 	<p>Konpetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimena eta ekintzailtza - Hizkuntza komunikazioa
<p>Garapena:</p> <p>Irakasleak lau taldeak sortuko ditu. Talde bakoitza gelan sakabanatuta egongo da. Talde bakoitzeko pertsona bat taldetxoaren erdian jarri eta gainerako taldekideek nolakotasun positibo bat idatzi beharko diote. Hau ikasle guztiekin egingo da. Amaieran denok borobilean eseri eta nola sentitu garen, zer idatzi diguten... hitz egingo dugu.</p>	
<p>Denbora:</p> <p>20 minutu</p>	<p>Materiala:</p> <p>Idazteko orriak</p>
<p>Gomendioa:</p> <p>Denbora balego ikusiko den bideoa: https://www.youtube.com/watch?v=v_0OJ1Lt2KE</p>	

Debatea egin/ fitxa bete:

- Lehenengo ariketan: neure burua irudikatu dut ispilua ikusi baino lehen?
- Bigarren ariketan: erraza egin zait nire nolakotasun positiboa esatea?
- Hirugarren ariketan: erraza iruditu zait beste baten nolakotasun positiboa eta negatiboa esatea?

VII. Eranskina: Onarpena: Identitate sexuala

Emakume, neska, gizon eta mutilaren deskribapenak	
Dinamikaren sintesia:	
Taldeka emakume, gizon, neska eta mutilen ezaugarriak deskribatzea.	
Zer landu nahi da:	Konpetentziak:
- Gizon-emakumeen estereotipoak	- Hizkuntza komunikazioa
Garapena:	
<p>Ikasleak motibatu eta estimulatzeko hasiera batean eskutitz bat irakurriko da. Honetan martetarrak emakume eta gizonak izeneko pertsonak Lurrean bizi direla dakitela esango zaie, baina beraiek hauek bik nola desberdindu jakin nahi dutela helaraziko zaie, eta hain zuzen ere, jarduera hau azaltzea datza: “neska umea”, “mutil umea”, “emakume gaztea” eta “gizon gaztea”. Talde bakoitzak orrian esleitutako pertsona mota deskribatu beharko du. Guztiei irizpide berdinak emango zaie laguntza moduan. Hau behin eginda, arbelean taula bat egingo da bakoitzak jarritako ezaugarriak bertaratu.</p>	
Denbora:	Materiala:
Saio bat	Eskutitza Laguntza-orria
Gomendioa:	
<p>Eskutitza beraiek landutako zerbaiten inguruan egokia izango litzateke. Kasu honetan gelan ateratako gaia izanik, hau baliabidetzat erabili nuen.</p> <p>Saio honi jarraiki edertasuna landu daiteke, gizon eta emakumeen argazkiak klasera ekarriz eta hau landuz. Era berean, estereotipoak landu eta emakume eta gizonaren edertasun kanonak landuko lirateke.</p>	

6- ARGAZKIAK AZTERTZEN

<p>Dinamikaren sintesia:</p> <p>Niñas y niños liburua erabiliz argazkiak aztertuko dira.</p>	
<p>Zer landu nahi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Identitate aniztasun sexuala. 	<p>Konpetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza komunikazioa. - Gaitasun sozial eta zibikoak.
<p>Garapena:</p> <p>Niñas y Niños liburuan agertzen diren hainbat argazki eman eta banaka edo taldeka hau deskribatu beharko dute. Hau egiteko hiru irizpide kontuan hartu beharko dituzte: sexua, pertsonaren deskribapen fisikoa eta izan ditzakeen gustuak edo zaletasunak. Hau behin eginda, irakasleak taula batean ikasleek ateratako ideiak idatziko ditu. Azkenik, liburuan argazki bakoitzari dagokion istorioa irakurriko da, denon artean ateratako ideiak eta beraiek idatzitakoa eta liburuak azaldutakoa konparatuz.</p> <p>Aipatzekoa da liburu honetan agertzen diren pertsonak aniztasunaren parte direla: badaude esleitutako sexua neska eta identitate sexuala neska dutenak (edo aldrebes). Baita ere esleitutako sexua neska eta bere burua mutil izendatzen dutenak (edo aldrebes). Edota futbola gustuko duten mutil zein neskak. Era labur batean esanda, gizartean dauden estereotipoekin bat etortzen direnak zein kategorizazio sozial hauekin apurtzen dituzten neska-mutilak agertzen dira. Beraz, era zehar eta natural batean identitate sexual guztiak lantzeko aukera ematen duen liburua da.</p> <p>Oso garrantzitsua da, behin argazkiak aztertu direla, irakasleak ikasleen ezagutzak inkontzientetik kontzientziara eramatea; horretarako era honetako galdera formulatu daiteke: “zerk egiten gaitu neska izatea, eta zerk egiten gaitu mutila izatea?” , “Genitalen menpe gaude?”. Dinamika honen helburua mutila eta neska izateko era asko daudela, eta mutil gehienek zakila dutela eta, gutxiago badira ere, badaudela bulba duten mutilak (eta aldrebes) ikustaraztea da.</p> <p>Dinamika are gehiago borobiltzeko, Chrysallis eta Naizen egindako bideo aproposak daude, hauek saioa amaitzeko erabili daitezkeenak.</p>	
<p>Denbora:</p> <p>3 saio</p>	<p>Materiala:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Niñas y Niños: Cada Una Cada Uno Diferente- Mayor Aingeru - Chrysallis bideoa (7’): https://www.berria.eus/albisteak/134322/haurren-transexualitateari-buruzko-ikus-entzunezko-didaktiko-bat-egin-du-chrysallisek.htm

	<ul style="list-style-type: none"> - ¿Quién eres? Naizen bideoa (2-3') https://www.facebook.com/CsEuskadi/videos/naizen-asociaci%C3%B3n-de-familias-menores-transsexuales/376011943198303/
<p>Gomendioa:</p> <p>Liburuak aurkezten dituen pertsonen aurkezpenak laburrak dira, beraz, nire kasuan hauek luzatu nituen, gaia lantzen zen bitartean irakurketa ere jorrazteko. Hala ere ez da haria galdu behar; jardueraren muina identitate sexuala lantzea baita.</p> <p>Queer teoria jarduera honetan landu daiteke, pertsona baten testigantza bertaratuz, esate baterako.</p>	

EGUNKARIETAKO TITULARRAK AZTERTZEN	
<p>Dinamikaren sintesia:</p> <p>Egunkarietako titularrak aztertuko dira, alde batetik transexual pertsonen egoera soziala ezagutzeko, eta bestetik, egunkariak informazioa kudeatzeko era desberdinak ikusteko.</p>	
<p>Zer landu nahi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Transexualitatearen egoera munduan zehar. - Komunikabideek idazten dituzten titularrak aztertzeko adimen kritikoa eraikitzea. 	<p>Kompetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza komunikazioa. - Gaitasun sozial eta zibikoak. - Ikasten ikastea.
<p>Garapena:</p> <p>Irakasleak egunkari desberdinen titularrak klasera eramango ditu. Ikasleak launaka jarri eta talde bakoitzari titularrak emango dizkie (talde guztiek titular berdina izango dituzte). Hauek guztiak irakurtzeko denbora emango dizkie. Behin irakurri dutela, ikasleen iritziak edo sententzioak entzungo ditu. Irakasleak jarduera bideratu behar du. Horretarako, galdera hauek lagungarriak izan daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zerbait arraro ikusi dituzue titularretan? 	

<ul style="list-style-type: none"> - Titularretan pertsona hori transexuala denik esatea beharrezkoa da? (batzuetan beharrezkoa dela ondorioztatuko da, hau da, berria transexuala izateagatik gertaera hori gertatu dela izango delako. Aldiz, beste batzuetan transexuala hitza “kuriositate” moduan jarriko dute. Hau lantzeko interesgarria izango litzateke irakasleak titular bat moldatzea eta titularrean agertzen den pertsona heterosexuala eta mutil zakiladuna dela esatea (adibidez), ikasleek hau horrela bada ez dela aipatzen konturatzeko. - Transexualen egoera munduko leku guztietan berdina da? eskubide bat da? non bai? non ez? 	
Denbora: 2-3 saio	Materiala: Egunkarietako titularrak
Gomendioa: <p>Irakaslea jarduera bideratu behar du, baina ikasleek parte-hartze aktiboa izan behar dute. Beraiek ateratzen dituzten ideiak kontuan hartuz, irakasleak jarduera modu batean ala bestean bideratu beharko du.</p> <p>Denbora izanez gero, egun batean beraiek egunkarietan titularrak bilatu eta aztertzeko aukera eman ahal zaie, jarduera are esanguratsuagoa eta era berean gaitasun digitalak garatzeko helburuarekin.</p>	

ETORKIZUNA IRUDIKATZEN

Dinamikaren sintesia: Maslow piramidearekin landutako gai guztiak kontuan hartuz, eta identitate sexuala gaiaren muina izanik, beraiek helduak direnean nahi duten etorkizuna irudikatzea eskatuko zaie.	
Zer landu nahi da: <ul style="list-style-type: none"> - Irudimena, sormena. - Adimen kritikoa. 	Konpetentziak: <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza komunikazioa. - Gaitasun digitalak. - Ekimena eta ekintzailtza.
Garapena: Hasiera batean Maslow piramidearen bitartez landutako gai eta ateratako hausnarketak birgogoratuko dira. Hau behin eginda, beraiek etorkizunaren giltza izanik, beraiek bizi nahi duten gizartea irudikatzea eskatuko diegu. Horretarako collage modukoa edota kartelak egin ditzakete. Nahiko librea izango den jarduera da,	

baina landutako gaiak kontuan hartuz hau jorratu behar dutena.	
Denbora: 2-3 saio	Materiala: - Ikasleek behar dituzten materialak (kartulinak, errotulagailuak...)
Gomendioa: Jarduera hau ordenagailuekin planteatzen bada, CANVA programarekin jorratu daiteke.	

VIII. Eranskina: Lapbook





<http://serviciouvai.blogspot.com/2017/05/lapbook-sobre-la-sexualidad.html>

